

Atzerritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman

Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak
2018ko Urria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Aurkibidea

1. Azterlanaren aurkezpena.
 - 1.1. Azterlanaren helburua eta testuingurua.
 - 1.2. Atzerriko immigrazioaren egoera EAEn.
 - 1.3. Eskola-eskaintzaren eta -matrikularen ezaugarriak EAEko hezkuntza-sisteman.
2. Atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzea EAEko eskola-sisteman.
 - 2.1. Ikasleen banaketari buruzko analisia jatorri geografikoaren arabera.
 - 2.2. Atzerritar jatorriko ikasleen eskaerei buruzko analisia 2 urteko haurren matrikulazio-kanpainan.
 - 2.3. Eskolatzeko Batzordeek eskolatutako ikasle iritsi berrien eskolatzeari buruzko analisia.
 - 2.4. Atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzeari buruzko analisia tokiko testuinguruaren arabera.
3. EAEko eskola-sisteman aniztasun soziokultural handiena duten ikastetxeen ezaugarriak.
 - 3.1. Arabako ikastetxeei buruzko analisiaren ondorioak.
 - 3.2. Gipuzkoako ikastetxeei buruzko analisiaren ondorioak.
 - 3.3. Bizkaiko ikastetxeei buruzko analisiaren ondorioak.
4. Eskolatze bereizitua ikasleen jatorriaren arabera EAEko eskola-sisteman.
 - 4.1. EAEko eskola-sisteman eskolatze bereizitua azaltzen duten faktoreak.
 - 4.2. EAEko zenbait ikastetxetan atzerriko ikasleen kontzentrazioa azaltzen duten faktoreak.
5. Erronkak eta esku hartzeko proposamenak.
 - 5.1. Erronkak
 - 5.2. Jardun-esparrua eta esku hartzeko proposamenak
6. Eranskina.
 - 6.1. Esku-hartzeko neurri berrien laburpen taula.



1. Azterlanaren aurkezpena

1.1. Azterlanaren helburua eta testuingurua

Gure lurraldean atzerriko immigrazioa gero eta handiagoa da, eta euskal hezkuntza-sisteman islatzen da hori. Komunitateak, eskolek eta Administrazioak atzeritar jatorriko ikasleen eskolatze inklusiboa errazteko erronkari heldu behar diote, eta aldi berean ikasle guztien hezkuntza-aukerak sustatu, hauen jatorria edo maila edozein dela ere

Errealitate horretara hurbilketa sakonago eta zehatzago bat egiteak ahalbidetuko digu premiak hobeto identifikatu eta dimentsionatzea, ondoren atzeritar jatorria duten ikasleen eskola arrakastarako hezkuntza-aukerak bermatuko dituzten politika eta esku hartzeak definitzeko eta doitzeko, une oro eskola-sistemaren kohesioa zainduz.

Helburu honekin erantzuna ematen zaie Hezkuntza Sailak legealdi honetako Gobernu Programan harturiko konpromisoei, eta *Hezkuntza Saila Hobetzeko Planaren* bigarren ildo estrategikoan sakontzen da, hain zuzen ere, *Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arretari* dagokion ildo estrategikoan (2. ildo *Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planean (2016-2020)* kokatzen da. Plan horren helburua da gure sisteman sartzen diren atzerriko ikasleen beharrei erantzuna ematea.

Konpromiso eta plan hauek, bestalde, erabat lerrokaturik daude Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendarekin. Era honetan, aurrera egiten jarraitu nahi da Garapen Iraunkorrerako Helburuei (GIH) eta 2030 Agendak ezartzen dituen helburuei Euskadik egiten dizkien ekarpenetan, batez ere laugarren helburuari dagokionean, hau da, hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta bizialdi osoan zeharreko hezkuntza-aukerak sustatzea pertsona guztientzat.

Era berean, analisi honek sakondu egiten du 2013an eta 2014an Sailak egindako azterlan eta gogoetetan; eta horien ondorioz sortu zen *HAMAIIKA ESKU* programa. Ekimen instituzional horren helburua da egoera sozioekonomiko eta kultural ahulean dauden ikasleen emaitzak hobetzea. Horiek gure erkidegoko ikastetxeetan egindako kanpoko ebaluazioetan lortutako emaitzen hasierako mailan daude.

Azterlana hobeto kokatzeko, lehenengo atalean, EAEko atzerriko immigrazioaren egoera labor-labor azaltzen da. Ondoren, eskaintzaren eta eskola-matrikularen banaketaren laborpena eta hiru lurralde-esparruetako eskolatze-dinamikaren hurbilketa laborra erakusten dira.

Bigarren atalean, atzerriko ikasleen eskolaratzeari buruzko analisia jorratzen da zenbait hurbilketa abiapuntu hartuta. Hirugarren atalean, aniztasun soziokultural handiena duten ikastetxeen lagun bat ezaugarritzen da. Laugarrenean, immigrazioaren fenomenoak gure




sisteman bereizitako eskolatzere-ereduetan duen eraginari buruzko hurbilketa egiten da. Azkenik, 5. atalean, analisisian identifikatutako erronken laburpena aurkezten da, eta baita erronka horiei hobeto erantzuteko Hezkuntza Sailaren jardura eremua indartzen duten zenbait proposamen ere.

1.2. Atzerriko immigrazioaren egoera EAEn

Immigranteen etorrerak azken urteotako goranzko joerari eusten dio, krisiaren moteltze-aldiaren ondoren. 2017an, atzerriko biztanleen azken zortzi urteotako hazkunde handiena izan zen. Guztira, 9.586 immigrante gehiago iritsi ziren Euskal Autonomia Erkidegora, eta atzerriko biztanleria 206.175 lagun izateraino hazi ziren¹ (guztizkoaren % 9,4), Espainiako batez bestekoaren (% 13,6) eta Europakoaren (% 11,3) azpitik, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiaren azken txostenaren arabera.

EAEk 1998-2018 artean izandako biztanle atzerritarren kopuruaren bilakaera erakusten da grafikoan. Aldi horretan, 180.000 atzerritar ezarri dira gure lurraldean.



Iturria: Ikuspegi, INEren datuekin.

1998an, Euskal Autonomia Erkidegoan, atzerriko biztanleak biztanleriaren % 1,3 ziren. Hamarkada bat geroago % 6,6 ziren, eta gaur egun % 9,4. 20 urte eskasetan, EAEn bizi diren ehun lagunetik bat atzerritarra izatetik orain hamarretik bat izatera igaro gara.


Biztanleria atzerritarren ordezkaritza handitzearen arrazoia da, baita ere, azken hogei urteetan bertako biztanleria iraunkorra galdu izatea. Hala, 79.812 biztanleren saldo negatiboa atera da.

EUSTATen datuen arabera, EAEn 2016. urtean izandako jaiotzen % 21,4 atzerriko amengandik sortutakoei dagozkie; hau da, 2001ekoa baino askoz ere ehuneko handiagoa da,

¹Ikuspegi. Immigrazioaren egoera. 2018ko maiatza.



% 3,5 baitzen orduan. Araban, jaiotako guztien % 28,8 izan ziren, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeetan, berriz, % 19,5 eta % 20,5, hurrenez hurren. Hurrengo grafikoan jaiotzen bilakaera ikus daiteke, amaren nazionalitatearen arabera, 2001-2016 artean.




Iturria: EUSTAT. 2018ko egoera demografikoa.

Atzerriko biztanleria ez da berdin banatzen EAEko hiru lurralde historikoetan. Datuen arabera, 2018an atzerritarren ia erdiak Bizkaian bizi dira, % 33,0 Gipuzkoan, eta % 18,1 Araban. Azken lurralde horretan, biztanleriaren % 11,3 da, Bizkaian % 8,8 eta Gipuzkoan % 9,5.

	Guztizko biztanleria		Atzerriko biztanleria		Atzerriko biztanleriaren %
	K	%	K	%	
Araba	328.741	15,0	37.276	18,1	11,3
Bizkaia	1.149.569	52,3	100.611	48,8	8,8
Gipuzkoa	720.347	32,8	68.288	33,1	9,5
EAE	2.198.657	100,0	206.175	100,0	9,4

Iturria: Ikuspegi, INEren datuekin (2018).


Gaur egun, EAEn bizi diren atzerritarren ia erdiak Latinoamerikakoak dira (% 47,8). Ondoren datoz Europar Batasunean jaiotakoak (% 18,6) eta Magrebetik datozenak (% 14). Mapa horrek aldeak ditu lurraldearen arabera. Gipuzkoan, jatorri latinoamerikarra eta europarra duen biztanleriaren ehuneko handiagoa dago. Arabaren kasuan, alderatuta, Magrebeko biztanleria handiagoa da (% 22,5), eta Bizkaian, berriz, Latinoamerikako biztanleria handiena dago. Azken urtean, gehien igo diren jatorriak latinoamerikarrak dira (Nikaragua, Kolonia, Honduras, Venezuela, Paraguai, Peru, Brasil eta Bolivia), bi afrikar (Maroko eta Senegal), salbuetsita.



Iturria: Ikuspegi, INEren datuekin (2018).

Atzerriko haur eta gazteei buruz Ikuspegik² berriki egindako azterlan batek ezartzen duenez, EAEn 0 eta 24 urte bitarteko 76.914 biztanle (% 15,9) daude gurasoetako bat behintzat atzerriko nazionalitatekoa eta/edo jatorrikoa. Haur eta gazte horietako gehienak (% 60,6) bigarren belaunaldikoak dira. Hau da, Espainiako estatuan jaiotako seme-alabak dira edo lau urterekin edo gutxiagorekin iritsi dira. Bigarrenik, 1.5 belaunaldia dago. 13.605 lagunek (% 17,7) osatzen dute eta 5 eta 11 urte artekoetan birsailkatu dira. Hirugarrenik, 1.25 belaunaldia identifikatzen da. 6.697 gaztek (% 8,7) osatzen dute eta 12 eta 15 artekoetan birsailkatu dira. Eta, azkenik, lehen belaunaldian (1.0G) sartu dira 16 eta 24 urte bitarteko 10.004 gazte (% 13). Horiek 16 eta 24 urte artekoetan birsailkatu dira edo migrazio-prozesua modu autonomoan hasi dute. Gazteak dira gehienbat, beren gurasoen ikasketa-maila bertakoena baino txikiagoa dutenak, eta okupazio-tasa txikiagoa, % 65,9koa, bertako biztanleen % 86,6koaren aldean.

Atzerriko haur- eta gazte-biztanleriaren nazionalitatea EAEn



Txostena: Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak. Ikuspegi.



Pertsona horien nazionalitateari dagokionez, aipatzekoak dira datu hauek: kategoria ugariena atzerrian jaiotako pertsonena da eta atzerritarrak dira (% 43,7); beste % 38,6 berriz, Estatuan jaiotako gazteak dira eta Espainiako nazionalitatea dute; % 13,6 Estatuan jaiotakoak dira, baina atzerriko nazionalitatea dute; eta, azkenik, % 4,1ek Espainiako nazionalitatea dute eta atzerrian jaiotakoak dira.

EAEko hiru lurralde historikoetan 76.914 gazte horiek nola banatzen diren kontuan hartuz gero, kopuru handiena Bizkaian dagoela ikusiko dugu: 37.748 (% 49,1) gaztek gurasoetako bat, gutxienez, atzerritarra dute. Bigarren Gipuzkoa dago, 22.978ekin (% 29,9) eta, azkenik, Araba, 16.188 gazterekin (% 21).

Atzerriko gazteen immigrazioari lotutako fenomeno berrienetako bat da bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren etorrera areagotu izatea. Barne Ministerioak familia gabeko 10.162 ume eta nerabe ditu erregistratuta (abuztuak 2018) eta horietatik ia erdia Andaluzian daude; gainerakoak gainontzeko 16 erkidegoetan eta bi hiri autonomoetan daude banatuta, baina banaketa oso desberdina da. Zifrak honako hauek dira, gutxi gorabehera: 1.109 Katalunian erregistratuta eta 943 Euskadin, edo 7 Extremaduran eta 1 Errioxan. Horrek esan nahi du EAE kopuru gehien duen laugarren erkidegoa dela, eta Espainian erregistratuta dauden bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren % 10 inguru duela, Andaluziaren, Melillaren eta Kataluniaren ondoren. Profila aldatu egin da azken urteotan, baina, oraindik ere, gehienak Marokotik datoz. Ondoren, Aljeria eta Ginea datoz.

Bestalde, interesgarria da biztanleriak atzerriko immigrazioaren fenomenoari buruz duten pertzepzioa ezagutzea. Ikuspegik egindako azken barometroaren arabera³, inkestatutako pertsonen uste dute biztanleria immigratu ez nazionalizatua EAEn erroldatuta dauden atzerritarren benetako ehunekoa baino bi aldiz handiagoa dela, eta euskal gizarteak immigrazioarengandik hautematen dituen ondorioak batez ere esparru sozioekonomikoan biltzen direla.

Hala, elkarrizketatutako gehienek uste dute Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritarrek aukera ematen dutela ekonomia hobeto funtzionatzeko (% 45,9), eta uste dute, baita ere, haien ekarpena beharrezkoa dela sektore batzuetan (% 41,4). Jarrera negatiboek, bestalde, behera egiteko joera dute: % 32,7k diote immigranteek langabezia areagotzen dutela, eta % 26,2k soldatak jaitziazten dituztela. Era berean, elkarrizketatutako pertsonen % 12,6k immigrazioa gizarte-arazotzat kalifikatzen dute. 2017an, immigranteek segurtasunik eza eta delinkuentzia sortzen dituztela pentsatzen dutenen ehunekoa ere jaitsi egin da, baina zifra handia da (iazko % 41,0tik, azken inkestako % 35,0ra). Azkenik, etorkinen jatorriaren aurreko jarrerari buruz, esan beharra dago sinpatia txikiena pakistandar, errumaniar eta magrebtar jatorriko pertsonetikoa dela.

2017ko barometroa. Pertzepzioak eta jarrerak atzerriko biztanleengan. Ikuspegi.



1.2.1. Arabako biztanleria immigrantea hazi da gehien, eta haren hiriburuan biltzen da

Arabian 37.276 atzerritar bizi dira, bertako 328.741 biztanleen % 11,3, INEren 2018ko datuen arabera, eta ia % 85 hiriburuan.

Gasteizek biztanleriaren hazkunde eutsia du, saldo begetatibo eta migratzaile positiboen ondorioz. Biztanleriaren hazkundera migrazio-mugimenduari zor zaio batik bat, hazkunde osoaren % 79ko ekarpena egiten baitu.

Eskualde-mailan, 2017ko datu bananduek erakusten dute atzerriko biztanleen % 87,4 (31.090 biztanle) Arabako Lautadan bizi direla, eta bertako biztanleriaren % 11,8 direla. Gainerakoa Arabako, funtsean, Kantauri Arabarrean eta Errioxa Arabarrean banatzen da. Azken horrek immigrazio-tasa altua du (% 11,0), baina Araban bizi diren atzerritarren biztanleria osoaren % 3,5 baino ez da.

	Guztira	Atzerriko biztanleria	Atzerriko biztanleriaren %	Atzerritarren % / Araba
Arabako Ibarrek	5.599	467	8,3	% 1,3
Arabako Lautada	263.728	31.090	11,8	% 87,4
Arabako Mendialdea	2.939	180	6,1	% 0,5
Errioxa Arabarra	11.223	1.234	11,0	% 3,5
Gorbeia Inguruak	8.708	545	6,3	% 1,5
Kantauri Arabarra	34.377	2.064	6,0	% 5,8
Araba guztira	326.574	35.580	10,9	% 100,0

Iturria: Ikuspegi 2017

Eskualde bakoitzaren barruan, Gasteiz nabarmentzen da atzerritarren ehunekorik handiena duen udalerritzat (Arabian bizi diren guztien % 83,3), eta horiek biztanleriaren % 12 dira. Oso urruti, Agurain da 1.000 biztanle atzerritar baino gehiago dituen udalerririk bakarra eta bertako biztanleriaren % 5,7 hartzen du. Oion eta Agurain, Errioxa Arabarreko udalerriekin batera, immigrazio-tasa handienak dituzte beren biztanleriarekiko, nahiz eta, batera, atzerriko 5.000 biztanle baino gehiago ez izan.

Hurrengo irudian, atzerriko biztanle-ordezkaritza handiena duten Arabako udalerririk agertzen dira.



1.2.2. Bizkaiak du EAEko biztanleria immigranterik handiena eta, batez ere, Bilbo Handian dago finkatuta

Bizkaietan, EAEko biztanle atzerritarren ia erdiak (100.611 biztanle) bizi dira. Biztanleriaren % 8,8 hartzen du eta, batez ere, Bilbo Handian dago finkatuta, bertako biztanleriaren banaketaren joera berari jarraituz (biztanleriaren % 75, ia 885.000 biztanle, Bilbo Handian bizi da), INEren 2018ko datuen arabera.

Bizkaietan, jaiotza-tasaren jaitsiera orekatzen laguntzen ari da immigrazioa (jaiotza-tasa minimo historikoetan dago). Jaiotzen beherakada fenomeno orokorra izan da iparraldeko herrialdeetan, baina Bizkaietan bereziki bat-batean bizi izan zen. 1977 eta 1987 artean, jaiotzak erdira jaitsi ziren (21.878tik 10.981era). Urte hartatik aurrera, gainera, zifrak hamar mila baino gutxiagokoak izaten hasi ziren. Maila hori 2006 eta 2012 artean gainditu zen berriro, etorkinen etorrera masiboa nabaritu zen urteetan, eta orain, berriz ere, beheranzko beste ziklo bat erakusten du. 2016ko jaiotza-tasa mila biztanleko zortzi haurrena izan zen; gipuzkoarrak baino lau hamarren gutxiago, eta arabarrak baino puntu eta erdi gutxiago.


Eskualde-mailan, atzerritarren % 76 Bilbo Handian bizi dira; % 8,2 Durangaldean; eta gainerako bost eskualdeetan, berriz, % 5,0 baino gutxiago. Markina-Ondarroa eskualdean bakarrik dira biztanleriaren % 9,0 baino gehiago, 2017ko datu bananduekin egindako hurrengo taulan ikus daitekeenez.



	Biztanleria guztira	Atzerriko biztanleria	Atzerriko biztanleriaren %	Atzerriko biztanleriaren % / Bizkaia
Arratia-Nerbioi	23.911	1.577	6,6	% 1,7
Bilbo Handia	863.763	73.338	8,5	% 76,8
Durangaldea	98.668	7.876	8	% 8,2
Enkartzazioak	32.164	2.240	7	% 2,3
Gernika-Bermeo	46.101	3.908	8,5	% 4,1
Markina-Ondarroa	26.028	2.428	9,3	% 2,5
Plentzia-Mungia	57.667	4.181	7,3	% 4,4
Bizkaia guztira	1.148.302	95.548	8,5	% 100,0

Iturria: Ikuspegi 2017

Eskualde bakoitzaren barruan, gehienbat barnealdeko hirigune batzuek (irudian adierazitakoek) atzerriko biztanleriaren proportzio handiagoa hartzen dute.



Hurrengo taulan erakusten dira Bizkaiko biztanleria atzeritar handiena 16 udalerririk. Guztien artean 79.412 biztanle atzeritar dituzte, hau da, Bizkaiko 2017ko biztanleriaren % 83,0⁴. Hiriburuan, Bilbon, horien ia % 40,0 (37.289) bizi dira, eta biztanleria osoaren % 10,8 dira.

Proportzioan, atzerriko biztanleria % 9tik gorakoa da sei udalerrri hauetan soilik: Amorebieta, Bilbo, Durango, Getxo, Gernika-Lumo eta Mungia.

Datuak: Ikuspegi, 2017.



	Biztanleria guztira	Atzerriko biztanleria	Atzerriko biztanleriaren %	Atzerriko biztanleriaren % / Bizkaia
Amorebieta-Etxano	18.955	1.712	9,0	% 1,8
Barakaldo	100.313	8.431	8,4	% 8,9
Basauri	40.877	2.704	6,6	% 2,89
Bermeo	16.777	1.322	7,9	% 1,4
Bilbo	345.110	37.289	10,8	% 39,0
Durango	29.328	2.715	9,3	% 2,9
Ermua	15.951	1.130	7,1	% 1,2
Galdakao	29.334	1.379	4,7	% 1,4
Getxo	78.406	7.195	9,2	% 7,5
Gernika-Lumo	16.915	1.921	11,4	% 2,0
Leioa	31.197	2.435	7,8	% 2,6
Mungia	17.384	1.796	10,3	% 1,9
Portugalete	46.120	2.510	5,4	% 2,6
Santurtzi	45.765	2.493	5,4	% 2,6
Sestao	27.744	2.272	8,2	% 2,4
Erandio	24.056	2.108	8,8	% 2,2

Iturria: Ikuspegi (2017)

1.2.3. Gipuzkoan bizi den atzerriko biztanleria modu orekatuagoan banatuta dago bere eskualdeen artean

Gipuzkoan, aurten, biztanleria % 0,16 hazi da aurreko urtearen aldean. Atzerritarrek etortzearen ondorio izan da hori. Jaiotza-tasak % 5,4 egin du behera 2016an 2015arekiko, eta 6.000 jaiotza izan dira; hau da, zifrarik baxuena 2000 ezker. Amen nazionalitateari erreparatuz gero, % 21,4k atzerriko nazionalitatea dute (2015ean, % 19,8 ziren).

Gipuzkoako biztanleria ez dago zentralizatuta, lurraldearen jardura ekonomikoarekin eta hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzuen eskaintzarekin gertatzen den bezala, barnealdeko udalerrri askotan eskuragarri baitago.

Gipuzkoak 720.347 biztanle ditu⁵, eta bertako biztanleriaren % 9,5 atzerritarra da. Beste lurralde historikoetan ez bezala, biztanleria hori modu orekatuagoan banatzen da: % 30,0 baino gutxiago hiriburuan, Donostian, bizi da; Gasteizen bizi diren Arabako atzerritarren % 80,0 baino gehiagoren eta Bilbon bizi diren Bizkaikoen % 40,0ren aldean.

Hurrengo taulan eskualdeka ageri den atzerriko biztanleriaren banaketak erakusten du erdia Donostia eskualdean bizi dela, eta % 15 Bidasoa Beherean. Tolosaldea da, berriz, proportzio txikiena duen eskualdea, % 6. Lau eskualdetan, atzerritarrek bertako biztanleen % 9k baino gehiago dira.

2018an INEk argitaratua.



berriz, eskola-eskaintza banatuagoa dago: eskaintzaren % 75 lurraldea osatzen duten udalerrietan dago, eta % 25 hiriburuan.

Bestalde, eskola-matrikula baldintzatu egiten dute, alde batetik, eskaintzaren estaldurak eta aniztasunak; bestetik, familiek ikastetxea hautatzeko eredueta eragiten duten elementuek; eta, azkenik, Hezkuntza Sailak ezarritako sarbide-irizpideek.

1.3.1. Araban, ikaspostuen % 70 baino gehiago Gasteizen daude. D ereduak da hedatuena sare publikoan, eta B ereduak itunpeko sarean

Arabako eskola-sistema 109 ikastetxeek osatzen dute. 76 sare publikoak dira eta 33 itunpeko sarekoak. Guztira, 39.598 ikaspostu publiko eta 13.529 itunpeko ikaspostu eskaintzen dituzte Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapetarako (2017/18 ikasturteko eskaintzari buruzko datuak).

2-16 urteko tartea eskaintzen duten 109 ikastetxeetatik, 61 (ia % 60) Gasteizen daude. Horietatik, 41 ikastetxe publikoak dira, eta 20 itunpekoak⁶. Gasteizen dauden ikastetxeek Arabako ikaspostu guztien % 73 eskaintzen dituzte, lurraldearen gainerakoan dauden udalerrietako ikastetxeek biztanle gutxi dituztelako eta gehienek lerro bat edo bi dituztelako. Itunpeko sareko ikastetxeen % 69 Gasteizen daude, eta sare horretako ikaspostuen % 78,6 eskaintzen dituzte. Bestalde, Gasteizen, lurraldeko ikastetxe publikoen % 57,5 daude, eta horien eskaintzak Arabako sare publikoko ikaspostu guztien % 77,5 hartzen ditu.

Jarraian, sareen eta ereduaren arabera eskaintzako ikaspostuen banaketa laburbiltzen da (2017-2018).

	ikas-etxe kop.	ikas-etxe en %	A eredu-a	A ereduaren %	B eredu-a	B ereduaren %	D eredu-a	D ereduaren %	GUZTIR A	GUZTIZKOAR EN %
PUBLIKOA GUZTIRA	76	% 69,7	1858	% 5,1	5340	% 17,0	24145	% 77,0	31.343	% 59,2
ITUNPEKOA GUZTIRA	33	% 30,3	2363	% 10,9	13090	% 60,6	6131	% 28,0	21.584	% 40,8
GUZTIRA	109	% 100,0	4221	% 78,0	18430	% 34,8	30276	% 57,2	52.927	% 100,0

Iturria: Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza. 2017-2018 aldiko matrikula-datuak

Taulan laburbildutako datuek islatzen dutenez, ikastetxe gehienak (% 70) publikoak dira, eta sare horretako ikaspostuen eskaintza, berriz, 2-16 urteko mailetan eskaintzako ikaspostu guztien % 59,2 da.

Gorbeialde HBI ikastetxea baztertu eta Ikasbidea IPI sartu da. Berori, Arrazua-Ubarrundiko udalerrian badago ere, Gasteizko ikasleentzat dago zonifikatuta.



Hizkuntza-ereduen araberako eskaintzaren banaketari buruzko analisiak adierazten du sareen artean funtsezko aldea dagoela: sare publikoak ikaspostuen % 77 D ereduaren eskaintzen ditu, eta itunpeko sareak dituen ikaspostu gehienak, % 60,6, B ereduaren.

- Sare publikoan, A ereduko ikaspostuen eskaintza Gasteizko bost ikastetxetan biltzen da (Haur eta Lehen Hezkuntzako hiru, eta Bigarren Hezkuntzako bi). Gainera, etapa amaitzearekin batera galtzen doazen A ereduko hondar-lerro batzuk geratzen dira. Sare publikoko B ereduko ikaspostuak ikasturte bakoitzean behera egiten ari dira, ikastetxe askotan sarrera-eredua D eredu baina ez baita. Hurrengo ikasturteetan, sei ikastetxek besterik ez dute eskainiko B eredu.
- Itunpeko sarean, A eredu bi ikastetxetan eskaintzen den eredu bakarra da, biak hiriburuan. Gainerako ikastetxeetan arian-arian desagertuko dira etapa bakoitza amaitzearekin batera. B ereduko eskaintza nagusitzen da, eta orain arte ez da inolako aurrerapausorik eman D eredurako igarobidean. D eredu, oraindik ere, ikastoletan eta DBHko zenbait lerrotan dago, Egibiden, soilik eskaintzen da.

Taulan laburbildutako informazioak aditzera ematen du Araba osoan sare publikoak 26.384 ikasle (% 57,2) eskolatzen dituela, eta itunpeko sareak 19.781 (% 42,8). Sare horren barruan, erdiak baino gehiago, % 59,5, Kristau Eskolako 19 ikastetxeetan matrikulatuta daude, eta % 24,3 Euskal Ikastola Batzaren ikastoletan (ikasle bat) eta Partaideren ikastoletan (zortzi ikasle).

Laburpen-taula (HH-LH-DBH) Arabako sareen eta ereduaren arabera (2017-2018).

	ikasle kop.	%	A eredu a	A ereduaren %	B eredu a	B ereduaren %	D eredu a	D ereduaren %	GUZTIR A	GUZTIZKOAREN %
PUBLIKOA GUZTIRA	76	% 69,7	1.509	% 41,00	3.963	% 23,80	20.912	% 81,00	26.384	% 57,10
IZEA	1	% 0,9	572	% 15,5	0	% 0,0	0	% 0,0	572	% 1,2
EIB	1	% 0,9	0	% 0,00	0	% 0,0	1.411	% 5,5	1.411	% 3,1
IKF	2	% 1,8	183	% 5,0	2.116	% 12,7	0	% 0,0	2.299	% 5,0
PARTAIDE	8	% 7,3	0	% 0,0	0	% 0,0	3.393	% 13,1	3.393	% 7,3
KRISTAU ESKOLA	19	% 17,4	1.419	% 38,5	10.227	% 61,4	118	% 0,5	11.764	% 25,5
ATXIKIPEN IK GABE	2	% 1,83	0	% 0,0	342	% 2,1	0	% 0,0	342	% 0,7
ITUNPEKO A GUZTIRA	33	% 30,3	2.174	% 59,0	12.685	% 76,2	4.922	% 19,1	19.781	% 42,9
GUZTIRA	109		3.683		16.648		25.834		46.165	

Iturria: Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza. 2017-2018 aldiko matrikula-datuak

Hizkuntza-eredu bakoitzeko matrikularen banaketari dagokionez, sare publikoan, ikasle % 79,3 D ereduaren matrikulatzen dira; % 15,0 B ereduaren; eta % 5,7 A ereduaren. Itunpeko sarean, berriz, lau ikasle bat (% 24,9) besterik ez da D ereduaren matrikulatzen. Gehienak, % 64,1, B



ereduan eskolatuta daude, eta % 11,0 A ereduan. A eredu desagertzen ari da itunpeko saretik, bi ikastetxetan izan ezik; B eredu derrigorrezko etapa guztietan eskaintzeko.

Bestalde, nabarmendu behar da Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatutako ikasle guztien % 73k hiriburuko ikastetxeetan ikasten dutela. Horiek sareetan duten banaketa aldatu egiten da analizatutako etaparen arabera: sare publikoak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ikasle gehiago eskolatzen dira, % 57,1 eta % 59,5, hurrenez hurren; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, berriz, % 43,3. Etapa guztietan, sare publikoak 2-16 urte bitarteko ikasleen % 55,23 eskolatzen ditu.

Arabako probintziaren idiosinkrasia dela eta, 20 udalerritan, sare-irizpidearen arabera, eskola-eskaintza bakarra dago (18 udalerririk eskaintza publikoa dute soilik, eta bik itunpeko eskaintza). Bost udalerririk baino ez dituzte, Gasteiz hiriburuaz gain, titulartasun publikoko eta itunpeko ikastetxeak.

1.3.2 Bizkaian, hezkuntza-eredu anitza duten ikastetxeen eskaintza zabala dago.

Bizkaiak 349 ikastetxeko sarea du, % 25 hiriburuan daude eta gainerakoak lurraldearen arabera banatzen dira, eta ikaspostuen eskaintza hau dute:

	ikastetxe kop.	%	A eredu a	A ereduaren %	B eredu a	B ereduaren %	D eredu a	D ereduaren %	GUZTIR A	GUZTIZKOAREN %
PUBLIKOA GUZTIRA	235	% 67,3	2.765	% 1,7	4.335	% 2,6	80.342	48,1	87.442	52,3
ITUNPEKOA GUZTIRA	114	% 32,7	6.782	% 4,1	35.327	% 21,1	37.591	22,5	79.700	% 47,7
GUZTIRA	349	% 100,0	9.547	% 5,7	39.662	% 23,7	117.933	% 70,6	167.142	% 100,0

Iturria: Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza. 2017-2018 aldiko matrikula-datuak

Hona hemen Bizkaiko eskola-sistemaren eskaintzaren ezaugarriak, laburtuta:

- 349 ikastetxe horietatik 235 (% 67,3) titulartasun publikokoak dira, eta Bizkaiko 112 udalerrietako 80tan daude; bertan, biztanleriaren % 98 baino gehiago biltzen dira, eta eskaintako ikaspostu guztien % 52,3 daude. Ikastetxe publiko horietatik 50 Bilboko zortzi barrutietan banatzen dira (bertan biltzen da Bizkaiko biztanleriaren % 30), eta 185 lurraldearen gainerakoan (haietatik 21 Eskola Txikiak dira).
- 114 itunpeko ikastetxeak guztizkoaren % 32,7 dira, eta 31 udalerritan daude. Horietan, biztanleriaren % 86 baino gehiago biltzen da. Horietatik 34 (% 70) Bilbon daude, eta gainerako 80ak (% 30) lurraldearen gainerakoan.
- 80 udalerritan biztanleriaren ia % 14 bizi da, eta horietan ez dago itunpeko eskaintzarik. Loion, ordea, itunpeko ikastetxeak baino ez daude.
- Bizkaiko eskola-sareak eskaintza publikoa eta itunpekoa dituen 30 udalerrietatik 12tan biztanleriaren % 10 baino gehixeago bizi da, eta, horietan, itunpeko eskaintza ikastetxe



bakarrera mugatzen da. Gainerako 18 udalerrietan, berriz, biztanleen % 75 baino gehiago bizi dira, eta itunpeko eskaintza handiagoa dago haietan.

Ondoren datorren taulan, matrikularen banaketaren (HH-LH-DBH), sareen eta ereduaren laburpena ageri da. Bizkaia (2017-2018):

	ikastetxe kop.	%	A eredu a	A ereduaren %	B eredu a	B ereduaren %	D eredu a	D ereduaren %	GUZTIR A	GUZTIZKOAREN %
PUBLIKOA GUZTIRA	235	% 67,3	1.946	% 1,4	3.239	% 2,3	65.315	% 45,4	70.500	% 49,0
IZEA	9	% 2,1	3.436	% 2,4	1.531	% 1,1	0	% 0,0	4.967	3,5%
EIB	9	% 2,9	0	% 0,0	0	% 0,0	7.012	% 4,9	7.012	% 4,9
IKF	7	% 1,7	500	% 0,4	4.228	% 2,9	847	% 0,6	5.575	% 3,9
PARTAIDE	19	% 4,8	0	% 0,0	0	% 0,0	13.782	% 9,6	13.782	% 9,6
ELIZBARRUTIKO IKASTETXEA	8	% 2,3	272	% 0,2	632	% 0,4	2.111	% 1,5	3.015	% 2,1
KRISTAU ESKOLA	56	% 19,9	1.665	% 1,2	26.196	% 18,2	10.025	% 7,0	37.886	% 26,3
ATXIKIPENIK GABE	6	% 1,5	227	% 0,2	235	% 0,2	681	% 0,5	1.143	% 0,8
ITUNPEKOA GUZTIRA	114	% 35,3	6.100	% 4,2	32.822	% 22,8	34.458	% 24,0	73.380	% 51,0
GUZTIRA	349	% 102,7	8.046	% 5,6	36.061	% 25,1	99.773	% 69,3	143.880	% 100,0

Iturria: Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritza. 2017-2018 aldiko matrikula-datuak

Eskolatutako ikasleen banaketari lehen begiratu bat emanda ikusten denez, sare publikoak ikaspostu gehiago eskaintzen ditu itunpekoak baino. Hala ere, itunpeko sareak ikasle kopuru zertxobait handiagoa eskolatzen du: % 51, sare publikoaren % 49rekin alderatuta.

Itunpeko sarearen barruan, Kristau Eskolaren parte diren 56 ikastetxek ikasleen proportzio handiagoa eskolatzen dute, matrikularen %26,33; Partaideko 19 ikastetxeen % 9,5eren eta EIBko 9 ikastetxeen %4,9ren aldean.

Analisi xehatuagoa eginez gero, sareen artean alderik handiena duten zenbait udalerririk identifika daitezke. Loiu ez ezik (hedapen deslokalizatu gisa, bertan itunpeko ikastetxeak baino ez baitaude), 17 udalerritan (itunpeko sarearen eskaintza duten 31 udalerrietatik), itunpeko ikastetxeek ikasle gehiago eskolatzen dituzte ikastetxe publikoek baino; eta, aldiz, ikastetxe publikoak eta itunpekoak dituzten 13 udalerritan, matrikula gehiago dago sare publikoan. Oro har, itunpeko sarearen alde dauden desberdintasun handienek zerikusia dute itunpeko eskaintzaren aniztasunarekin (itunpeko ikastetxe bat baino gehiago duten udalerririk), ikastetxeen tamaina handiagoarekin edo udalaz gaindiko edo aparteko izaera duten itunpeko ikastetxeak egotearekin.

Jaiotza-tasaren beherakadak, kasu batzuetan, eskola-mapan desoreka handiagoa eragin du. Aipatzekoa da 51 ikastetxe daudela (40 publiko eta itunpeko 11), eta, bertan, 2012-13 eta 2018-19 ikasturteen arteko matrikularen jaitsiera % 40koa da 2 urtekoen mailan.



Titulartasunaren arabera dagoen eskaintza aniztasun zabalaz gain, eskola-banaketak eragin handia jaso du hizkuntza-ereduen eskaintzaren ondorioz. Azken urteetan D ereduaren matrikulak gora egin badu ere etapa guztietan % 70,5era iritsi arte, eredu horren hedapena sare publikoan (% 92,6) handiagoa izan da itunpeko sarean baino (% 47,0).

Ondorioz, D ereduaren matrikularen ehuneko txikiagoa da B ereduko itunpeko ikastetxeen presentzia esanguratsua duten hiriguneetan. Hala, Bilbon, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan D ereduko eskolatzea % 58,9koa da, eta lurraldearen gainerakoan, berriz, % 74,7koa. Bestalde, eskola-eskaintza duten 81 udalerrietatik 62tan D ereduaren ikasten dute ikasle guztiak, eredu horrez gainera beste batzuk dituzten 19 udalerrikin alderatuta. 19 udalerririk horietatik, batean (Balmaseda) ez da B ereduaren ematen, eta bost (Amorebieta, Basauri, Erandio, Sopuerta, Urduña) ez da A ereduaren ematen.

Oro har, ikastetxe publikoek D ereduaren eskaintzen dituzte beren irakaskuntzak: sare publikoko ikasleek %92,6 D ereduaren eskolatzen dira, A ereduaren eskolatzen direnen % 2,7ren aldean. Itunpeko ikastetxeek, berriz, batez ere D ereduaren eta B ereduaren eskolatzen dituzte ikasleak, oso antzeko ehunekoan (% 44,0 D ereduaren, % 44,7 B ereduaren eta % 8,3 A ereduaren). Arau horren salbuespena zortzi ikastetxetan agertzen da (horietan, A ereduak desagertzeko joera du), baita eredu hori ikastetxeko hezkuntza-maila guztietan eskaintzen den hamaika ikastetxetan ere. Horietako batzuetan, egiazko eskaintza hirueleduna da, ingelesaren presentzia handia baitute.

1.3.3 Gipuzkoako eskola-sare zabala du, lurralde osoan banatua, eta bertan eredu orokorra D da

Gipuzkoako lurraldea ezaugarritzen duen zerbait bada, hezkuntza-eskaintzaren zabaltasuna, eta ikastetxeek euren ingurunean duten kokalekua eta hurbiltasuna dira. Gipuzkoako ikastetxeen % 77 probintziako udalerrietan daude eta lurraldeko ikaspostuen % 75 eskaintzen dituzte:

- 28 eskola txiki daude herri txikietan (250 eta 1.000 biztanle artekoetan).
- Sare publikoan eta itunpeko sarean ikaspostuak eskaintzen dituzten 5.000 eta 15.000 biztanle bitarteko 20 udalerririk baino gehiago daude. Horien artean, 10 udalerririk hiru eskaintza mota dituzte (publikoa, Kristau Eskola eta ikastolak).
- Biztanle gehien dituzten lau udalerririk hainbat eskolagune dituzte: Eibar, Errenteria, Irun eta hiriburua, Donostia.

Azken batean, hezkuntza-eskaintza deszentralizatua da, hurbilekoa eta biztanlegunearen ingurune sozio-ekonomikora egokitua. Jarraian, sarean eta ereduaren arabera eskaintako ikaspostuen banaketa laburbiltzen da. Gipuzkoa (2017-2018):



	ikastetxe kop.	%	A eredu a	A ereduaren %	B eredu a	B ereduaren %	D eredu a	D ereduaren %	GUZTIR A	GUZTIZKOAREN %
PUBLIKOA GUZTIRA	150	% 63,6	0	% 0,0	1.553	2,6%	59.126	% 97,4	60.679	% 51,6
ITUNPEKOA GUZTIRA	86	% 36,4	2.980	% 5,2	8757	15,0%	45.229	% 79,4	56.966	% 48,4
GUZTIRA	236	100,0	2.521	2,5	8.579	8,7	87.929	88,8	117.645	% 100,0

Iturria: Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza. 2017-2018 aldiko matrikula-datuak

Taulan laburbildutako datuak ikusita, aipatzekoa da sare publikoak ikastetxe asko dituela Gipuzkoako lurralde osoan. 76 udalerritan banatutako 124 ikastetxe publikoren sarea dago, eta 60.679 ikaspostu (guztizkoaren % 51,6) eskaintzen dituzten 26 ikastetxe daude. Bestalde, itunpeko sareak 86 ikastetxe ditu. Horietatik 26 hiriburuan daude eta 56.966 ikaspostu eskaintzen dituzte (% 48,4). Itunpeko sareko ikastetxeen proportzioari dagokionez, ikaspostuen eskaintza zabala, neurri handi batean, sare horrek Donostian duen presentzia handiaren ondorio da; izan ere, Donostiak ikasle gehiago dituelako eta, beraz, ikastetxe handiak direlako, 3-4 lerrokoak.

Donostian, sare publikoak ikaspostu-eskaintzaren % 36,6 du, eta itunpeko sareak % 63,5; nahiz eta, historikoki, itunpekoak pisu handiagoa izan duen. Itunpeko ikastetxeen % 30 Donostian daude, eta sare horretako ikaspostuen % 32,1 eskaintzen dituzte. Bestalde, Gipuzkoako udalerrri batzuetan —batik bat, Debagoienan, Goierriin eta Tolosaldean—, ikastolen itunpeko sareak gero eta pisu handiagoa du.

Gipuzkoako eskola-eskaintzaren beste elementu bereizgarri bat da D eredu a etapa guztietan orokortuta egotea lurraldeko bai ikastetxe publikoetan, bai itunpeko ikastetxeetan. D eredu a, hezkuntza-eskaintza gisa, oso errealitate goiztiarra izan zen Gipuzkoan beste bi lurraldeekin alderatuta. Hala ere, gaur egun, oraindik ere, ikastetxe batzuk B eredutik D eredurako igarobidean daude lurraldeko udalerrri handietan. Elementu horrek, zalantzarik gabe, eragina izan du eskolatze-dinamikan; izan ere, ikastetxe horiek EAetik kanpoko biztanleria-proportzio handiagoa erakarri baitute.

- Sare publikoko B ereduko ikaspostuak maila bakoitzean behera egiten ari dira. Izan ere, ikastetxe guztietan D eredu a da sartzeko eredu bakarra, eta B ereduko hondartaldeak soilik geratzen dira (eskaintzaren % 2). Datozen ikasturteetan, D eredu a % 100era orokortuko da sare publikoaren eskaintzan. Sare publikoan ez dago A ereduko eskaintzarik.
- Itunpeko sarean, A ereduaren eskaintza % 5 da, B eredukoa % 15 eta D eredukoa % 80, eta eskaintza horrek etengabe eta egonkor iraun du azken ikasturteetan.

Ondoren datorren taulan, sare eta ereduaren arteko matrikularen banaketa ageri da.



	ikastetxe kop.	%	A eredu a	A ereduare n %	B eredu a	B ereduare n %	D eredu a	D ereduare n %	GUZTIR A	GUZTIZKOAR EN %
PUBLIKOA GUZTIRA	150	% 63,6	0	% 0,0	1150	% 2,0	48.749	% 97,7	49.900	% 50,2
IZEA	4	% 4,6	1.35 1	% 100,0	-	% 0,0	-	% 0,0	1.351	% 1,4
EIB	1	% 1,2	-	% 0,0	456	% 69,4	196	% 30,1	652	% 0,7
IKF	2	% 2,3	1.17 2	% 100,0	-	% 0,0	-	% 0,0	1.172	% 1,2
PARTAIDE	34	% 39,5	-	% 0,0	649	% 2,8	22.959	% 97,3	23.608	% 23,8
KRISTAU ESKOLA	44	% 51,2	-	% 0,0	6.481	% 28,8	16.031	% 71,2	22.512	% 22,7
ITUNPEKOA GUZTIRA	86	% 36,4	2523	% 5,2	7586	% 15,4	39.186	% 79,5	49.521	% 49,8
GUZTIRA	236		2645	% 2,6	8755	% 8,8	88021	% 88,5	99.421	% 100,0

Iturria: Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza. 2017-2018 aldiko matrikula-datuak

Gipuzkoako eskola-sisteman eskola-matrikularen banaketari buruzko lehen behaketa batek erakusten du bi sareen artean oreka dagoela (% 50,2 sare publikoan eta % 49,8 itunpeko sarean).

Sare publikoak D ereduaren ikasleen % 97,7 eskolatzen ditu, eta gainerako % 2,3a B ereduaren.

Bestalde, itunpeko sarean, gehienbat Kristau Eskolaren eta Partaideren sarean eskolatzen da. Partaideren 34 ikastetxeek matrikula osoaren % 23,8 eskolatzen dute Gipuzkoan, eta Kristau Eskolaren 44 ikastetxeek antzeko ehunekoa, % 22,7. Ikastoletan, ikasleen % 97,3k D ereduaren matrikulatzen dira; Kristau Eskolan, berriz, matrikula banatuagoa dago D ereduaren (% 71,2) eta B ereduaren (% 28,8) artean. Bestetik, A ereduaren matrikula gutxiengoa da, eta IZEAREN eta IKFREN ikastetxeetan biltzen da.



2. Ikasleen eskolatzea jatorri geografikoaren arabera EAeko eskola-sisteman

Immigrazioaren fenomenoaren eta horrek eskola-esparruan duen eragina bi alderditatik analizatu beharko lirateke; bereizirik, alde batetik, ikasle etorri berriak edo berandu eskolatzen direnak (lehen belaunaldiko immigranteak edo atzerritarrak) eta, bestetik, hemen jaiotako ikasleak atzerriko aurrekoak dituztenak (2.0 belaunaldikoak) edo oso gaztetan eskolatzen direnak (1.5 belaunaldia izenekoak). Izan ere, hezkuntza-premiak desberdinak dituzte.


Jarraian, hiru hurbilketa egin dira atzerriko biztanleen eskolatzea analizatzeko EAeko eskola-sisteman. Alde batetik, ikasleen banaketa jatorriaren arabera analizatu da EAeko eskola-sistemako ikastetxeetan; bestetik, atzerriko familien eskolatzeko-lehentasunak analizatu dira eskola-sistemara 2 urteko adinean sartzeko egiten diren eskaeren arabera; eta, hortaz gainera, Eskolatzeko Batzordeek kudeatzen dituzten etorri berrien eskolatzea analizatzen da. Azkenik, eskolatzekoaren berriazko analisia ere egiten da, tokiko testuinguruaren arabera.

2.1. Atzerritar jatorriko ikasleen banaketari buruzko analisia EAeko eskola-sisteman


Jarraian egiten den analisia abiapuntu du Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei buruzko jatorrizko informazioa, 2017-2018 ikasturteko eskola-matrikulatik ateratakoa. Ikaslearen eta haren aitaren eta/edo amaren jatorriaren inguruan eskura dauden datuak oinarri hartuta, hiru kategoria nagusi ezarri dira: bertako ikasleak, aurrekoak atzerritarrak dituzten ikasleak eta atzerriko ikasleak⁷. Ehunekoetan, Lehen Hezkuntzan, ikasleen % 16,4 ez dira bertakoak; hau da, atzerritar jatorria dute edo aurrekoak atzerritarrak dituzte. Ehuneko hori zertxobait txikiagoa da Bigarren Hezkuntzan. Etapa horretan % 14,6 dira. Balioak berdintsuak badira ere, bi kategoriak bereizten baditugu (aurrekoak atzerritarrak dituzten ikasleak eta atzerriko jaiotako ikasleak), ikus dezakegu etapa bakoitzean banaketa desberdina dela. Lehen Hezkuntzan, aurrekoak atzerrikoak dituzten hemen jaiotako ikasleak % 12 inguru dira. Bigarren Hezkuntzan, berriz, alderantziz gertatzen da; hau da, atzerriko jaiotako ikasleak gehiago dira aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleak baino (% 9,3 eta % 5,3, hurrenez hurren).

Ikasle bat "atzerriko aurrekoak" dituela ulertzen da ikaslea Estatuan jaiotzen denean eta, gutxienez, gurasoetako bat atzerritarra denean; "atzerriko jaiotza" duela, atzerriko jaiotzen denean, gurasoak atzerritarrak izan ala ez; eta "atzerriko jatorria" atzerritar aurrekoak edo jaiotza duenean. Kategorizazio hori ikuspegirekin lankidetzan egin da, aniztasunaren ikuspegitik. Kontuan izan behar da "atzerriko jatorria" kategoriaren barruan askotariko profila duten ikasleak sartzen direla; batzuetan, hezkuntza-premiak direla eta, natibotzat jotzen direnen parean egon daitezke eta, beraz, hezkuntza-jarduera (edo neurri) bereizirik behar izan ez, ez ikuspegi inklusibotik, ez berdintzailetik.

Zenbaki absolutuetan, egoera aldatu egiten da. Izan ere, proportzioan, Lehen Hezkuntzako matrikulen kopurua handiagoa da 2017-2018 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako etapako matrikulena baino (129.364 eta 81.249 ikasle, hurrenez hurren).



Ikasleen banaketak, jatorriaren arabera, etapa baten eta bestearen arteko aldeak ere erakusten ditu bi eskola-sareak alderatuz gero. Lehen Hezkuntzan, atzerriko ikasleen ehunekoa handiagoa da (bikoitza baino gehiago) sare publikoan itunpeko sarean baino (% 22,8 eta % 9,6, hurrenez hurren); Bigarren Hezkuntzan, berriz, alde hori murriztu egin da: ikasleen % 18 atzerriar jatorria dute sare publikoan, eta % 11,6 itunpeko sarean.



Jarraian, ikasleen banaketari buruzko informazio zehatzagoa eskaintzen da, etapakako jatorri geografikoaren, lurraldearen, hezkuntza-mailaren, gizarte-mailaren, titulartasunaren edo ikastetxeen multzokatzearen arabera.

2.1.1 Ikasleen banaketa jatorri geografikoaren arabera eta hezkuntza-sareen arabera

2017-2018 ikasturtean eskolatutako guztira 129.364 ikasletik, 104.683 (% 80,9) bertakoak dira; 15.097 ikasle (% 11,7) Estatuan jaiok dira, baina aurrekoak atzeritarrak dituzte; eta


6.130 (% 4,7) atzerrian jaiok dira. Ez dago gainerako % 2,7aren jatorriari buruzko informaziorik, ezta gurasoenari buruzkorik ere.

Bestalde, Bigarren Hezkuntzako etapan, 2017-2018 ikasturtean eskolatutako guztira 81.249 ikasletik, 68.191 ikasle (% 83,9) bertakoak dira; 4.276 ikasle (% 5,3) Estatuan jaiok dira, baina aurrekoak atzerritarrak dituzte; eta 7.576k (% 9,3) atzerrian jaiotakoak. Ez dago gainerako % 1,5aren jatorriari buruzko informaziorik, ezta gurasoenari buruzkorik ere.


Banaketa horrek isla ezberdina du datuak sistemaren bi sareen arteko ikuspegi globaletik analizatzen badira. Hala, sareen arteko alde handiagoa dago Lehen Hezkuntzako etapan Bigarren Hezkuntzakoan baino.

- Lehen Hezkuntzan, itunpeko sarean, sare publikoan baino % 10 bat bertako ikasle gehiago daude (% 85,3, % 76,8rekin alderatuta). Sare publikoan, aurrekoak atzerritarrak dituzten ikasleak % 17 dira, eta itunpeko sarean, berriz, % 6 baino zertxobait gehiago. Atzerrian jaion diren ikasleei dagokienez, sareen arteko alde txikiagoa da: sare publikoan % 6 eta itunpeko sarean % 3,5 dira.

Lehen Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, sare bakoitzean (%)




Lehen Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, sare bakoitzean (K)




- Bestetik, Bigarren Hezkuntzan, sare publikoan, aurrekoak atzerritarrak dituzten ikasleak % 7,1 dira eta, itunpeko sarean, berriz, % 3,7. Atzerrian jaiotako ikasleei dagokienez, sare publikoan % 10,9 eta itunpekoan % 7,9 dira.

Bigarren Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, sare bakoitzean (%)




Bigarren Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, sare bakoitzean (K)




Ondoren datozen grafikoetan ikusten da ikasleen sare arteko banaketak portaera bereizia duela jatorri geografikoaren arabera: bertako ikasleak modu orekatuan banatzen dira bi sareen artean, baina ez, ordea, atzerriko ikasleak. Bigarren Hezkuntzan, eskolatzearen oreka Lehen Hezkuntzan baino handiagoa da.

- Lehen Hezkuntzan, aurrekoak atzerritarrak dituzten ikasleen kopurua ia hiru aldiz handiagoa da sare publikoan itunpekoan baino (11.257 eta 3.840, hurrenez hurren). Alde hori txikiagotu egiten da atzerrian jaiotako ikasleen artean (3.959, 2.171rekin alderatuta). Ehunekoetan, aurrekoak atzerritarrak dituzten Lehen Hezkuntzako ikasleen % 74,4 sare publikoan daude eskolatuta, eta % 25,6 itunpeko sarean. Eta, atzerrian jaiotako ikasleen kasuan, % 64,4 sare publikoan eskolatuta daude, eta % 35,5 itunpeko sarean.

Lehen Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, sareen artean (%)




Lehen Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, sareen artean (K)




- Bigarren Hezkuntzan, zenbaki absolutuetan, aurrekoak atzerritarrak dituzten ikasleen kopurua handiagoa sare publikoan itunpeko sarean baino (2.669 eta 1.607, hurrenez hurren); baina aldea ez da Lehen Hezkuntzako etapan bezain handia. Gainera, alde hori txikiagotu egiten da atzerrian jaiotako ikasleen artean (4.112, 3.464rekin alderatuta). Ehunekoetan, aurrekoak atzerritarrak dituzten Lehen Hezkuntzako ikasleen % 62,4 sare publikoan daude eskolatuta, eta % 37,6 itunpeko sarean. Eta, atzerrian jaiotako ikasleen kasuan, % 54,3 sare publikoan eskolatuta daude, eta % 45,7 itunpeko sarean.

Bigarren Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, sareen artean (%)




Bigarren Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, sareen artean (K)



Sare bakoitzaren barruan, ikastetxeen artean atzerriko ikasleen banaketak ere alde handiak ditu eskolatzen dituzten atzerriko ikasleen proportzioaren arabera.

Lehen Hezkuntzan, ondoren datorren grafikoan ikus daitekeenez, itunpeko sareko ikastetxeen % 86k eta sare publikoko % 58k % 20 atzerritar jatorriko (atzerritar aurrekoak dutenak eta atzerrian jaiotakoak kontuan hartuz) ikasletik behera eskolatzen dituzte; eta itunpeko sareko ikastetxeen % 3,3k eta sare publikoko % 7,6k, berriz, % 50 atzerritar jatorriko ikasletik gora eskolatzen dituzte.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeen sailkapena eskolatzen dituzten atzerritar jatorriko ikasleen %-aren arabera, sareka




- Sare publikoan, ikastetxeen % 18,7k (61 guztira) % 10 atzerritar jatorriko ikasle baino gutxiago dituzte; % 38,5ek (126 ikastetxe) % 10-20 artean; eta ikastetxeen % 20k % 20-30 artean. Ikastetxeen gainerako % 22ak (75 ikastetxe guztira) % 30 atzerritar jatorriko ikasle baino gehiago dituzte eta, horien artean, 25 ikastetxek (guztizkoaren % 7,6) % 50 baino gehiago dituzte.
- Itunpeko sareari dagokionez, Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienek (% 86) euren ikasleen artean % 20 atzerritar jatorriko ikasle baino gutxiago eskolatzen dituzte (ikasletxeen % 57,1ek % 10 atzerritar jatorriko ikasle baino gutxiago dituzte, eta % 29k % 10 eta % 20 artean). 15 ikastetxek (guztizkoaren % 7,2), berriz, proportzioan, % 30 atzerritar jatorriko ikasle baino gehiago eskolatzen dituzte, eta horietatik 7k % 50etik gora (horiek guztiak Kristau Eskolako kide dira).

Bigarren Hezkuntzan, berriz, atzerriko ikasleen proportzio txikia duten ikastetxeen ehunekoa handiagoa da, eta proportzio handia dutenena txikiagoa: itunpeko sarean ikastetxeen % 84k



eta sare publikoan % 70ek % 20tik behera eskolatzten dituzte; eta ikastetxeen proportzio antzekoagoan (% 4 eta % 3, hurrenez hurren), % 50etik gora eskolatzten dituzte. Ondoren datorren grafikoan, Bigarren Hezkuntzako etapari dagokion ikastetxeen sailkapen bat erakusten da, eskolatzten duten atzerritar jatorriko (atzerritar aurrekoak dutenak eta atzerrian jaiotakoak kontuan hartuz) ikasleen %-aren arabera:

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen sailkapena eskolatzten dituzten atzerritar jatorriko ikasleen %-aren arabera, sareka




- Sare publikoan, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen % 70,5ek atzerriko ikasleen % 20tik beherako proportzioa dute: ikastetxeen % 15,9k (21 guztira) % 10 atzerritar jatorriko ikasle baino gutxiago dituzte; % 54,5ek (72 ikastetxek) % 10-20 bitartean; eta % 16,7k % 20-30 artean. Ikastetxeen gainerako % 13ak (17 ikastetxe guztira) % 30 atzerritar jatorriko ikasle baino gehiago dituzte eta, horien artean, 4 ikastetxek (guztizkoaren % 3) % 50 baino gehiago dituzte.
- Itunpeko sareari dagokionez, Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienek (% 84,6) euren ikasleen artean % 20 atzerritar jatorriko ikasle baino gutxiago eskolatzten dituzte (ikastetxeen % 53,7k % 10 atzerritar jatorriko ikasle baino gutxiago dituzte, eta % 30,8k % 10-20 artean). 16 ikastetxek (guztizkoaren % 8), berriz, proportzioan, % 30 atzerritar jatorriko ikasle baino gehiago eskolatzten dituzte, eta horietatik 8k % 50etik gora (horiek guztiak Kristau Eskolako kide dira).

2.1.2 Ikasleen banaketa jatorri geografikoaren arabera eta hizkuntza-ereduen arabera

Hizkuntza-ereduaren arabera, Lehen Hezkuntzako etapako ikasleen banaketari buruzko analisiak erakusten duenez, aurrekoak atzerrikoak dituzten EAEn jaiotako ikasleek bertakoen antzeko eskolatzeko-patroia dute, eta gehienek D eredia ematen diote lehentasuna. Atzerrian jaiotako kasuan, lehentasun hori ez da hain handia.


- Lehen Hezkuntzan, bertakoen %73 eta aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleen %71 inguru D eredian eskolatzeko dira; % 22-24 B eredian eta % 4,2-4,7 A eredian (hurrenez hurren). Atzerrian jaiotako ikasleak, aldiz, D ereduarekiko hobespen txikiagoa du, baina oraindik ere aukera nagusia da: % 63,6 D eredian eskolatu daude, % 27 B eredian eta % 8,7 A eredian.
- Bigarren Hezkuntzan, aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasle gehienak D eredian eskolatu daude (% 60). Lehen Hezkuntzako etapan ez bezala, B eredian edo A eredian eskolatuak atzerriko ikasleen proportzio handiagoa dago (% 57). Horrela, aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleen % 60 eta atzerrian jaiotako % 43 inguru D eredian eskolatzeko dira; %2 6 eta % 31,4, hurrenez hurren, B eredian; eta aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleen % 13,4 eta atzerrian jaiotako % 25,3 A eredian.




Ikasleak hizkuntza-ereduen arabera banatzeak, sarearen arabera, bereizketa garrantzitsua islatzen du: sare publikoan D ereduko eskolatzeko nagusitzen da, eta itunpeko sarean, berriz, atzerriko ikasleak banatuagoak daude hiru ereduaren artean, grafikoetan ikus daitezkeenez.

- Sare publikoan, lehen hezkuntzako etapan, aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleen % 81,6 D eredian eskolatu daude. Atzerrian jaiotako kasuan, berriz, ehuneko pixka bat txikiagoa da, % 75,8. Bigarren Hezkuntzako etapan, alde nabarmena dago atzerrian jaiotako ikasleen kategoriako eskolatzeko: % 40tik gora B edo A eredian eskolatu daude.

Lehen Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, ereduak, sare publikoan (%)




Bigarren Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, ereduak, sare publikoan (%)




- Itunpeko sarean, B ereduak eskolatutako atzerri jatorriko ikasleen proportzioa handiagoa da, batez ere Bigarren Hezkuntzan. B ereduak eskolatzen dira aurrekoak atzerritarrek dituzten ikasleen % 52,6 eta atzerriak jaiotako % 47, Lehen Hezkuntzako etapan, eta bi kasuetan % 50 inguru, Bigarren Hezkuntzako etapan.

Lehen Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, ereduak, itunpeko sarean (%)



Bigarren Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, ereduak, itunpeko sarean (%)




2.1.3 Ikasleen banaketa lurraldeka eta jatorri geografikoaren arabera.

Lurraldeka bereizitako analisiak islatzen duenez, Araban, bi etapetan, aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleen edo atzerritar jatorriko ikasle proportzio handiagoa dago EAEko beste bi lurraldeetan baino. Lehen Hezkuntzan, bertakoak ez diren Arabako ikasleak ia % 25 dira; Gipuzkoan, berriz, % 15,1 dira; eta Bizkaian % 14,7. Bigarren Hezkuntzan, Araban % 20 dira (Lehen Hezkuntzako etapan baino bost puntu gutxiago), Gipuzkoan % 13,2 eta Bizkaian % 13,9 (Lehen Hezkuntzan baino 1 eta 2 puntu gutxiago).


Hiru lurraldeetan, aurrekoak atzerritarrek dituzten ikasleak atzerriak jaiotako ikasleak halako bi dira Lehen Hezkuntzako etapan, eta Bigarren Hezkuntzako etapan, berriz, egoera alderantzizkoa da.

- Lehen Hezkuntzan, Araban, gurasoren bat atzerritarra duten Estatuan jaiotakoak % 18,8 dira, eta atzerrian jaiotako ikasleak, berriz, % 6. Gipuzkoan % 10 eta % 5 dira, eta Bizkaian % 10,7 eta % 4, hurrenez hurren.

Lehen Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, lurraldeka (%)




Lehen Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, lurraldeka (K)




- Bigarren Hezkuntzaren kasuan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzaren aldean, aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleen proportzioa txikiagoa da atzerrian jaiotako ikasleena baino. Horren azalpena da atzerriko gurasoak dituzten hauren jaiotzak neurri handiagoan areagotu direla azken hamarkadan. Hortaz, Lehen Hezkuntzan baino eragin txikiagoa du fenomeno horrek Bigarren Hezkuntzako etapan Lehen Hezkuntzakoan baino. Hala, Araban, atzerriko gurasoren bat duten bertan jaiotakoak Lehen Hezkuntzan % 18,8 dira, eta bigarren Hezkuntzan % 7,7 daude. Atzerrian jaiotakoak, berriz, % 12,4 dira. Gipuzkoan, % 8,7 atzerrian jaiotakoa dira, eta % 4,4 aurrekoak atzerritarrak dutenak. Bizkaian, zifrak antzekoak dira, % 8,8 eta % 5,1, hurrenez hurren.

Bigarren Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, lurraldeka (%)



Bigarren Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, lurraldeka (K)




Bi eskola-sareen gizarte-osaerak desberdintasunak erakusten ditu sare publikoan eskolatutako atzerriko ikasleen proportzio handiagoagatik, batez ere Araban.




- Lehen Hezkuntzan, Araban, sare publikoan eskolatutako ikasleen % 35 inguru atzerriko jatorrikoak dira (horietatik % 26,6 aurrekoak atzerritarrak dituztenak dira); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 20 inguru dira (aurrekoak atzerritarrak dituzten % 15 dira). Bestalde, itunpeko sareari dagokionez, atzerri jatorriko ikasleen proportzioa antzekoa da hiru lurraldeetan (% 9,5 inguru).

Lehen Hezkuntzako ikasleen banaketa sare bakoitzean jatorriaren arabera, lurralde historikoka (%)



- Bigarren Hezkuntzan, bertakoak ez diren ikasleen ehuneko sare bakoitzean oso antzekoa da Bizkaian eta Gipuzkoan: % 17 inguru sare publikoan eta % 10-11 artean itunpeko sarean. Araban, sareen arteko aldeak handiagoak dira, baina, nolahi ere, Lehen Hezkuntzako etapan antzemandakoak baino txikiagoak. Hala, sare publikoan eskolatutako ikasle guztien ia % 25 atzerritar jatorrikoak dira (aurrekoen aldetik eta jatorriz), eta itunpeko sarean, berriz, % 16,1.


Bigarren Hezkuntzako ikasleen banaketa sare bakoitzean jatorriaren arabera, lurralde historikoka (%)




Bi sareen artean, atzerritar jatorria duten ikasleen banaketa proportzionala aldakorra da lurraldearen eta eskola-etaparen arabera. Lehen Hezkuntzan, Araban oreka txikiagoa ikusten

da: bertakoak ez diren ikasleen % 84,7 sare publikoan eskolatuta daude, eta % 15,3 itunpeko sarean. Bizkaian eta Gipuzkoan, atzerritik etorritako ikasleen 2/3, gutxi gorabehera, sare publikoan eskolatuta daude, itunpeko sareko 1/3ren aldean.

Bestalde, Bigarren Hezkuntzan, atzerriko ikasleak Lehen Hezkuntzako etapan baino orekatuagoak daude bi sareen artean, batez ere Araban. Gipuzkoan eta Araban, berriz, bertakoak ez direnen % 60 inguru sare publikoan eskolatuta daude, eta % 40 itunpeko sarean. Bizkaian, % 54,4 eta % 45,6, hurrenez hurren. Aurrekoak atzerritarrek dituzten eta atzerrian jaiotako ikasleen arteko bereizketa eginez gero, desoreka handiagoa dago aurrekoak atzerritarrek dituzten ikasleen kasuan.



Lurralde bakoitzaren barruan, atzerriko ikasleak ez dira berdin banatzen ikastetxeen artean. Ondoren agertzen diren grafikoetan, lurralde bakoitzeko ikastetxeak sailkatzen dira eskolatzen dituzten atzerriko ikasleen proportzioaren arabera.




Lehen Hezkuntzan, Arabako sailkapena nabarmen desberdina da Bizkaia eta Gipuzkoaren aldean. Araban, atzerritar jatorriko ikasleen proportzio txikia duten ikastetxe gutxiago dago beste bi lurraldeetan baino (% 50, % 70ekin alderatuta), eta ikasle horien proportzio handia duten ikastetxeen kasuan, Arabak Bizkaiaren bikoitza baino gehiago du proportzioan (% 25, Bizkaiko % 10en eta Gipuzkoako % 6,6ren aldean).

- Araban ikus daitekeenez, lau ikastetxetik batek (22 ikastetxe) atzerriko ikasleen % 10etik beherako proportzioa du, eta ia erdiek (41 ikastetxe) % 20tik beherakoa. Alderantziaz, Araban, eta ia erdiak (41 zentro) % 20 baino gutxiago dute, eta % 40 atzerritar jatorrikoek lau ikastetxetik batek (guztira 22 ikastetxe) atzerriko ikasleen % 40tik gorako proportzioa du
- Bizkaian, gutxi gorabehera ikastetxeen % 70ek (192 ikastetxe) % 20tik beherako proportzioan eskolatzen dituzte atzerriko ikasleak; eta ikastetxeen % 10ek (26 guztira) % 40etik gorako proportzioan.
- Gipuzkoan, banaketak Bizkaiaren antzeko patroia erakusten du. Ikastetxeen % 74k (135 guztira) atzerritar jatorriko ikasleen % 20tik beherako proportzioa du; baina kontzentrazio handiak dituzten ikastetxe gutxiago daude: sei ikastetxek atzerriko ikasleen % 40-50 arteko proportzioa dute, eta beste seik %50etik gorakoa.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, hiru lurraldeetan, hiru lurraldeetan, atzerritar jatorriko ikasleen proportzioa txikia da Bigarren Hezkuntzan, eta proportzio handiagoko ikastetxe gutxiago daude Lehen Hezkuntzan ikusitakoaren aldean. Arabak patroia bereizgarria izaten jarraitzen du beste bi lurraldeekiko.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen sailkapena eskolatzen duten atzerritar jatorriko ikasleen %-aren arabera, lurraldeka






- Bizkaian eta Gipuzkoan, euren lurraldeko ikastetxeen gutxi gorabehera % 80k eskolatzen dute atzerritar jatorriko ikasleen % 20tik beherako proportzioa, eta ikastetxeen % 5,5ek % 40tik gorakoa (Bizkaian bederatzik ikastetxe dira, eta bost Gipuzkoan).
- Araban, ikastetxeen % 71k (proportzio zertxobait txikiagoa) atzerritar jatorriko ikasleen % 20tik beherako proportzioa eskolatzen du eta, beste aldean, ikastetxeen % 11k % 40 atzerritar jatorriko ikasle baino gehiago eskolatzen dituzte (Lehen Hezkuntzan, ikastetxeen % 25 ziren).

2.1.4 Atzerritar jatorria duten ikasleen banaketa EAEko eskola-sistemako ikastetxeen titulartasunaren arabera


Lehen Hezkuntzako ikasleen banaketak, jatorriaren arabera, alde nabarmenak erakusten ditu ikastetxeen titulartasuna kontuan izanda.

Oro har, kontuan hartu ahal izan gabe jatorria adierazten ez duten ikasleen ehunekoa (kasu batzuetan, % 5etik gorakoa da) eta titulartasunek gure eskola-sisteman duten pisua; Lehen Hezkuntzan, aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleen edo atzerrian jaiotako ikasleen % 71,7 sare publikoan eskolatuta daude, % 18,6 Kristau Eskolan, % 5 Partaideko ikastolen sarean, eta gainerakoa bestelako titulartasuneko ikastetxeetan. Bigarren Hezkuntzako etapan, aipatzekoa da atzerritar jatorriko ikasleak banatuagoa dagoela sare publikoaren (% 57,2) eta itunpeko sarearen artean (zehazki, Kristau Eskolako ikastetxeetan % 30etik gora dira), Lehen Hezkuntzako etaparen aldean.

Lehen Hezkuntzako Ikasleen banaketa jatorriaren arabarera ikastetxeen titulartasuna kontuan izanda (%)




Bigarren Hezkuntzako ikasleen banaketa jatorriaren arabera, ikastetxeen titulartasuna kontuan izanda (%)



Aurrekoen aldetik eta jatorriz atzerritarrek diren ikasleen proportzioa aldatu egiten da titulartasunaren arabera.


Lehen Hezkuntzako ikastetxeen osaera soziala ikastetxeen titulartasunaren arabera (%)



Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako etapan, sare publikoan bi kategoria horiek % 22,8 dira, Kristau Eskolarentzat % 13 inguru, eta gainerakoentzat % 10etik behera. Bestalde, Bigarren Hezkuntzako etapan, sare publikoan ikasleen kategoria hori % 18 da Kristau Eskolarentzat, % 15,6 Kristau Eskolarentzat, eta % 11 inguru Elizbarrutiko Ikastetxeentzat eta IZEArentzat.




Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen osaera soziala ikastetxeen titulartasunaren arabera (%)



Hurrengo grafikoetan, titulartasun bereko ikastetxeen artean ere dauden desberdintasunak islatzen dira. Nabarmentzekoa da bi etapetan antzeko patroia antzematen dela.


- Lehen Hezkuntzan, Kristau Eskolako ikastetxeen % 80k % 20tik beherako proportzioan eskolatzen ditu atzerriar jatorriko ikasleak, eta ikastetxeen % 8,5ek % 40tik gorakoan. Titulartasunaren araberako gainerako taldekatzeetan, ikastetxe guztiek (Elizbarrutiko Ikastetxeetako batek izan ezik) atzerriko ikasleak % 30etik beherako proportzioan dituzte.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeen sailkapena eskolatzen duten atzerriar jatorriko ikasleen %-aren arabera, ikastetxeen titulartasuna kontuan hartuta



Bigarren Hezkuntzan, berriz ere, aldakortasun handiagoa ikusten da sare publikoan eta Kristau Eskolan. Sare horretan, ikastetxeen % 76k % 20tik beherako proportzioan eskolatzen ditu atzeritar jatorriko ikasleak, eta ikastetxeen % 9,5ek (guztira hamar) % 40tik gorakoan. Gainerako titulartasunetan, ikastetxe guztiek (Elizbarrutiko Ikastetxeetako batek izan ezik) atzerriko ikasleak % 30etik beherako proportzioan dituzte.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen sailkapena eskolatzen duten atzeritar jatorriko ikasleen %-aren arabera, ikastetxeen titulartasuna kontuan hartuta




2.1.5 Ikasleen banaketa jatorri geografikoaren arabera eta mailaka edo ikasturteka

Bertako ikasleen ehunekoa ez da ia aldatzen Lehen Hezkuntzako etapako maila edo ikasturteen artean (% 80,9, batez beste), nahiz eta sareen artean alde handiagoa hautematen den (sare publikoan zazpi punturaino ere igotzen da, itunpeko sarean gertatzen denarekin alderatuta, sare horrek ia sei puntuko jaitsiera baitu). Bestalde, Bigarren Hezkuntzan bertako ikasleak % 83,9 dira, batez beste, eta bost puntu jaitsi da lehen ikasturtean lehen ikasturtearekiko, bai itunpeko sarean, bai sare publikoan.

Atzerrian jaiotako ikasleei dagokienez, Lehen Hezkuntzako etapan, mailan aurrera egin ahala, aurrekoak atzeritarrak dituzten ikasleen proportzioan jaitsiera bat antzematen da atzerrian jaiotako ikasleekiko (horien proportzioa hazten ari da). Aldiz, Bigarren Hezkuntzako etapan alderantzizko patroia ikusten da.




Hurrengo grafikoetan, maila guztietan joera argia ikusten da atzerri jatorriko ikasleen bestelako proportzioan, haien jaioterriaren arabera. Hala, Lehen Hezkuntzako etaparen hasierako mailetan, gutxienez gurasoetako bat atzerritarra dutenak gehiago dira Lehen Hezkuntzako etapako goi-mailako mailetan baino. Lehen Hezkuntzako azken ikasturteetan, ordea, atzerrian jaiotakoak askoz ere gehiago dira etapa bereko hasierako ikasturteen aldean. Bigarren Hezkuntzako etapan, aitzitik, aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleen proportzioa, hasierako mailetan, azken mailen bikoitza da. Atzerrian jaiotakoaren kasuan, joera alderantzizkoa da, baina ez hain nabarmena.




Jarraian, eskola-sare bakoitzaren barruko banaketa, mailaka, analizatzen da:

- Sare publikoan ikus daitekeenez, bi etapetan, aurrekoak atzerritarrak dituzten ikasleak gutxiago dira ikasturteek aurrera egiten duten heinean, % 22,5etik % 11ra Lehen Hezkuntzako lehen eta seigarren ikasturteen artean, eta % 9,6tik % 4,8ra DBHko lehen eta laugarren mailen artean. Atzerrian jaiotakoak, berriz, % 4,5etik % 8,5era hazi dira Lehen Hezkuntzako etapan, eta oso arinki Bigarren Hezkuntzako etapan, % 10,1etik % 11,1era.



- Itunpeko sarean patroi bera ikusten da: aurrekoak atzerrikoak dituzten ikasleak lehen ikasturteko % 8,3tik seigarren ikasturteko % 3,9rako proportzioan jaitsi dira Lehen Hezkuntzan, eta % 4,6tik % 3ra Bigarren Hezkuntzako lehenetik eta laugarrenera bitartean. Aldiz, atzerrian jaiotako ikasleen proportzioa % 2,4tik % 5,2ra hazi da Lehen Hezkuntzako etapan, eta % 6,6tik % 8,9ra Bigarren Hezkuntzakoan.



2.2 Atzerritar jatorria duten 2 urteko haurren eskolatzeko-eraketa buruzko analisia matrikulazio-kanpainan

2018ko matrikula-kanpainan, guztira 16.766 eskaera jaso dira 2 urteko haurren gelarako; horietatik 215 atzerrian jaiotako haurren eskaerak dira (guztien % 1,3); 1.223k atzerriko nazionalitatea dute (% 7,3); eta, gutxi gorabehera, % 25ek gutxienez atzerriko guraso bat dute. Horrek esan nahi du atzerriko gurasoak dituzten 2 urteko hirutik bi haur eskatzailek baino gehiagok nazionalitate espainiarra dutela.

- Araban, guztira 2.598 eskaera jaso dira 2 urteko haurren gelarako, eta 6 eskatzaile bakarrik, hau da, % 0,2, atzerrian jaiotakoak dira. Kopuru hori 283 eskatzaile igotzen da (% 10,9) nazionalitate atzerritarra dutenen kasuan, eta 601ra gurasoen bat atzerritarra dutenen kasuan (% 25).
- Bizkaian guztira 8.564 eskaera egon dira 2 urteko haurren gelarako, eta 8.320 ikaslearen jatorriari buruzko datuak lortu dira. Horietatik, 108 haur (% 1,3) atzerrian jaiotakoak dira eta 536 haurrek (% 6,4) nazionalitate atzerritarra dute. Haurren gurasoen jatorriari dagokionez, amen % 22,6 eta aiten % 18,7 atzerritarrak dira.
- Gipuzkoan guztira 5.604 eskaera egon dira 2 urteko haurren gelarako, eta 5.379 ikaslearen jatorriari buruzko datuak lortu dira. Horietatik, 101 haur (% 1,9) atzerrian jaiotakoak dira eta 404 haurrek (% 7,5) nazionalitate atzerritarra dute. Amen % 23,7 eta aiten % 20,81 atzerritarrak dira.



Guraso atzerritarren eskaerak analizatzeak aukera ematen digu atzerriko familien hautaketa-hobespenetara hurbiltzeko, baina ondorio zorrotzak atera ahal izateko, analisi kuantitatibo sakonagoa egin beharko litzateke, baita analisi kualitatibo bat ere; hobeto ulertu ahal izateko jarraian adierazten diren faktoreek, besteak beste, familia horien hautaketa-prozesuan duten eragina edo pisua: hainbat faktore ekonomiko, soziokultural, ikastetxeen hurbiltasunarekin lotutakoak eta hezkuntza-proiektuarekin zerikusia dutenak.

Ikasleen eta haien familien jatorriaren arabera eskaeren analisiak bidea ematen du hiru lurralde historikoetako bakoitzetik jarraian adierazten diren ondorioak ateratzeko.

2.2.1 Araban, atzerritar jatorriko 2 urteko haurren eskolatzeko eskaerak, gehienbat, hiriburuko ikastetxe publikoetara bideratzen dira

Atzerrian jaiotako 2 urteko haurren sei eskaera baino ez dira egin, eta horiek Gasteizen eskaerak jaso dituzten 85 ikastetxeetatik lau ikastetxe publikori zuzendu zaizkie. 2 urteko haurren gelarako, atzerrian jaiotako eskaeren kopurua hain da txikia, non ez baitu ondorioak ateratzeko biderik ematen.

Atzerriko nazionalitatea duten 2 urteko haurren 283 eskaeren (guztizkoaren % 10) banaketari buruzko analisitik ondorio hau atera daiteke: profil horretako eskaeren kontzentrazio nabaria dago hiriburuko ikastetxeetan (Araban egindako eskaera guztien % 84,5), eta sareen arteko bereizketa nabarmena dago (sare publikoak atzerriko nazionalitatea duten haurren eskaeren % 96 jasotzen ditu).

Hurrengo grafikoan, ikastetxeen arteko eskaeren banaketa ikusten da, Arabako ikastetxeek jasotzen dituzten atzerriko haurren eskaeren proportzioaren arabera:




Ikastetxea eskatzeko prozesuan, matrikulazio-patroi berezia ikusten da jatorri geografikoaren arabera: ikastetxeen % 40k (34 ikastetxe) ez dute atzerriko nazionalitatea

duten 2 urteko haurren inolako eskaerarik jasotzen, eta ikastetxeen % 9,4k (zortzi ikastetxe guztira) %40 baino gehiago jasotzen dute:

- 85 ikastetxeetatik 8k (guztien % 9,4) atzerriko nazionalitatea duten haurrei dagozkien eskaeren % 40 baino gehiago jasotzen dituzte, 2 urteko haurrentzako ikastetxean egiten diren eskaeren guztizkoarekin alderatuta. Gasteizko ikastetxe publikoak dira guztiak.
- 85 ikastetxeetatik 43k (% 50) atzerriko nazionalitatea duten haurren eskaerak jasotzen dituzte % 1 eta % 40 arteko proportzioan: horietako hamalauk % 1-10 bitarteko proportzioan; hogeik % 10-25 artekoan; eta bederatzik % 25-40 artekoan.
- 85 zentroetatik 34k (% 40) ez dute atzerriko nazionalitatea duten ikasleen eskaerarik jasotzen, eta 34 ikastetxe horietatik hamabi ikastetxe publikoak dira. Hamasei ikastetxe (ia erdiak) Gasteizen daude eta gehienak itunpekoak dira (bi bakarrik dira publikoak). Gainera, 34 ikastetxeetatik zortzik (% 23,5) ez dute atzerriko gurasoen eskaerarik; 34etatik seik (% 17,6) jasotzen dituzten eskaeren % 1-5 artean atzerriko gurasoenak dira; 34 ikastetxeetatik hogeik (% 67,6) jasotzen dituzten eskaeren kasuan, % 5-25 artean dira; eta 34 ikastetxeetatik zazpik jasotzen dituzten eskaeren % 25 atzerriko gurasoenak dira.

Bestalde, ikastetxeen arteko eskaeren banaketari buruzko analisiak, gurasoen jatorriaren arabera⁸, antzeko joera erakusten du. Kontzentrazio nabarmena ikusten da: ikastetxeen % 20k guraso atzerritarren eskaerak % 50etik gorako proportzioan jasotzen dituzte. Ikastetxeen ia % 30ek ez dute atzerriko gurasoen eskaerarik jasotzen edo % 10 baino gutxiago jasotzen dituzte. Aipatzekoa da, bestalde, eskaera horien % 82 Gasteizko ikastetxeetan biltzen direla, eta % 86 sare publikoan.





Analisi sakonagoa eginez gero, honako ondorio hauek atera daitezke: 10 ikastetxek (% 12) atzerriko gurasoen eskaeren % 80 baino gehiago jaso dituzte. Guztiak publikoak dira: bederatzi Gasteizen daude, eta bat Laudion.

- 6 ikastetxek (% 7) jaso dituzten haurren eskaeren % 50-80tan, haien bi gurasoak atzerritarak dira. Ikastetxe publikoak dira denak: lau Gasteizen daude, eta bi Lantziegoko eta Oiongo udalerrietan.
- 15 ikastetxek (% 18) atzerriko gurasoen eskaeren % 30-50 artean dituzte, eta haien artean, bi bakarrik dira itunpekoak.
- 30 ikastetxek (gehiengoak) atzerriko gurasoen eskaeren % 10-30 artean jasotzen dituzte.
- 16 ikastetxek (% 19) atzerriko gurasoen eskaeren % 0,1-10 artean jasotzen dituzte eta zortzi ikastetxek (% 9) ez dute atzerriko aitaren eskaera bakar bat ere. Horien artean, gehienak itunpekoak dira (% 75) eta sei Gasteiztik kanpo daude. Sei ikastetxe publikoetatik, bat bakarrik dago hiriburuan.

Gasteizen dauden ikastetxeei zuzendutako eskaerei buruzko analisia eginez gero ikusten denez, bereizketa argia dago bi eskola-sareen artean atzerriko familiek egiten duten hautaketan. 1.917 eskaeretatik 601 (ia 1/3) aita atzerritarra duten haurrei dagozkie, eta % 85ek 2 urteko haurrentzako ikaspostua sare publikoan eskatzen dute. Horrela, eskaerak dituzten 48 ikastetxeetatik 13k (% 27) atzerriko gurasoen eskaeren % 10 baino gutxiago dituzte, eta haietatik bakarra da publikoa. Hamaika ikastetxek (% 23), berriz, atzerriko gurasoen eskaeren % 70 baino gehiago jasotzen dituzte, eta haiek denak publikoak dira. Ikastetxe publiko horietako gehienek eskaintza bakartzat D eredia izateak agerian uzten du hizkuntza-ereduak funtsezko faktore izateari utzi diola atzerriko familien hautaketan.


Bestalde, Arabako udalerrien eskaerei buruzko analisiak erakusten du ikastetxeen % 25ek (37etatik hamarrek) atzerriko gurasoen eskaeren % 30 baino gehiago dituztela, baina hiru zentrok baino ez dituztela gainditzen % 50. Horien artean, bost ikastetxe daude eskaintza bakarra duten udalerrietan, eta bost ikastetxe daude eskaintza zabalagoa duten hiru udalerritan. Kasu horietan, alde nabarmena dago atzerriko haurren eskolatzeari sare publikoaren eta itunpeko sarearen artean.

2.2.2 Atzerritar jatorriko 2 urteko haurren eskolatzee-eskaerak Bizkaiko eskola-sareko ikastetxe gutxi batzuetan biltzen dira

Atzerrian jaiotako 2 urteko haurrei dagozkien 108 eskaeren eta nazionalitate atzerritarra duten haurrei dagozkien 536 eskaeren (guztien % 6,4) banaketari buruzko analisiak islatzen

duenez, ikastetxeen % 10ek profil hori duten eskaeren proportzio handia jasotzen dute, eta ikastetxeen % 75ek, ordea, eskaera gutxi jasotzen dituzte.


Grafikoan ikus daitekeenez, 266 ikastetxeetatik hamalauk (% 5,2) atzerrian jaiotako pertsonen eskaeren % 40 baino gehiago dituzte, eta beste hamabi % 25-40 artean. Beste muturrean, zentroen erdiek baino gehiagok —% 54,1ek (114 ikastetxe)— ez dute atzerriko nazionalitatea duten haurren eskaerarik jasotzen, eta beste % 82k atzerriko nazionalitatea duten haurren eskaerak proportzio txikian jasotzen dituzte (% 0,1etik % 10era artean).



Analisi honen bidez egiaztatzen denez, 2 urteko haur atzerritarren eskaerak guztira 152 ikastetxeren (% 44,5) artean banatzen dira; horietatik gehienek —82 ikastetxek (% 30)—, 2 urteko haurren gelarako, atzerriko nazionalitatea duten ikasleen % 10etik beherako proportzioa jasotzen dute; eta hamalau ikastetxek % 40tik gorakoa.

Azpimarratu beharra dago atzerriko ikasleen eskaera-proportziorik handiena duten hamalau ikastetxeetako zazpi Bilbon kokatuta eta gainerakoak probintzia osoan banatuta daudela. Hamar sare publikoko ikastetxeak dira, eta gainerako lauak, berriz, itunpeko ikastetxeak (Bilboko bi, Getxoko bat eta Gernikako beste bat). Bestalde, atzerriko haurren eskaerarik ez duten 114 ikastetxeetako 68 ikastetxe publikoak dira, eta gainerako 46ak, berriz, itunpekoak. Gehienak hiriburutik kanpo daude.

Analisia gurasoen jatorriaren arabera (aitaren jatorriaren arabera kasu honetan) eginez gero ikusten denez, 266 ikastetxeetako 19k (% 7,14k) ez dute jasotzen aita atzerritarra duten haurren eskaerarik, eta gehienak udalerrri txikiak ikastetxe publikoak dira; beste 64 ikastetxek (% 24k) % 0,1-10eko proportzioan jasotzen dituzte aita atzerritarra duten haurren eskaerak, eta gehienak itunpekoak dira; beste 120 ikastetxek (hau da, % 11k) % 10-30eko proportzioan jasotzen dituzte. Bestalde, 32 ikastetxek (% 12k) aita atzerritarra duten haurren eskaera-proportzio handiak dituzte (% 50etik gorakoak).



Lehenik eta behin ikus daitekeenez, aita atzerritarra duten haurren eskaera-proporzio txikiak dituzten ikastetxeen kopurua txikiagoa da analisia seme-alaben nazionalitatearen arabera eginez lortutakoa baino. Nolanahi ere, ikastetxe gehienek proportzio ertainean jasotzen dituzte eskaera horiek (% 10,1-30eko proportzioan).

Azpimarratu beharreko beste elementu bat zera da, hamar ikastetxetan (zazpi ikastetxe publikotan eta Kristau Eskolako itunpeko hiru ikastetxetan) aita atzerritarra duten haurren eskaeren proportzioa oso handia dela (% 80tik gorakoa, eta, bost ikastetxetan, % 100ekoa). Gehienak Bilbon kokatuta daude. Haien erdiek hamar eskaera edo gutxiago jasotzen dituzte guztira, eta horrek agerian uzten du herritar gehienentzat ikastetxe horiek ez direla erakargarriak.

Atzerriko familien eskaeren proportziorik handieneko ikastetxeen artean, gutxienez eskaintzen dute A edo B eredu, eta, beraz, esan daiteke hizkuntza-ereduak eragin txikia duela familia horiek egiten duten eskola-aukeraketan. Itunpeko ikastetxeen kasuan, bost ikastetxeetako lauk eskaintzen dituzte eredu horiek, eta, beraz, ezin da eragin hori baztertu.

2.2.3 Atzerritar jatorriko 2 urteko haurren eskolatze-eskaerak Gipuzkoako hiriburuko eta immigrazio-tasarik handieneko udalerrietako ikastetxe gutxi batzuetan biltzen dira nagusiki.


Atzerrian jaiotako 2 urteko haurren 101 eskaeren eta atzerriko nazionalitatea duten haurren 404 eskaeren (guztien % 7,4ren) banaketari buruzko analisian ikus daitekeenez, Gipuzkoan eskaera horien banaketa beste lurraldeetako baino handiagoa da, baina desberdintasun garrantzitsuak daude eskola-sareen artean zein eskola-sare bakoitzaren barruan.

Gipuzkoan, 2 urteko haurren eskaerak jaso dituzten 180 ikastetxeetatik, 73k (% 40,5ek) ez dute atzerrian jaiotako edo atzerriko nazionalitatea duten haurren eskaerarik jaso (erdiak publikoak dira, eta beste erdiak itunpekoak), 55 ikastetxek (% 18,3k) % 0,1-15eko

proportzioan jaso dituzte atzerriko nazionalitatea duten haurren eskaerak, eta beste 33 ikastetxek (% 19,4k), berriz, % 10-25eko proportzioan. Beste muturrean, ikastetxeen % 10ek (19 ikastetxek) % 25etik gorako proportzioan jaso dituzte atzerriko nazionalitatea duten haurren eskaerak. Haien artean, lau ikastetxek % 40tik gorako proportziora dute, eta 15 ikastetxek % 25-40koa. Ikastetxe horietatik, itunpeko hiru daude, hiru udalerritan kokatuak (Azkoitian, Mutrikun eta Irunen), eta gainerakoak ikastetxe publikoak dira.



Eskaeren analisia gurasoen jatorriaren arabera eginez gero ikus daitekeenez, proportzio txikiak dituzten ikastetxeak haurren nazionalitatearen arabera egindako analisisian baino askoz gutxiago dira: % 11,7k % 10etik beherako proportzioan jasotzen dituzte guraso atzerritarrek dituzten haurren eskaerak, eta ikastetxe gehienek (% 68k), berriz, % 10-30eko proportzioan. Aldi berean, gehiago dira atzerriko aita duten haurren eskaerak % 50etik gorako proportzioan jaso dituzten ikastetxeak (21 zehazki, hau da, % 27,8). Gehienak immigrazio-tasa handia duten udalerritan kokatutako ikastetxeak dira (Donostian, Eibarren eta Irunen). Horrek esan nahi du atzerritarren proportzio handia duten udalerrietan atzerriko familiek ikastetxe gutxi batzuk lehenesten dituztela.





Analisis aita atzerritarra duten haurren eskaerak % 50etik gorako proportzioan jaso dituzten 21 ikastetxeetan oinarrituta, azpimarratu beharra dago herenak itunpekoak eta bi heren publikoak direla. Itunpeko zortzi ikastetxeetako bost Donostian daude, eta gainerako hirurak Hernanin, Irunen eta Mutrikun. Denak Kristau Eskolakoak dira. Bestalde, ikastetxe publiko gehienak atzerriko biztanle gehien dituzten udalerrietan (Irun, Erreterria, Ordizia, Donostia eta Hernanin) edota eskaintza bakarra duten udalerrietan (Itsasondo, Ikaztegieta, Alegia eta Legorretan) kokatuta daude.

Bestalde, aita atzerritarra duten haurren eskaerak % 10etik beherako proportzioan dituzten 50 zentroak ia neurri berean banatuta daude bi sareetan: 23 itunpekoak dira (gehienez ikastolak) eta 27 publikoak. Azken horietatik, hiru Donostian kokatuta daude, eta gainerakoak atzerriarren proportziorik txikieneko udalerrietan. Horrek adierazten du sare bakoitzaren barruan ere alde handiak daudela.

Hiriburuko ikastetxeei buruzko analisi zehatzago baten arabera, aldeak handiagoak dira sareen barruan sareen artean baino:

- 19 ikastetxe publikoetatik, bik (Bidebietan kokatutakoek) % 70etik gorako proportzioan jasotzen dituzte guraso atzerriarrak dituzten haurren eskaerak, lauk % 40-60ko proportzioan, bederatzik % 20-40ko proportzioan eta beste lauk % 20tik beherako proportzioan.
- Itunpeko ikastetxeen sarean, berriz, itunpeko 26 ikastetxeen artean (22 ikastetxe ingelesa eta alemana baztertzan baditugu) hiruk % 10etik beherako proportzioan jasotzen dituzte guraso atzerriarrak dituzten haurren eskaerak (eskaera gehien jasotzen dituzten ikastetxeak dira), eta hiruk % 60tik gorako proportzioan.

2.3 Eskolatzeko Lurralde Batzordeek eskolatutako ikasle iritsi berrien eskolatzeari buruzko analisisa

Etengabe iristen diren atzerriko biztanleen kopuruaren igoerak eta biztanle horien banaketa geografikoak eragina dute eskola-eremuan. Azpimarratu beharra dago 2010. urtetik aurrera EAEtik kanpo iritsitako ikasle atzerriarren epe kanpoko eskolatzetan izan den gorakada.

Iritsi berrien epe kanpoko eskolatzeari erronka handia izan da Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren mendeko Eskolatzeko Lurralde Batzordeentzat. Aurtengo ikasturtearen hasieran, Sailak beste ebazpen bat eman du⁹, epe kanpo iritsitako ikasleen banaketan oreka

2017ko martxoaren 2ko Ebazpena, Hezkuntzako sailburuordearena, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Eskolatzeko Batzordeen osaera, funtzioak eta antolamendu- eta funtzionamendu-arauak finkatzen dituena. Laudioko udalerrian dagoen Areta auzoko ikasleak eskolatzeko dituen Fabian Legorburu ikastetxea barnean hartu da.



handiagoa lortzeko eta antolamendua eta funtzionamendua errazteko jardun-irizpideak bateratze aldera.

2017-2018 ikasturtean, Eskolatzeko-batzordeek 4.314 ikasle iritsi berri eskolatu dituzte guztira (950 Araban, 1.985 Bizkaian eta 1.379 Gipuzkoan), eta ikastetxeak irizpide beren arabera izendatu badira ere, banaketa geografikoan eta eskola-eskaintzaren arabera banaketan alderen bat badagoela ikus daiteke.

Arabako lurraldean, Batzordeak epez kanpo eskolatutako ikasleen % 70 baino gehiago Gasteizko ikastetxeetan daude, hiriburuan ezartzen baitute beren bizilekua atzeritik lurraldera iristen diren familia gehienek. Ikasle iritsi berri gehien eskolatzen dituzten hurrengo udalerriak Laudio, Amurrio eta Oion dira (% 5, % 3,7 eta % 2,4, hurrenez hurren).

Batzordeak ikasleak epez kanpo eskolatu dituen 16 udalerritan, hezkuntza-eskaintza bakarra dago¹⁰ (14tan eskaintza publikoa eta 2tan itunpekoa). Lurraldeko gainerako udalerrietan, eskaintza publikoa handiagoa da, ikastetxeen kopuruari zein ikaspostuen kopuruari dagokionez. Hori dela eta, kopuru absolutuetan sare publikoak itunpekoak baino ikasle iritsi berri gehiago eskolatzen baditu ere, datuak eskaintzaren proportzioa kontuan hartuta haztatzen baditugu, itunpeko sarean ikasle iritsi berrien ehuneko handiagoa eskolatzen dela ikusiko dugu. Zirkunstantzia hori lurraldeko udalerririk guztietan gertatzen da, Oionen izan ezik. Udalerririk horretan, sare publikoak ia ikasle iritsi berri guztiak hartu ditu.


Ikastetxeen arteko banaketari dagokionez, azpimarratu beharra dago aurtengo ikasturtean Arabara iritsi berri diren ikasleak 94 ikastetxetan eskolatu direla, hain zuzen 62 ikastetxe publikotan (48 HLHI, 9 BHI, 4 IPI eta HBI 1) eta itunpeko 32 ikastetxetan (5 BHIP eta 27 ikastetxe integral). Ikastetxeen erdiak baino gehixeago Gasteizen daude.

IRITSI BERRIEN ALTAK, 2017-18 IKASTURTEA. ARABA									
974	A	347*	% 35,7	PUB	204	% 21,0	HH	13	% 1,3
							LH	90	% 9,2
							DBH	99	% 10,7
				ITUN	143	% 14,7	HH	6	% 0,6
							LH	13	% 1,3
							DBH	124	% 12,7
	B	305	% 31,3	PUB	178	% 18,3	HH	38	% 3,9
							LH	125	% 12,8
							DBH	15	% 1,5



			ITUJUN	127	% 13,03	HH	33	% 3,4
						LH	61	% 6,3
						DBH	33	% 3,4
D	322	% 33,0	PUB	285	% 29,3	HH	125	% 12,8
						LH	152	% 15,6
						DBH	8	% 0,8
			ITUJUN	37	% 3,8	HH	14	% 1,4
						LH	17	% 1,7
						DBH	6	% 0,6

Arabako, hizkuntza-ereduen arabera banaketa herenetan egin da gutxi gorabehera A, B eta D ereduen artean, ondorengo grafikoan ikus daitekeenez. Hala ere, proportzio hori nabarmen desberdina da etaparen arabera. A ereduaren eskolatzen diren Haur Hezkuntzako ikasle iritsi berriak ez dira % 2ra iristen. DBHn, berriz, guztien % 23 dira. Sare publikoan, A ereduaren eskolatzeko eredu hori eskaintzen duten Gasteizko hiru ikastetxeetan eta Oiongoan egin da. Itunpeko sareari dagokionez, azpimarratu beharra dago Egibidek Bigarren Hezkuntzako 124 ikasleentako 99 eskolatu dituela. Sare publikoan, A ereduaren hiru ikastetxeetan banatu dira (Gasteizko bitan eta Guardiako Samaniego ikastetxean, Arabako Errioxan).



B ereduaren banaketa gainerako ereduaren baino orekatuagoa da. Izan ere, ikastetxe publikoetan desagertzen ari dira B ereduaren ildoak, baina itunpekoetan geratzen dira oraindik. Horregatik, eredu horretan Arabako itunpeko ikastetxeen eskaintza da nagusi.

D ereduaren ikasleak ikastetxe publikoetan eskolatzen dira batez ere, itunpeko sarearen eskaintza B ereduaren baita nagusiki, bi ikastola salbuetsita (eta ikastola horiek ia ez dute ikasle iritsi berririk hartu).




Azkenik, adierazi beharra dago Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko gehienek ez dutela ikasle iritsi berririk hartu, ikasle horiek A eredu ikastetxe publikoetan eta A edo B eredu itunpeko ikastetxeetan eskolatu baitira.

Bizkaiko lurraldean, Eskolatzeko batzordeak ikasle iritsi berrien % 64,4 itunpeko sarean eskolatu ditu, eta % 35,6 sare publikoan. Sareen arteko aldea handiagoa da Bigarren Hezkuntzako etapan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan baino. Azpimarratu beharra dago Eskolatzeko Batzordeak 2017-18 ikasturtean matrikulatutako ikasleen % 35 inguru Bigarren Hezkuntzako ikasleak direla.

IRITSI BERRIEN ALTAK, 2017-18 IKASTURTEA. BIZKAIA									
1.985	A	279	% 14,1	PUB	90	% 4,5	HH	10	% 0,5
							LH	30	% 1,5
							DBH	50	% 2,5
	ITUN	189	% 9,5	HH	8	% 0,4			
				LH	39	% 2,0			
				DBH	142	% 7,2			
	B	843	% 42,5	PUB	68	% 3,4	HH	12	% 0,6
							LH	29	% 1,5
							DBH	27	% 1,4
	ITUN	775	% 39,0	HH	145	% 7,3			
LH				315	% 15,9				
DBH				315	% 15,9				
D	863	% 43,5	PUB	548	% 27,6	HH	176	% 8,9	
						LH	316	% 15,9	
						DBH	56	% 2,8	
			ITUN	315	% 15,9	HH	98	% 4,9	
						LH	143	% 7,2	
						DBH	74	% 3,7	

Lurralde-banaketari dagokionez, Eskolatzeko batzordeak epez kanpo egindako matrikulen % 70 inguru Bilboaldean egin ditu, eta gainerakoak, berriz, atzerriko biztanle gehien dituzten zortzi udalerrietan. Hizkuntza-ereduak kontuan hartuta, honela banatuta daude, taulan ikus daitekeenez: ikasleen % 43,5 D eredu eskolatu dira, % 42,5 B eredu eta % 14,1 A eredu.


Grafikoan, ikasle iritsi berriek Bizkaian izan duten banaketa ikus daiteke, sarearen eta ereduaren arabera:



Bestalde, Gipuzkoako lurraldean, Eskolatzte-batzordeak 1.379 ikasle iritsi berri eskolatu ditu, % 59 sare publikoan eta % 41 itunpeko sarean. % 72,7 D ereduari eskolatu dira, % 24,5 B ereduari eta % 2,8 A ereduari. Horietatik guztietatik, ia % 30 Bigarren Hezkuntzan eskolatu dira (400 ikasle inguru), % 45,0 Lehen Hezkuntzan eta % 26,0 Haur Hezkuntzan.

IRITSI BERRIEN ALTAK, 2017-18 IKASTURTEA. GIPUZKOA									
1379	A	39	% 2,8	PUB	0	% 0,0	HH	0	% 0,0
							LH	0	% 0,0
							DBH	0	% 0,0
				ITU	39	% 2,8	HH	14	% 1,0
							LH	19	% 1,4
							DBH	6	% 0,4
	B	338	% 24,5	PUB	149	% 10,8	HH	10	% 0,7
							LH	48	% 3,5
							DBH	91	% 6,6
					ITU	189	% 13,7	HH	21
							LH	70	% 5,1
							DBH	98	% 7,1
D	1002	% 72,7	PUB	672	% 48,7	HH	212	% 15,3	
						LH	333	% 24,2	
						DBH	127	% 9,2	
				ITU	330	% 23,9	HH	101	% 7,3
							LH	150	% 10,9
							DBH	79	% 5,7

Grafikoan, ikasle iritsi berriek Gipuzkoan izan duten banaketa ikus daiteke, sarearen eta ereduaren arabera:



Gipuzkoako lurraldean, ikasle iritsi berriak gainerako bi lurralde historikoetan baino banatuago daude. Zehazki, ikasleen % 20 Donostiako ikastetxeetan eskolatu ditu Batzordeak, % 10 Irungo ikastetxeetan, eta gainerakoak, berriz, lurraldeko hainbat udalerritan. Horien artean, Eibar eta Ordizia nabarmentzen dira, % 5eko proportzioarekin. Guztira, 116 ikastetxe publikotan (74 HLHI, 40 BHI eta 2 IPI) eta itunpeko 69 ikastetxetan jaso dituzte ikasleak epez kanpo.


2.4 Atzerritar jatorriko ikasle eskolatzeari buruzko analisia tokiko testuinguruaren arabera

Atzerriko immigrazioaren fenomenoak eskola-eremuan izan duen islak alde handiak agertzen ditu lurralde bereko udalerrien artean, tokiko testuinguruaren ezaugarri espezifikoaren arabera. Hori lotuta dago hainbat faktorekin, hala nola eskola-eskaintzaren aukerarekin eta estaldurarekin edota tokiko testuinguru jakin batean bizi diren familiek eskola hautatzean dituzten lehentasunekin, baita eremu zabalago bateko beste alderdi batzuekin ere: biztanleriaren ezaugarri sozioekonomikoak eta soziolinguistikoak, kultura-ereduak, inguruko lan-merkatuaren aukerak, bizitzaren kostua, biztanleriaren bizileku-banaketa eta abar.


2.4.1. Atzerritar jatorriko ikasleak oso proportzio desberdinean daude banatuta EAEko udalerrietan

Ondorengo mapetan, EAEko udalerrriak agertzen dira, bertako ikastetxeek eskolatzten dituzten atzerriko ikasleen proportzioaren arabera¹¹, Lehen Hezkuntzako ikasleak eta Bigarren Hezkuntzakoak berezita. Ondoren, lurralde historiko bakoitzeko errealitatea aztertuko dugu labur-labur.

Lehen Hezkuntzan eskolatzten dituzten atzerritar jatorriko ikasleen arabera:



Bigarren Hezkuntzan eskolatzten dituzten atzerritar jatorriko ikasleen arabera:



Dokumentuaren eranskinetan, datu osoak daude, 2016-2017 ikasturteko matrikulazioa (EAEko udalerrien arabera berezia) oinarritzat hartuta.



Arabako lurraldean, atzerriko ikasleen proportzioa EAEko beste bi lurraldeetan baino handiagoa da, eta bi eremu geografiko zehatzetan bilduta dago: hiriburuan eta Arabako Errioxan.

Gasteizen, Arabako Errioxako udalerrietan (Guardian, Lantziegon, Kanpezun eta Eltziegon), Oionen eta Gaubean, Lehen Hezkuntzan dauden atzerriar jatorriko ikasleak % 25-35 dira. Bigarren Hezkuntzan, berriz, proportziorik handiena dutenak Guardia (% 35), Kanpezu eta Gasteiz dira (% 25 baino gutxiago azken bi horietan). Azpimarratu beharra dago Bigarren Hezkuntzan gehiago direla atzerrian jaiotako ikasleak guraso atzerriarrak dituzten eta EAEn jaio diren ikasleak baino. Lehen Hezkuntzan, berriz, alderantziz gertatzen da (Guardian izan ezik), guraso atzerriarrak dituzten eta EAEn jaio diren ikasleen proportzioa handiagoa baita.

Beste muturrean, sei udalerrri txikik ez dute gainditzen ikasle atzerriarren % 10eko proportzioa Lehen Hezkuntzan, eta beste lauk Bigarren Hezkuntzan (eta, haien artean, Oionek, Lehen Hezkuntzan proportziorik handieneko udalerritako bat izanik).

Termino absolutuetan, hiriburuaren eta udalerrien arteko aldea oso handia da. Gasteizen, atzerriko 4.000 ikasle inguru daude Lehen Hezkuntzako etapan matrikulatuta, eta 2.000 inguru Bigarren Hezkuntzako etapan. Probintziako udalerrien artean, Amurriok eta Laudio baina ez dituzte 100 ikasle atzerriar baino gehiago Lehen Hezkuntzan. Bigarren Hezkuntzan, berriz, Gasteizen atzetik atzerriko ikasle gehien dituzten udalerriak Laudio eta Guardia dira (80 inguru).

Bizkaiko lurraldearen kasuan, hamabi udalerritan atzerriko ikasleen % 20 inguru daude eskolatuta Lehen Hezkuntzan (Bilbo eta Getxo salbuetsita, gainerakoak herri txikiak dira), eta beste 35 udalerritan ez da gainditzen % 10eko proportzioa (udalerrri txikiak dira, Portugalete izan ezik). Bigarren Hezkuntzako etapan, berriz, atzerriko ikasleen % 20ko proportzioa gainditzen duten bi udalerrri bakarrak Arratzu eta Urduña dira, eta atzetik Bilbo, Getxo, Markina-Xemein, Gernika-Lumo, Balmaseda eta Barakaldo datoz, % 15-19ko ehunekoarekin. Berriz ere, Urduña salbuetsita, atzerrian jaiotako ikasleen proportzioa guraso atzerriarrak dituzten eta EAEn jaio diren ikasleena baino handiagoa da Bigarren Hezkuntzan.

Termino absolutuetan, Bilbok atzerriko 3.300 ikasle inguru ditu Lehen Hezkuntzan, eta 2.200 inguru Bigarren Hezkuntzan. Haren atzetik, atzerriko ikasle gehien dituzten udalerriak Barakaldo (900 Lehen Hezkuntzan eta 500 baino gehixeago Bigarren Hezkuntzan) eta Getxo (500 baino gehixeago Lehen Hezkuntzan eta 320 inguru Bigarren Hezkuntzan) dira.

Gipuzkoan, atzerriko ikasleak % 20ko edo hortik gorako proportzioan dituzten hamaika udalerrri daude Lehen Hezkuntzan. Haien artean, Ordizia eta Ikaztegieta nabarmentzen dira, ikasle horiek % 25 baino gehiago baitira. Azpimarratu beharra dago lurraldeko hiriburuan EAEko gainerako bi hiriburuetan baino txikiagoa dela atzerriko ikasleen proportzioa (% 20 baino txikiagoa). Bigarren Hezkuntzako etapan, oro har, atzerriko ikasleen proportzioa Lehen



Hezkuntzako etapan baino txikiagoa da. Proportziorik handiena duten udalerriak Ordizia, Lasarte, Hernani, Eibar, Irun, Arrasate, Beasain eta Elgoibar dira (% 15-19). Beste muturrean, berriz, Gipuzkoako zortzi udalerrri txikitik atzerriko ikasleen proportzioa % 0-5 da Lehen Hezkuntzan. Bigarren Hezkuntza, berriz, hiru udalerrri dira proportzio hori dutenak.

Termino absolutuetan, Donostiak atzerriko 1.500 ikasle inguru ditu Lehen Hezkuntzan, eta 1.000 baino gehixeago Bigarren Hezkuntzan. Atzetik, bi eskola-etapetan atzerriko 500 ikasle baino gehiago dituen udalerrri bakarra Irun da.

2.4.2. Aniztasunik handieneko udalerrietan, atzerriar jatorriko ikasleen banaketak ez dio patroari berari jarraitzen

Udalerrri jakin batean bizi diren atzerriko ikasleen proportzioa ezagutzeaz gain, interesgarria da aniztasunik handieneko udalerrietako ikastetxeetan atzerriko ikasleak nola banatuta dauden aztertzea. Lehen hurbilketa batean, atzerriko ikasle gehien dituzten udalerrietan hainbat eskolatze-patroi daudela ikus daiteke. Patroi horiek hainbat faktoreren arabera dira¹².

Oro har, esan daiteke itunpeko sareko ikastetxeak dituzten udalerrietan oso deigarria dela Kristau Eskolako zentroen eta ikastolen osaera sozial desberdina. Azken horietan, atzerriko ikasleen proportzioa oso txikia da, eta, kasu askotan, sare publikoan txertatu ziren ikastoletako eskolatze-patroi berak agertzen dituzte. Sare publikoan ere alde handiak daude ikastetxe batzuen eta besteen artean, baita eskola-eremu beraren barruan ere.

Arabian, azterlan honen 2.1 atalean adierazi denez, Lehen Hezkuntzako atzerriar jatorriko ikasle gehienak bizilekutik hurbil dauden ikastetxe publikoetan eskolatuta daude. Ikasle horiek Gasteizen, eta bereziki auzo batzuetan (Zabalganan, Salburuan eta erdialdean) bildu direnez gero, atzerriko ikasleen kontzentrazio handiak daude auzo horietako ikastetxe publikoetan. Bigarren Hezkuntzan, berriz, atzerriko ikasleak banatuago daude sareen artean, sare bakoitzaren barruan alde esanguratsuak badaude ere. Neurri batean, EAetik kanpo jaio diren ikasleak A edo B ereduko ikastetxeetan eskolatu ohi direlako gertatzen da hori.

Arabako gainerako udalerrietan, atzerriko ikasleen banaketa eskola-aukera bat baino gehiago egoteak baldintzatzen du. Kasu horietan, eta atzerriko ikasleen proportzio handiak dituzten udalerrietan bereziki, desorekak agertu ohi dira ikastetxeen osaera sozialean, eta atzerriko ikasle gehiago daude sare publikoko ikastetxeetan.

Bizkaiko udalerrietan, atzerriko ikasleen eskolatzeak ez dio patroari berari jarraitzen, eta aukera handiagoak edo txikiagoak eskaintzeak eragina dauka, baina ez ditu argitzen atzerriko

Azterlan honen 4. atalean, gai honen inguruko hurbilketa egiten da.



immigrazio-tasa handiak dituzten udalerrri gehienetan sare beraren barruan agertzen diren aldeak.

Alde batetik, Bilbon eta eskuinaldeko zati batean, funtsezkoak dira nagusiki kanpoko eremu batetik garraiatuta iritsitako ikasleez osatuta dauden Txorierriko ikastetxe handiak (eskari handia izan ohi dutenak). Garraioaren oztopoa dela eta, Eskolatzeko Batzordearen matrikula gehiago eta, oro har, inguruan bizi diren atzerriko ikasleen matrikula gehiago jaso ohi dituzten Bilboko auzoetako beste ikastetxe batzuetan baino atzerriko ikasle gutxiago daude.

Immigrazioaren fenomenoaren eraginik handiena jasotzen duten eskuinaldeko udalerrietan, atzerriko ikasleak era desberdinean banatuta daude ikastetxeen artean. Leioan, profil hori duten ikasle gehienak bi ikastetxe publikotan daude eskolatuta (etapa bakoitzeko ikastetxe banatan), eta Getxon, berriz, itunpeko bi ikastetxetan eta lau ikastetxe publikotan (Lehen Hezkuntzako hirutan eta institutu batean). Sare publikoan agertzen den banaketa desberdina A ereduaren jarraitutasunari lotuta dago zuzenean.

Bestalde, ezker aldeko udalerrietan, Basaurin eta hiriburuko zenbait auzotan (Otxarkoagan eta Errekalden, adibidez), ikastetxeen osaera sozial desberdina immigrazioaren fenomenoaren aurrekoa da. Horretan eragina izan du, beste zenbait faktoreen artean, ikastetxe batzuetan ikasle ijito gehiago eskolatuta egoteak. Kasu horietako askotan, atzerriko immigrazioak areagotu egin ditu aurretik zeuden desorekak. Barakaldon eta Basaurin, zehazki, atzerriko ikasleen eta ikasle ijitoen proportzio handiak dituzten ikastetxeak daude.

Bilboaldetik kanpo, atzerriko biztanle gehien dituzten Bizkaiko udalerrietan hainbat patroiz ikus daitezke ikasleen eskolatzeari dagokionez. Durangon, alde handia dago sare publikoko ikastetxeen osaera sozialaren eta itunpeko ikastetxeen osaera sozialaren artean: atzerriko ikasle gehienak ikastetxe publikoetan eskolatuta daude. Gernika-Lumon, berriz, atzerriko ikasleak Kristau Eskolako itunpeko ikastetxe batean daude eskolatuta nagusiki. Zornotzan, alde esanguratsuak daude sare bateko eta besteko ikastetxeen osaera sozialean. Izan ere, itunpeko ikastetxeen eskaintza handia da, eta atzerriko oso ikasle gutxi dituzte eskolatuta. Eta Ermuan, berriz, sare publikoan atzerriko ikasle gehiago daude, oro har, baina immigrazioaren fenomenoak areagotu egin du sare publikoan txertatutako ikastolaren eta sare horretako gainerako ikastetxeen arteko ohiko desberdintasuna. Bigarren Hezkuntzako bi ikastetxe publikoek bat egin izanak murriztu egin du alde hori.

Gipuzkoako lurraldean, atzerriko ikasleen eskolatzeko dinamika desberdina da udalerrien profilararen eta kokapenaren arabera. Testuinguru soziolinguistikoa, biztanleriaren profil demografikoa eta eskola-eskaintzaren ezaugarriek eragin handia dute.

Hiriburuan, atzerriko ikasleen (eta batez ere latindar jatorrikoen) kontzentrazio handiak agertzen dira bi sareetako ikastetxe gutxi batzuetan. Bestalde, atzerriko ikasle ugari daude auzorik zahartuenetako auzoetako eta/edo errentarik txikieneko auzoetako ikastetxe



publikoetan eskolatuta (Bidebietan, Intxaurren eta Herreran). Auzo horietatik kanpo, berriz, itunpeko ikastetxe gehienek eta ikastetxe publikoren batek ez dute ia atzerriko ikaslerik eskolatuta.

Gipuzkoako udalerririk handienek Estatutik iritsitako etorkinak hartu izan dituzte lehenago, eta gero eta atzerriko etorkin gehiago dituzte orain ere. Eibarren, ikastetxe-eskaintza handia da, eta alde handia dago atzerriko ikasleen proportzio handiak dituzten Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxe publikoren eta bertako biztanleriak gehien eskatzen duen beste ikastetxe publiko baten artean. Itunpeko bi ikastetxeetan, berriz, ia ez dago atzerriko ikaslerik eskolatuta. Bigarren Hezkuntzako etapan, eskaintza publikoa bateratu edo elkartu egin da duela gutxi, eta horrek orekatu egin du eskola-mapa osaera sozialaren ikuspegitik. Bestalde, Errenterian, atzerriko ikasleak modu orekatu samarrean daude eskolatuta derrigorrezko hezkuntza-etapa bakoitzean dauden hiru ikastetxe publikoen artean. Itunpeko bi ikastetxeetatik, ikastola da atzerriko ikasle gutxien eskolatzen dituen. Irunen, atzerriko ikasleak, bizi diren auzoaren arabera, Dunboa, Lekaenea, San Migel eta Anaka auzoetako ikastetxe publikoetan daude banatuta nagusiki. Nolanahi ere, kontzentrazio esanguratsuagoak ikus daitezke Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxetan eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean. Halaber, Kristau Eskolako itunpeko ikastetxe batek atzerriko ikasleen proportzio handia eskolatzen du udalerririk horretan.

Bestalde, tamaina ertaineko herrietan (hala nola Ordizian, Beasainen, Andoainen, Arrasaten, Elgoibarren eta Bergaran¹³), eskola-dinamika itunpeko ikastolen eskaintzak baldintzatzen du neurri handi batean. Izan ere, ikastola horiek bertako biztanleriaren eskari handia jaso ohi dute, eta atzerriko ikasleak, berriz, ia ikastetxe publikoetan baino ez dira eskolatzen. Horrek alde esanguratsuak dakartza bi sareetako ikastetxeen osaera sozialean.

Azkenik, herri txikiagoen kasuan, bi sareen eskaintza badago (Eskoriatzan eta Villabonan, adibidez), atzerriko ikasleak sare publikoan eskolatzen dira nagusiki, eta horrek, jaiotzasaren jaitzierarekin batera, aldeak sorrarazten ditu bi sareetako ikastetxeen artean, tamainan zein osaera sozialean. Bestalde, udalerririk eskola-aukera bakarra eskaintzen badu (hala nola Sorluzen eta Tolosaldeko, Donostialdeko edo Goierriko buru diren udalerririk inguruetan dauden herri txikietan¹⁴), atzerriko ikasleen proportzio handiak agertzen dira.

Zumarraga; Lasarte-Oria eta Hernani ere sar litezke talde honetan.
Itsasondo, Ormaiztegi eta Zaldibia, adibidez.



3. EAEko eskola-sisteman aniztasun soziokultural handiena duten ikastetxeen ezaugarriak

Atzerriko immigrazioaren eragina handiagoa da eskola-sistemako zenbait ikastetxetan, eta, zenbait kasutan, ikaskuntza-testuinguruak eta eskola-errendimendua bera baldintzatu ditzaketen beste elementu batzuk agertzen dira.

Ikastetxe horien errealitatean sakontzeko, zenbait ikastetxeri buruzko azterlan bat egin da honako aldagai hauek kontuan hartuta:

- Atzerritar jatorriko ikasleen ehunekoa. Adierazle hori ikaslearen jaioterriaren, nazionalitatearen eta gurasoen jatorriaren arabera aztertu da. Halaber, aniztasun soziolinguistikorako hurbilketa bat egin da jatorriko herrialde zehatzaren eta ama-hizkuntzaren analisiaren bidez.
- Epez kanpo eskolatutako ikasle iritsi berriak. Eskolatzeko Batzordeak eskolatutako ikasle gehien dituzten ikastetxeak hartu dira kontuan (kopuru absolutuei zein ikastetxean bertan eskolatuta dauden ikasle guztiekiko proportzioari dagokienez).
- Ikasle ijitoen ehunekoa (Bizkaian soilik). Azterlan honen xede izan ez bada ere, Bizkaian ijitoen etniako biztanle gehiago bizitzeak adierazle hori kontuan hartzea bultzatu gaitu ikastetxe baten aniztasun soziokulturalari buruzko analisisa osatzeko garaian. Zehazki, ijitoen kolektiboko ikasleak % 10etik gorako proportzioan dituzten ikastetxeak identifikatu dira.
- Beka jaso duten ikasleen ehunekoa. Adierazle horrek familiaren maila ekonomikoari buruzko informazioa ematen digu. Horretarako, ikastetxeko ikasle guztien artean eskola-materialerako beka jaso dutenen ehunekoa eta jantokiaren erabiltzaile guztien artean jantokirako beka jaso dutenen ehunekoa hartu dira kontuan.
- Ikasleen jarraitutasuna/mugikortasuna. Ikasleen jarraitutasuna neurtzeko, etapa bakoitzeko azken ikasturteak hartu dira erreferentzia gisa, eta azken ikasturte horietako ikasleek ikastetxean zenbat urte daramatzaten aztertu da. Adierazle horren bidez, eskola-ibilbidearen erregularatasunerako hurbilketa bat egin daiteke, eta interesgarria da aztertzea, eragina izan baitezake ikastetxeetako irakatsi eta ikasteko prozesuetan eta ikasleen emaitza akademikoetan.
- Emaitza akademikoak¹⁵. Gaitasun instrumentaletan (euskaran, gaztelanian eta matematikan) lortutako emaitza akademikoak eta maila bakoitzean azterketak gainditu dituztenek hirian (Gasteizko laginaren kasuan) edo lurraldean (Gipuzkoaren kasuan) gainditu dituzten guztien taldean duten ehunekoa hartu dira kontuan. Halaber, 2015. urteko diagnostiko-ebaluazioaren emaitzak aztertu ditugu.

¹⁵ Bizkaiaren kasuan, elementu hori Hamaika Esku programan parte hartu duten ikastetxeetan baino ez da kontuan hartu.



- Hamaika Esku programan parte hartzea. Hamaika Esku programan parte hartu duten ikastetxe gehienak batezbestekoa baino emaitza txarragoak dituzten eta, beraz, errendimendu akademiko baxua duten ikastetxeak dira. Halaber, ikastetxearen osaera sozialari eta kokatuta dauden ingurunearen ezaugarri sozioekonomikoei lotutako beste kontsiderazio batzuk hartzen dira kontuan parte hartzeko.

Bestalde, adierazle horien analisia osatzeko, beste aldagai batzuk aztertu dira, hala nola proiektua duen zuzendaritza-taldea eta haren egonkortasun-maila, esleitutako langileak eta ikastetxeek berrikuntzari eta aniztasunaren arretari lotutako proiektu eta deialdietan parte hartu izana.

- Araban, atzerriko immigrazioaren eraginik handiena Gasteizek jasotzen duela kontuan hartuta, aniztasunik handieneko 19 ikastetxe aztertu dira: hamalau HLHI, bi IPI eta Bigarren Hezkuntzako hiru ikastetxe. Bakarra da itunpekoa.
- Gipuzkoan, atzerriko immigrazioaren fenomenoaren hiriburuan eta lurraldeko udalerririk batzuetan islatuta dagoela kontuan hartuta, 29 ikastetxe aztertu dira guztira. Haietatik, bederatzi Donostiakoak dira (bost itunpekoak), eta gainerako 20ak lurraldeko hamabi udalerritan kokatuta daude. 24 Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak dira, eta bost Bigarren Hezkuntzakoak.
- Bizkaian, analisi orokorragoa egin da, ikastetxe zehatzen ezaugarrietan sakondu gabe.

3.1 Gasteizen aniztasun soziokultural handiena duten ikastetxeei buruzko analisiaren ondorioak

Lagineko 19 ikastetxeetan (14 HLHItan, 2 IPItan, 2 BHItan eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxe batean), 2-16 urtekoen etapetan (2016-2017 ikasturtean), hiriburuko ikasle guztien % 20,1 eskolatu dira, hau da, 37.096 matrikuletako 7.446 jaso dituzte.


Aztertutako ikastetxeetako matrikulen bilakaera beheranzkoa da, baina ez oso nabarmena (-% 2,5 2015etik 2017ra bitarte), eta Haur Hezkuntzako matrikuletan izan den beherakada orokorraren ondorioz gertatu da nagusiki. 19 ikastetxeetatik, lautan baino ez du gora egin matrikulazioak azken bi urteetan.

Hizkuntza-ereduak kontuan hartuta, ikastetxeen eskaintza askotarikoa da, baina gehienek D ereduak dute, edo D eredurako bidea egiten ari dira:


- Lehen Hezkuntzako 16 ikastetxeetatik, hiruk baino ez dute A ereduak eskolatzen, seik D ereduak soilik, bik B ereduak eta bostek B/D ereduak.
- Bigarren Hezkuntzako, bi institutu publikoek A ereduak baino ez dituzte plazak eskaintzen, itunpekoak hiru ereduak eskaintzen ditu, eta bi IPIak A eredutik B/D eredurako trantsizioa egiten ari dira.

Aztertutako 19 ikastetxeak bereziak dira osaera sozialari dagokionez, Gasteizen bizi diren atzerriko ikasleen proportziorik handiena eskolatzen baitute.

Ikasleen jatorria kontuan hartuta, % 20 atzerrian jaio dira, baina ikasleen ia % 40k atzerriko nazionalitatea dute. Horrek esan nahi du ikasleen % 20k, EAEn edo Estatuan jaio badira ere, atzerriko nazionalitatea izaten jarraitzen dutela. 5 ikastetxetan (A ereduia duten ikastetxeetan, zehazki), atzerriko nazionalitatea duten ikasleen ehunekoa % 60 baino handiagoa da. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen kasuan, ehunekoa % 70 baino handiagoa da.




Gurasoen jatorriari buruzko analisiak agerian uzten duenez, aztertutako 19 ikastetxeetako zortzik % 80tik gorako proportzioan dituzte aita eta ama atzeritarrak dituzten ikasleak. Beste bi ikastetxe ere ehuneko horretara iristen dira aita edo ama atzeritarrak dituzten ikasleen ehunekoa gaineratzen badugu. Gainerako hamaika zentroetako bakar batek ere ez ditu % 40tik beherako proportzioan aita eta/edo ama atzeritarrak dituzten ikasleak. Gainera, bertako familietako ikasleen kopurua nabarmen jaisten ari da beheko mailetan, eta hautsi egin da bertako ikasleen eta atzerriko ikasleen artean zegoen oreka (ikaslearen erdietan bederen).




Azterlan honen xede diren ikastetxeen errealitateak adierazten digunez, gero eta handiagoa da guraso atzerritarrek dituzten baina EAEn jaio diren ikasleen proportzioa (atzerritar jatorriko ikasleak) atzerrian jaio diren ikasleekin alderatuta. Hori kontuan hartu behar da ikasle horiei eman beharreko tratamendua eta erantzuna planteatzeko garaian. Izan ere, EAEn jaio diren eta haur-hezkuntzako etapatik eskolatu diren ikasleak direnez gero, sozializazio-maila handiagoa dute eta txikiagoa da atzerriko ikasleekin lotuta egon ohi diren defizitak izateko probabilitatea (curriculum-atzerapenak, ingurunea eta hizkuntza ez ezagutzea, familia-deserrotzea eta abar).

Ikastetxe horietako familien jatorriari lotutako beste ezaugarri bat jatorrien aniztasuna da. Grafikoan ikus daitekeenez, aita atzerritarren¹⁶ jatorri geografiko nagusiak honako hauek dira: Europar Batasuna (% 36,8), Afrikako iparraldea (% 19,7), Latinoamerika, Erdialdeko Amerika eta Mexiko (% 18,4) eta Afrikako gainerako herrialdeak (% 13,7). Edonola ere, banaketa hori ez da berdina aztertutako ikastetxe guztietan.




Aitaren informazioa hartu da erreferentzia gisa (amarena kontuan hartu gabe), adierazgarriagoa baita estatistikaren ikuspegitik.

Familien jatorri geografikoari lotuta, azpimarratu beharra dago ikastetxe horietan dagoen hizkuntza-aniztasuna, eta, bereziki, ama-hizkuntza gisa EAEko eskola-sistemako bi hizkuntzetako ezein ez duten ikasleen ehuneko handia. Zehazki, atzerriko 4.643 ikasleetatik, % 28,9k ama-hizkuntza gisa gaztelania duen aita eta/edo ama dute, eta gainerako % 71k ez. Ondorengo grafikoan, aztertutako ikastetxe bakoitzean ama-hizkuntza gisa gaztelania ez duten ikasleen ehunekoa agertzen da.




Ikastetxe bakoitzeko ikasle guztien artean ama-hizkuntza gisa gaztelania ez dutenen proportzioa desberdina da, ondorengo grafikoan ikus daitekeenez. Bi ikastetxetan, ikasle guztien % 30 baino gutxiago dira, bost ikastetxetan % 60 baino gehiago, eta gainerako hamabietan, berriz, % 30-60.




Ikastetxe horietan, gainera, ikasle iritsi berri asko eskolatzen dira. 2017/2018 ikasturtean, otsailera bitarte, 392 ikasle eskolatu dituzte epez kanpo, hau da, Eskolatzeko Batzordeak Gasteizen eskolatutako ikasle guztien % 84,8. Horrek zailtasun espezifikoak dakartza ikasleen hezkuntza-aurrerapena bermatzeko, batez ere bi hizkuntza ofizialetako ezein ezagutzen ez duten ikasleen kasuan.

Nolanahi ere, ikasle iritsi berrien eskolatzek eragin desberdina du aztertutako ikastetxeetan, Batzordearen esleipen-irizpidean hainbat faktore hartzen baitira kontuan, hala nola familien bizilekua, lehentasunak edota ikastetxeetan dauden plazak. Grafikoan ikus

daitekeenez, zortzi zentrotan Gasteizen epez kanpo eskolatutako ikasle guztien % 3 baino gutxiago daude eskolatuta, lau zentrotan % 6 baino gehiago (bereziki deigarriak dira Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen ehuneko handiak), eta zazpitan % 3-6.




Gainera, epez kanpoko eskolatzek ikastetxe bakoitzaren barruan duen eragina desberdina da: 19 ikastetxeetako zortzitan, epez kanpo eskolatutako ikasleak % 3-5 dira, lautan % 3 baino gutxiago, eta zazpitan (A ereduko guztietan eta B ereduko HLHI batean) % 7 baino gehiago.




Epez kanpoko eskolatzek eragin handiagoa du A ereduko ikastetxeetan (Gasteizen, ikastetxe publikoak dira eredu hori eskaintzen duten bakarrak). A eredia eskaintzen duten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxeek Batzordeak etapa horretan Gasteizen eskolatutako epez kanpoko ikasle guztien % 17,3 eskolatzten dituzte. Bigarren Hezkuntzan, aztertutako hiru ikastetxeek epez kanpoko ikasleen % 88,9 eskolatzten dituzte.

Bestalde, ikastetxe horietan ikasle bekadunen proportzio handi bat dago eskolatuta. Beraz, estatus sozioekonomiko baxuko ikasleak direla ondoriozta daiteke:

- Ikastetxeen % 100etan, ikasleen % 60 baino gehiago dira bekadunak, eta hamaika ikastetxetan (ikastetxeen % 60tan) % 70 baino gehiago.



- Lagineko 18 ikastetxe publikoetan, jantokia erabiltzen duten ikasleen % 70 baino gehiago bekadunak dira, eta bederatzi ikastetxetan (erdietan, alegia) % 85 baino gehiago.



Ikasleen jarraitutasunari buruzko analisiari dagokionez, ikastetxe gehienetan jarraitutasuna handia dela adierazi beharra dago:

- Lehen Hezkuntzako ikastetxeen ia % 90etan, ikasleen % 75 baino gehiago Haur Hezkuntzako etapatik edo Lehen Hezkuntzako zikloaren hasieratik daude matrikulatuta (% 90 inguru ikastetxe horietako gehienetan). Beraz, azpimarra daiteke ikasleen mugikortasuna txiki samarra dela ikasturte batetik bestera (% 5etik beherakoa kasu gehienetan).
- Nolanahi ere, 16 ikastetxeetako bostetan (% 31,5etan) % 60 baino gutxiago dira Haur Hezkuntzatik edo Lehen Hezkuntzako zikloaren hasieratik matrikulatuta dauden ikasleak, eta gehienak A eredukoak dira, hau da, epez kanpoko matrikula-proporzio handiena dutenak.

Ikasleek aztertutako gaitasunetan lortutako emaitzei dagokienez, oro har emaitza txarrak ikus daitezke Euskaran eta Matematikan, eta hobeak Gaztelanian (Gasteizko ikastetxeen



batezbeskoaren antzera). Lehen Hezkuntzako etapan, 6. mailan 2. eta 4. mailatan baino emaitza txarragoak lortu dira, eta Bigarren Hezkuntzako etapan, berriz, emaitzak Gasteizko ikastetxeen batezbestekoa baino nabarmen txarragoak izan dira, eta batez besteko nota gutxiegi izan da DBHko 2. mailan eta 4. mailaren zati handi batean. Bigarren Hezkuntzako hiru ikastetxeetako emaitzen bilakaera negatiboa izan da Matematikan. Gaztelanian, berriz, nolabaiteko bilakaera positibo bat agertu da.

Ildo berean, Lehen Hezkuntzako 4. mailaren eta DBHko 2. mailaren 2015eko Diagnostiko Ebaluazioak agerian utzi du ikasle-proporzio handi samarra dagoela hasierako mailatan, batez ere Euskaran, eta % 80tik beherako egokitasun-tasa kasu gehienetan.

Bestalde, analisiari esker egiaztatu ahal izan denez, programa espezifikokoetan (hala nola Hamaika Esku Programan) parte hartzeagatik arauan adierazitakoak baino profesional gehiago daude esleituta aniztasun soziokulturalik handieneko ikastetxe horietan. Hala ere, ikastetxe horien bi herenek baino gehiagok proiektu propioa duen zuzendaritza egonkorrik ez dutenez gero, zailagoa da ikastetxe horien berezitasun propioei erantzutea, eta kontuan hartu behar da haien errealitateak esku-hartze berritzaileagoak eta espezifikagoak behar dituela.



3.2 Gipuzkoan aniztasun soziokultural handiena duten ikastetxeei buruzko analisiaren ondorioak

Laginekoko 29 ikastetxeetan (hogeita bat HLHitan, hiru BHitan eta itunpeko bost ikastetxetan), 9.500 ikasle inguru eskolatu dira 2016-2017 ikasturtean, hau da, Gipuzkoan matrikulatutako ikasle guztien % 10.

Matrikulazioan, egonkortasuna da nagusi; % 0,37ko beherakada bat izan da 2015etik 2017ra bitarte, eta % 0,3ko gorakada 2010etik 2017ra bitarte. Dena dela, beherakada orokor bat gertatu da aztertutako Haur Hezkuntzako ikastetxeen % 70 baino gehiagotan (are handiagoa oinarri gisa 2010. urtea hartuz gero). Ikastetxeen herenetan, beherakada % 20tik gorakoa izan da.

Ikastetxe horietan (bereziki Donostian, Eibarren, Irunen, Ordizian, Andoainen eta Elgoibarren kokatutakoetan), atzerriko ikasleen proportzio handiak daude eskolatuta. Neurri batean, immigrazio-tasarik handieneko herrietan daudelako gertatzen da hori. Ikasleen jaioterria kontuan hartuta, 29 ikastetxeetako ikasleen ia % 12 dira atzerritar jatorrikoak. Zifra hori % 25era iristen da ikasleen nazionalitatea kontuan hartuz gero, eta % 50era, batez beste, gurasoen jatorria kontuan hartuz gero.

- Ikasleak jaio diren herrialdea kontuan hartuta, aztertutako ikastetxe publiko gehienetan % 20 baino gutxiago dira atzerriko ikasleak. Itunpeko bi ikastetxetan, ikasleen % 50 baino gehiago jaio dira atzerrian.




- Nazionalitatearen arabera, ikastetxeen % 70etan atzerriko ikasleak % 20-40 dira.






- Gurasoen jatorria kontuan hartuta, aita atzerritarra duten ikasleak % 20 baino gehiago dira ikastetxe guztietan. 29 ikastetxeetako bederatzitan (hau da, % 31tan), % 60 baino gehiago dira aita atzerritarra duten ikasleak.




Familien jatorri geografikoa desberdina da udalerrien artean. Donostialdean eta Irunen, komunitate latinoa da nagusi (aztertutako ikastetxeetan bederen). Debarbarrenan, Magrebeko ikasleen proportzio handia nabarmentzen da. Oro har, europar jatorria da nagusi, baina baliteke datu hori erabat zuzena ez izatea, bigarren belaunaldiko etorkinak izan baitaitezke.




Ikastetxe horien beste ezaugarri berezi bat ikasleen hizkuntza-aniztasuna da, batez ere aztertutako ikastetxe publikoetan. Bertako gurasorik ez duten ikasleak 3.911 direla kontuan hartuta (hau da, aztertutako 29 ikastetxeetako ikasleen % 62), % 35,2k ama-hizkuntza gisa gaztelania duen aita eta/edo ama dute, eta gainerako % 64,8k ez.

- Ikastetxe publikoen % 75etan, atzerriko ikasleen % 60k baino gehiagok ez dute gaztelania ama-hizkuntza gisa. Itunpeko ikastetxeetan, berriz, atzerriko ikasle gehienek gaztelaniaz hitz egiten dute. Zehazki, 3 ikastetxetan % 60-80k, eta gainerako bietan, berriz, % 40-50ek.




- Ama-hizkuntza gisa gaztelania ez duten ikasleak lau ikastetxetan baino ez dira matrikulatutako atzerriko ikasle guztien % 40 baino gehiago (Eibar eta Ordiziako ikastetxeetan). Gainerako hamabost ikastetxe publikoetan (hau da, guztien % 62,5etan), % 20-40 dira. Itunpeko ikastetxeetan, berriz, % 8-25 dira, ikastetxe horietako atzerriko ikasle gehienak latinoak baitira.




Bestalde, egindako analisiak erakusten duenez, immigrazioaren eraginik handiena jasotzen duten ikastetxeetan Gipuzkoara iritsi berri diren ikasleen proportzio handia eskolatu da. Errealitate hori eta dakartzan zailtasun gehigarriak kontuan hartuta, baliabide espezializatuak behar dira harrera eta hizkuntza-murgiltzea sendotzeko, batez ere ikasle iritsi berrien proportziorik handiena jasotzen duten eta/edo ama-hizkuntza gisa gaztelania ez duten atzerriko ikasleen proportziorik handiena jasotzen duten ikastetxeetan.

Batzordeak epez kanpo eskolatutako ikasleen proportzio handia ikastetxe horien elementu bereizgarri bat da. Aztertu diren 29 ikastetxeetan, 651 ikasle eskolatu dira epez kanpo, hau da, ikastetxe horietan matrikulatutako ikasleen % 6,8, Gipuzkoara iritsi berri diren ikasle guztien % 51,6 (zifra handia da, kontuan hartuta 29 ikastetxe horietan Gipuzkoan matrikulatutako ikasle guztien % 12,5 daudela) eta ikastetxe horiek dauden udalerrietara iritsi berri diren guztien ia % 80.

Ikasle horiek Lehen Hezkuntzan Haur Hezkuntzan baino banatuago daude. Ikasle iritsi berrien proportzioa Lehen Hezkuntzako 7 ikastetxetan (% 26tan) eta Haur Hezkuntzako 9 ikastetxetan (% 34tan) baino ez da % 3 baino handiagoa. Bigarren Hezkuntzan, berriz, aztertutako hiru ikastetxeetan Gipuzkoara iritsi berri diren ikasle guztien % 5 baino gehiago daude eskolatuta.




Ikasle iritsi berrien proportzioari dagokionez, 13 ikastetxetan (% 45etan) ikasleen % 5 baino gutxiago dira, eta 11 ikastetxetan (% 38tan), berriz, matrikulatutako ikasle guztien % 10 baino gehiago.



Aldi berean, ikasle bekadunen proportzio handia duten ikastetxeak dira, eta, oro har, 2010. urteaz geroztik izan den bilakaera ez da neurri handian aldatu. Jantokiko beka familien maila sozioekonomikoak neurri handian baldintzatzen duela kontuan hartuta, ikastetxe horiek maila sozioekonomikorik baxueneko ikasleak eskolatzen dituztela ondoriozta daiteke.

- Ikastetxe publikoen % 87,5etan, ikasleen % 50 baino gehiago dira bekadunak, eta ikastetxeen % 62,5etan % 60 baino gehiago.
- Jantokiko beka dutenen zifrak handiagoak dira: ikastetxeen % 80 baino gehiagotan, jantokia erabiltzen duten ikasleen % 60 baino gehiago bekadunak dira, eta % 50etan % 80 baino gehiago.



Ikasleen jarraitutasuna handi samarra da, baina ikastetxe horiek jasotzen dituzten ikasle iritsi berrien proportzioaren alderantziz proportzionala da. Beraz, jarraitutasun-mailak behera egingo duela pentsa daiteke, batez ere ikasturtearen barruan ikasle berrien proportziorik handiena jasotzen duten udalerrietako ikastetxeetan (Donostian, Eibarren, Irunen eta Ordizian).

- Lehen Hezkuntzako 21 ikastetxeetako 18tan (hau da, aztertutako ikastetxe publikoen % 85etan), Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 80 baino gehiago (% 90 inguru gehienetan) Haur Hezkuntzatik edo Lehen Hezkuntzako zikloaren hasieratik daude matrikulatuta.
- Itunpeko bost ikastetxeen artean, bik % 70etik beherako ehunekoa dute Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen jarraitutasunari dagokionez. Atzerriko ikasleen eta ikasle iritsi berrien ehunekorik handienak dituzten bi ikastetxeak dira.

Ikastetxe horietako ikasleen emaitza akademikoei dagokienez, barne-ebaluazioen emaitzak ez dira nabarmentzen Gipuzkoako batez besteko emaitzak baino txarragoak izateagatik. Lehen Hezkuntzan, aztertutako ikastetxeetan nahikoa lortu dutenen kopurua handi samarra da, eta batezbestekoa Gipuzkoaren antzekoa da (txikixeagoa Euskarari eta Lehen Hezkuntzako 6. mailan). Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, oro har, emaitzak Gipuzkoako batez bestekoen antzekoak (edo hobeak) izan dira. Nahikoa lortu duten ikasleak % 70 baino gehiago dira, eta aztertutako gaitasunetan lortutako batez besteko nota 5-7 izan da.

Ilido berean, ikastetxe publikoen 2015eko Diagnostiko Ebaluazioaren emaitzek adierazten dutenez, Euskara da hasierako mailan dauden ikasleen ehunekorik handiena duen eta maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekorik txikiena duen gaitasuna. Aitzitik, Gaztelanian ia ez dago ikaslerik hasierako mailan, eta ikastetxe gehienek gutxienez ikasleen % 10 dituzte maila aurreratuan. Gainera, ebaluazio horretan neurtutako egokitasun-tasa handi samarra da: 24 ikastetxe publikoetako hamabostetan, egokitasun-tasa % 80 baino handiagoa da, eta bost ikastetxetan % 90 baino handiagoa. 24 ikastetxe publikoetako hiruk, berriz, % 70etik



beherako egokitasun-tasa dute. Nolanahi ere, ikastetxe bat nabarmentzen da oso tasa txikia izateagatik (% 32ko tasa zehazki).

Bestalde, aztertutako ikastetxe publikoen baliabideei buruzko analisitik ondoriozta daitekeenez, esleituta dituzten pertsonen edo profesionalen kopurua Gipuzkoako ikastetxeen batez bestekoa baino handiagoa da, oro har. Dena dela, gaur egun ikastetxe horien erdiek proiektu propioa ez izateak zaildu egiten du, zalantzarik gabe, ikastetxe horien berezitasunei erantzuteko aukera. 2017-2018 ikasturtean, aztertutako 24 ikastetxeetako seik baino ez dute zuzendaritza egonkor bat proiektu propioarekin. Nolanahi ere, hamahiru ikastetxek (erdiek baino gehiagok) zuzendaritza bera izan dute azken bi ikasturteetan. 2018ko deialdian, bikoiztu egin da proiektu propioa aurkeztu duten ikastetxeen kopurua, eta hamabira iritsi da.

Era berean, parte-hartze handi samarra izan da prestakuntza- eta berrikuntza-deialdietan. Ikastetxe publikoen erdiek baino gehiagok (24 ikastetxe publikoetako hamabostek, hau da, % 62,5ek) Bikaintasunerantz programan parte hartzen dute modalitateren batean, eta 24 ikastetxeetako bost baino ez dira ezerein deialditan parte hartzen ez dutenak. Hamaika Esku programan, berriz, 24 ikastetxeetako lauk baino ez dute parte hartzen, eta, horien artean, bi baino ez dira hasieratik parte hartzen dutenak.


3.3 Bizkaian aniztasun soziokultural handiena duten ikastetxeei buruzko analisiaren ondorioak

Ondoren, Bizkaian aniztasunik handiena duten ikastetxeen ezaugarriak aipatuko ditugu, adierazitako aldagaien arabera: atzerriko nazionalitatea duten ikasleen ehunekoa, ikasle ijitoen ehunekoa, ikasle bekadunen ehunekoa eta Hamaika Esku programan parte hartzen duten ala ez.


Lehenik eta behin, adierazi beharra dago aniztasun soziokulturalik handieneko ikastetxe gisa identifikatutako 79 ikastetxeetako 35ek (% 44k) Hamaika Esku programan parte hartzen dutela.

79 ikastetxe horietatik, 67 publikoak dira, eta gainerako 12ak itunpekoak¹⁷. 67 ikastetxe publikoetatik, 50 Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak dira, 16 institutuak, eta beste bat ikastetxe integratua.


¹⁷ Itunpeko ikastetxeek Hamaika Esku programan parte hartu ez izanak eragina izan du proportzio horretan seguruenik, aniztasunik handieneko ikastetxeen identifikazioan baloratu den elementu bat izan baita.



Ikastetxeen % 78 Bilboaldean kokatuta daude. Zehazki, ikastetxeetako 34 (% 44) Bilbon daude, 19 (% 24) ezker aldean eta % 10 eskuinaldean.



Atzerriko nazionalitatea duten ikasleen eskolatze-mailari dagokionez¹⁸, 79 ikastetxeetako hamabostetan atzerriko ikasleak % 12 baino gutxiago dira, eta seitan % 40 baino gehiago (hiru publikoak dira, eta beste hiru itunpekoak), ondorengo grafikoan ikus daitekeenez:




Kasu honetan, ezin izan da lortu ikasleen eta haien familien jatorriari buruzko informaziorik. 2018ko otsailaren 28ra bitarte.



Eskolatzeko Batzordeak ikastetxe horiei esleitutako epe kanpoko ikasleen eskolatzeari buruzko analisi batetik, honako ondorio hauek atera daitezke:


- Identifikatutako 79 ikastetxeetako 30etan (% 40 ingurutan), urtean bi ikasle iritsi berri baino gutxiago eskolatzen dira: hamar ikastetxetan, Batzordeak ez du ikaslerik eskolatu, bederatzitan ikasle bakar bat, eta 11 ikastetxetan bi. Izan ere, Eskolatzeko Batzordearen irizpideetako bat aniztasun soziokulturalik handiena duten ikastetxe horiek ikasle iritsi berrien ehuneko handi bat eskolatu beharrak dakarren zailtasunaz babestea da.
- Bizkaiko Eskolatzeko Batzordeak ikasle iritsi berriak era orekatuan banatzeko asmoarekin jardun badu ere, 79 ikastetxeetako hamabostetan (hau da, % 19tan) hamar ikasle baino gehiago eskolatu ditu epe kanpo. Hainbat arrazoiengatik gertatu da hori: itunpeko ikastetxeetako batean, bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrak bildu dira nagusiki; itunpeko beste ikastetxe batzuetan, familien zuzeneko eskaria oso handia izan da; ikastetxe publiko batzuetan, zifra handi hori familien zuzeneko eskarien oso proportzio txikia da; ikastetxe publiko batzuk babestu nahi badira ere, iristen diren familia batzuek seme-alaba asko dituzte, eta ezin dira beste ikastetxe alternatibo batzuetan elkarrekin eskolatu, plazarik ez dagoelako.
- Batzordeak eskolatutako ikasleek ikastetxeetan duten proportzioa desberdina da zenbait faktoreren arabera, hala nola ikastetxearen tamaina, kokapena, familiaren lehentasunak edo ikastetxearen osaera soziala. Adibidez, hamar ikastetxetan Batzordeak ez du matrikulaziorik egin, hamabost ikastetxetan Batzordeak eskolatutako ikasleen proportzioa % 1 baino txikiagoa izan da, 26 ikastetxeetan % 1-2, hamaika ikastetxetan % 2-3, bi ikastetxetan % 3-4, sei ikastetxetan % 4-5 eta bederatzita ikastetxetan % 5 baino handiagoa.




Bestalde, Bizkaian aniztasun sozioekonomikorik handiena duten ikastetxeen % 30etan eskolatutako ikasle ijitoak % 10 baino gehiago dira. Zehazki, 79 ikastetxeetako 27tan dira



eskolatutako ikasle ijitoak % 10 baino gehiago: hamalau ikastetxetan % 10-20 dira, hiru ikastetxetan % 20-40 eta hamar ikastetxetan %40tik gora.



Identifikatutako ikastetxeetan eskolatutako ikasle bekadunen ehunekoaren aldagaiari buruzko analisiaren arabera, azpimarratu beharra dago ikastetxeen % 50 baino gehiagotan ikasle bekadunen ehunekoa %70 baino handiagoa dela. 79 ikastetxeetako 42tan, ikasle bekadunak % 70 baino gehiago dira (19 ikastetxetan % 80 baino gehiago), eta 37tan, berriz, % 70 baino gutxiago (26 ikastetxetan % 60 baino gutxiago).



Azpimarratu beharra dago ikasle bekadunak % 70etik gorako proportzioan dituzten ikastetxeetako bostek ez dutela atzerriko ikasleen ehuneko handirik (% 12tik gora), ezta ikasle ijitoen ehuneko handirik (% 10etik gora) ere.



4. Eskolatzere bereizitua ikasleen jatorriaren arabera. Fenomenoaren inguruko hurbilketa

Ikasleen eskolatzere bereizitua fenomeno konplexua da, modu askotan islatzen da eta hainbat faktoreri erantzuten die. Faktore horien artean, azpimarratu beharrekoak dira lurraldeen hiri-egitura soziala, ikastetxeen kokapen geografikoa, gizarte-desberdintasunak eta ikastetxea aukeratzean agertzen diren eta familien aukera-lehentasunak eta patrio bereizgarriak dakartzaten prozesu soziologikoak. Eta familien aukeraketa libreari eskola-eskaintza zabala eta askotarikoa gaineratzen zaionean, bereizketa-dinamikak ager daitezke eskolatzere-prozesuan.

Gaur egun, oraindik ez da adostasunik lortu eskolatzere bereizituaren edo segregazioaren definizioaren inguruan, baina askoren ustez, ikasle talde jakin batek jatorri sozial, kultural, etniko edo erlijiosoaren arabera lurralde bereko eta hezkuntza-maila bereko ikastetxeen artean duen banaketa desberdina da.

Segregazioa bi dimentsiotan oinarrituta neur daiteke: talde jakin baten eskolatzerearen desoreka-maila neurtzen duen uniformetasunean, eta pertsona batek bere taldean duen isolamendu-maila neurtzen duena.

Uniformetasunaren dimentsioa neurtzeko indizek erabilienetako bat Gorard indizea da¹⁹. Berriki egindako azterlan baten arabera²⁰, Euskadik 0,27ko indizea du, eta laugarren lekuan dago indizek handienak dituzten Autonomia Erkidegoen artean, Madril (0,36), Kataluniaren eta Errioxaren atzetik. Hala ere, Euskadiko indizea Espainia osoan lortutakoa baino txikiagoa da (0,31 Espainia osoan). Iturri horren arabera, eskola-segregazioak gora egin du Euskadin azken urteotan (% 8,7ko igoera 2006tik 2015era bitarte), baina Espainian baino neurri txikiagoan (% 13,4ko igoera 2006tik 2015era bitarte). Europako herrialdeekin alderatuta, Euskadiko segregazio-indizea Danimarkako, Erresuma Batuko edo Herbehereetako indizearen antzekoa da, Irlanda, Kroazia, Polonia, Suedia edo Finlandiakoa baino handiagoa (Finlandia da indizek txikiena duena: 0,23), eta Austria, Portugal, Alemania, Frantzia, Italia eta Belgikakoa baino txikiagoa (0,3 baino handiagoa herrialde horietan).

Indize honek talde minoritario baten proportzioaren eta taldeko kideen guztizkoaren arteko diferentzia adierazten du. Iturria: Murillo F-k eta Martínez-Garrido C-k (2018) PISA 2015 azterlaneko informazioarekin egindako azterlana.



4.1 EAEko eskola-sisteman eskolatze bereizitua azaltzen duten faktoreak

Hainbat arrazoi daude EAEko eskola-sisteman ikasleen eskolatzea jatorri sozioekonomikoagatik desberdina izateko, eta, neurri handi batean, analisi honen xede den immigrazioaren fenomenoaren aurrekoak dira. Dena dela, onartu beharra dago atzerriko ikasleen etengabeko etorrerak, bizileku-kontzentrazioagatik, eskola-aukeraketan agertutako lehentasunengatik eta bertako biztanleriaren “ihes-efektuagatik”, besteak beste, eskola-sistemaren gizarte-kohesioa murrizten duten desoreka-egoerak sortu dituela. Nolanahi ere, eskola-segregazioaren fenomeno edo ikastetxeen osaera sozialean agertzen diren desorekak ikasle etorkinen etorreragatik soilik gertatzen direla esatea ikuspegi erredukzionista bati jarraitzea da.

Faktoreei dagokienez, atzeritar jatorriko biztanleriaren fluxua eta bizileku-segregazioa handiagoa da hiru hiriburuetan (bereziki Gasteizen, eta neurri txikiagoan Bilbon eta Donostian) eta hiru lurraldeetako udalerrri jakin batzuetan²¹, eta horrek eragina izan du eremu horietako eskola-maparen orekan.

Ikasleen jatorriaren ondoriozko eskolatze desberdintasunean eragina duen beste faktore bat EAEn dagoen askotariko eskola-eskaintza da: ikastetxe publikoak, publikazio bidez elkartu zirenak, eta ideia eta hezkuntza-proiektu desberdinak dituzten itunpeko sareko ikastetxeak (erlijiosoak, ikastolak, kooperatibak eta abar). Edonola ere, askotariko errealitate horren eragina desberdina da lurralde bereko udalerrietan. Izan ere, Gipuzkoan eskola-eskaintza duten 78 udalerrietako hamarrek, Bizkaiko 112 udalerrietako hemezortzik eta Arabako bost udalerririk baino ez dute eskaintza bereziaz. Bestalde, EAEko atzeritar jatorriko biztanleetako asko bizi dira udalerrri horietan.

Titulartasunaren araberako bereizketa horri hiru hizkuntza-eredu egotea gaineratu behar zaio, horrek ere baldintzatu baitu ikastetxeen osaera soziokultural desberdina. A ereduak iraun duen ikastetxeek edota B eta D erduetarako trantsizioa beranduen egin duten ikastetxeek jaso dute eta jasotzen dute, oro har, atzerriko biztanleriaren eskaera-proporziorik handiena. Nolanahi ere, egindako diagnostikoan azpimarratuenez, atzeritar jatorriko ikasleak sisteman sartzeko prozesuan gero eta garrantzi txikiagoa duen faktorea da.

Eskola-eskaintzaren aniztasunak familiek (eta, batez ere, aukerak baztertzeko ahalmenik handiena duten familiek) ikastetxea aukeratzean agertutako lehentasunen segmentazio handiagoa bultzatu du. Bestalde, eskaintzaren aniztasunak neurri txikiagoan baldintzatzen du atzerriko familien aukeraketa. Izan ere, familia horiek, hasierako finkatze-fasean bederen,

Nagusiki honako hauetan: Irun, Eibar, Errenteria, Ordizia, Beasain, Arrasate, Hernani eta Lasarte-Oria Gipuzkoan, Durango, Gernika, Zornotza, Ermua, Mungia eta Markina Bizkaian, eta Arabako Errioxako udalerrriak eta Oion Araban.



hurbiltasuna, irakaskuntzaren doakotasuna eta berdinekiko lotura lehenesten dituzte nagusiki.

Era berean, eskola-aukeraketaren prozesuak landu dituzten azterlan batzuek diotenez²², ikastetxearen osaera sozialak hezkuntza-proiektu jakin batek adina eragina dauka, eta familia batzuek behin betiko aukeraketa egin aurreko baztertze-prozesuetan eragiten du nagusiki. Horri lotuta, ikastetxeen osaera sozialean desoreka gehien dituzten eskola-eremuetan neurri handiagoan agertzen diren erakarpen-patroiak eta ihes-patroiak azpimarratu behar dira.

Zenbait egilek²³ diotenez, ihes-patroiak gizarterik garatuenetako familiek hezkuntza-inbertsioari ematen dioten garrantziagatik eta gune sozialki homogeenak, gizarte- eta hezkuntza-testuinguru aberatsagoak eta kapital kultural eta sozial handiagoa bilatzeak seme-alabei hezkuntza- eta lanbide-arrakasta handiagoa bermatuko diela ulertzen dutelako agertzen dira. Bestalde, soziologiak agerian utzi duenez, atzeritik iritsi berriak diren familiak, lehen fasean bederen, beren berdinak dauden lekuan kokatzen dira, eta hainbat arrazoi dituzte horretarako: afektiboak, ekonomikoak, edota segurtasunari, sareari, komunitateari eta babesari lotutakoak.

Ikasleen eskolatze bereizitua ezin da eskola-sareen bereizketaren logikatik soilik ulertu. Izan ere, txosten honen bigarren atalean agerian geratu denez, sare bakoitzaren barruan ere badaude aldeak atzerriko ikasleen eskolatzeari dagokionez. Oro har, eskolatutako atzerriko ikasleen proportzioa handiagoa da sare publikoan, baina badaude atzerriko ikasleen proportzio txikia duten ikastetxe publikoak (baita immigrazio-tasa handiak dituzten eremu geografikoetan ere) eta atzerriko ikasleen ehuneko handiak eskolatzten dituzten itunpeko ikastetxeak ere, hiru lurraldeetan. Horrela, beraz, honako ikastetxe hauek identifikatu dira diagnostiko honen bidez:

- Atzerriko ikasleen proportzio handia duten itunpeko sareko ikastetxeak, hiru hiriburuetan zein honako udalerrri hauetan: Getxo, Ondarroa, Gernika-Lumo, Durango eta Bermeo Bizkaian, Azkoitia, Irun, Errenteria eta Hernani Gipuzkoan, eta Laudio Araban.
- Atzerriko ikasleen proportzio txikia duten ikastetxe publikoak, hiru hiriburuetan zein biztanle etorkin ugari dituzten honako udalerrri hauetan: Barakaldo, Basauri, Gernika, Leioa, Santurtzi eta Portugalete Bizkaian, eta Beasain, Irun eta Eibar Gipuzkoan.

Honako hau, adibidez: "Les familles devant l'elecció escolar". - Fundació Jaume Bofill. La política educativa ante el reto de la segregación escolar en Cataluña. Bona 2018.



Atzerriko ikasleak sare publikoan itunpekoan baino proportzio handiagoan eskolatzea, ikusi dugunez, patroi eta baldintza sozioekonomiko jakin batzuen ondorioa da, baina, neurri batean, sare publikoak itunpekoak baino ikastetxe-estaldura handiagoa eta hurbilagoa eskaintzearen eta, oro har, sare publikoan itunpekoan baino plaza huts gehiago egotearen ondorioa ere bai.

Adierazitakoez gain, badaude eskola-eremu jakin bateko eskola-sisteman uniformetasun edo oreka sozial handiagoa edo txikiagoa dakarten beste faktore batzuk ere hezkuntza-eremutik kanpo, hala nola hirigintza-segregazioa, aniztasun soziokulturala eta hizkuntza-aniztasuna, eta testuinguru geografiko jakin bateko desberdintasun sozioekonomikoa. Gizarteek barne-hierarkia bati jarraitzen diote, eta hierarkia hori elementu guztietara helarazten da, baita hezkuntza-sistemara ere.

Beraz, ondoriozta dezakegu ikasleen eskolatzearan bereizketa eragin duten dinamika sozialak eta alderdiak askotarikoak direla, tokiko testuinguru guztietan modu berean islatzen ez direla, eta atzerritar jatorriko immigrazioaren fenomeno berriari soilik erantzuten ez diotela, harrez geroztik agerikoagoa eta handiagoa bada ere.

4.2 EAEko zenbait ikastetxetan atzerritar jatorriko ikasleen kontzentrazioa azaltzen duten faktoreak

Txosten honen bigarren eta hirugarren ataletan egindako analisiak islatu duenez, atzerritar jatorriko ikasleen kontzentrazioak agertzen dira EAEko eskola-sistemako hainbat ikastetxetan.

Kontzentrazio handiko ikastetxeak definitzeko adostasunik ez badago ere, azterlan honetan ikastetxe batean atzerriko ikasleak (atzerriko gurasoak eta jatorria dituztenak barne) ikasle guztien % 50 baino gehiago direnean ulertuko dugu ikastetxe horrek atzerritar jatorriko ikasleen kontzentrazio handia duela.

Aurtengo matrikulazioari buruzko datuen arabera, eta azterlan honen bigarren atalean aztertutako informazioan oinarrituta, kontzentrazio handiko 44 ikastetxe identifika daitezke gure eskola-sisteman, hau da, gure sistemako lehen- eta bigarren hezkuntzako %5,05 ikastetxe:

- Lehen Hezkuntzako etapan, kontzentrazio handiko 32 ikastetxe daude (EAEko lehen hezkuntzako %6 ikastetxe): 12 Araban kokatuta, 14 Bizkaian eta 6 Gipuzkoan.
- Bigarren Hezkuntzan, kontzentrazio handiko 12 ikastetxe daude (EAEko bigarren hezkuntzako %3,6 ikastetxe): 2 Araban kokatuta daude, 6 Bizkaian eta 4 Gipuzkoan.



Ikus daitekeenez, proportzioa desberdina da lurraldeen arabera, eta oso nabarmena Gasteizen. Gasteizen, gainera, kontzentrazioaren fenomenoari hurbiltasuna gainjarri zaio. Beste era batean esanda, Gasteizeko kontzentrazioa eremu geografiko txiki batean gertatzen da, eta kontzentrazioaren fenomenoari pertzepzioa gaineratu behar zaio.

Txosten honen norainokoak eskola-eremuan gertatzen den atzerriko ikasleen kontzentrazioaren arrazoiak sakonean aztertzeke eta balidatzeko aukerarik ematen ez badu ere, aztertutako informazioak ahalbidetzen du fenomenoaren ulertzen laguntzen duten elementu batzuk identifikatu edo baztertzea.

Alde batetik, bizilekua EAEko eremu jakin batzuetan²⁴ ezartzen duten atzerriko biztanleriaren proportzio handiak zuzeneko eragina du, txosten honen 2.4 atalean ikus daitekeenez, udalerririk horietako ikastetxeek duten atzerriko ikasleen proportzio handian, eta kontzentrazio handiak gertatzen dira eskola-eskaintza bakarra duten udalerrietan (udalerririk txikienetan) eta hezkuntza ereduaren eskaintza desberdina duten udalerrietan.

Testuinguru geografiko horietan, segregazio espazialak eta profil jakin bateko auzoetan²⁵ (etxebizitza merkeagoak dituzten eremu/auzo zahartuetan edo errentarik txikienekoetan zein diruz lagundutako etxebizitzak dituzten auzo berrietan) atzerriko biztanleriaren kontzentrazio handiagoa egoteak kontzentrazioak eragiten dituzte auzo horietako ikastetxeetan, eta ikastetxe horietako gehienak publikoak dira. Dinamika horrekin batera, bertako biztanleriaren ihes-efektu bat agertzen da maiz, eta areagotu egiten da biztanle horiek atzerriko biztanleak baino gutxiago direla sentitzen dutenean. Horren ondorioz, auzoko osaera sozialarekin bat ez datorren kontzentrazio handiagoa sortzen da erdialdean.

Hala ere, atzerriko biztanleen bizileku-kontzentrazioak ez du argitzen zergatik biltzen diren atzerriar jatorria duten ikasleak ikastetxe jakin batzuetan, eta ez udalerririk edo auzo bereko eta, zenbaitetan, eskola-sare bereko beste batzuetan (horixe gertatzen da hiru hiriburu-tako auzo jakin batzuetan edo udalerririk batzuetan, hala nola Eibarren, Beasainen, Basaurin, Sestaon eta Getxon). Horrek agerian uzten du badirela hain eragin handia edo handiagoa duten beste elementu batzuk ere, hala nola ikastetxearen profila, alde aurreko osaera soziala eta arestian aipatutako erakarpen- eta ihes-logikak. Horren adierazgarri, aipatu beharra dago Eskolatzeke Batzordeak atzerriko ikasleen proportzio txikia duten ikastetxeei esleitutako ikasle iritsi berrietako batzuek ez dutela ikastetxe berean jarraitzen, eta osaera antzekoagoa duten ikastetxeetara lekualdatzen direla, babes komunitarioaren bila.

Arabian: Gasteiz eta, neurri txikiagoan, Arabako Errioxa; Bizkaian: Bilboaldea, Zornotza, Durango, Gernika, Mungia, Ermua eta Markina); Gipuzkoan: Donostia eta barnealdeko udalerririk batzuk, hala nola Errenteria, Irun, Eibar, Elgoibar, Sorluze, Ordizia eta Beasain). Bilbon: Miribilla, San Frantzisko, Errekalde, Ibaiondo eta Deustu; Donostian: Bidebieta, Altza, Herrera eta Amara; eta Gasteizen: Zabalzana, Salburua eta erdialdea.



Alderdi horiek areagotu egiten dira Bigarren Hezkuntzako etapan. Izan ere, etapa horretan atzerriko ikasleak neurri handiagoan joaten dira profil jakin bat duten ikastetxeetara, hezkuntza-eskaintzagarik (gaztelaniazko ereduak eta ibilbide malguagoak) zein ikastetxearen osaera sozialagarik (antzeko jatorria duten ikasleak), nahiz eta ikastetxe berriak beren bizilekutik urrun egon.

Horrela, beraz, hizkuntza-ereduak eragina izan du atzerritar jatorriko ikasleen (eta batez ere eskolatze berantiarreko ikasleen) kontzentrazio handia duten ikastetxe gehienen osaera sozialean, bereziki Gasteiz eta Bilboko A ereduko ikastetxe publikoetan eta B edo D eredurako trantsizioa beranduen egin duten Gipuzkako ikastetxeetan (hala nola Donostia, Irun, Eibar eta Errenterriko ikastetxeetan). Hala ere, kasuistika horrek (eskolatze berantiarrek eragiten duenean izan ezik) gero eta garrantzi txikiagoa izango du.

Nolanahi ere, sare publikoko hasierako mailetan D ereduko eskaintza da nagusi gaur egun, eta faktore hori dagoeneko ez da hainbat lekutan (eta, zehazki, Gasteizen) agertu diren kontzentrazio handien faktore erabakigarri bat. Horren adierazgarri, Haur Hezkuntzako etapan atzerriko ikasleen kontzentrazio handiak dituzten (eta azterlan honen hirugarren atalean aztertu diren) Gasteizko 16 ikastetxeetako 11 D edo B/D eredukoak dira. Beraz, Gasteizen kasuan bederen, esan daiteke arestian aipatu ditugun faktoreek (ikastetxearen hurbiltasunak eta osaera sozialak) eta irakaskuntzaren doakotasunak hizkuntza-ereduak baino garrantzi handiagoa dutela atzerriko familiek ikastetxea aukeratzeko garaian.

Azkenik, azpimarratu beharra dago immigrazioaren eraginik handiena jasotzen duten udalerrietakoren batean eskaintza zabala eta berezia egoteak zuzeneko eragina duela ikastetxeen osaera sozialean ager daitezkeen desoreketan, eskola-sareen arteko bereizketa kontzentrazio handi horien arrazoi bakarra ez bada ere. Bigarren atalean ikusitakoaren arabera, hiru lurralde historikoetan daude kontzentrazio handiak dituzten itunpeko ikastetxeak, eta arrazoiak arestian adierazitakoak izan daitezke, baina konpromiso sozialari lotutako faktoreak ere badaude.



5. Erronkak eta esku hartzeko proposamenak

Egindako diagnostikoak aukera ematen du gure erronkak eta lehentasunak identifikatzeko eta dimentsionatzeko gero eta askotarikoagoa eta anitzagoa den gure eskolan. Garai berriek eskatzen dute kohesio eta zuzentasun handiagoaren alde elkarrekin aurrera egitea.

Jaiotza-tasaren jaitsiera jarraituak EAEn, atzerriko immigrazioaren hazkundearekin batera, gure lurraldearen aldatu egin du osaera soziala, eta, ondorioz, gure eskola-sistemarena. Horrek eragin handiagoa du aniztasun sozial handiagoa duten zenbait eremutan.

Egungo joera demografikoei erreparatuta, lehentasuna du eskola-sisteman kohesioa eta oreka lortzeko neurriak garatzeak, eta, aldi berean, ikasle guztien arrakasta lortzea helburu duten kalitatezko hezkuntza-proiektuak bultzatzeak.

5.1 Erronkak

Diagnostiko honen bidez identifikatutako erronkak lehentasunezko zazpi lerrotan laburbil daitezke:

E1. Sarbidea aukera-berdintasunez bermatzea.

Aukera-berdintasuna eta hezkuntza-ekitatea ziurtatzeko funtsezko elementua da eskola-sistemara sartzeko familia guztientzako baldintza berberak bermatzea, arreta berezia jarrita behar bereziak edo berariazkoak dituzten haurren eskolatzean, gizartearen eta hezkuntzaren arloetan ahulezia handiena baitute.

Horretarako, beharrezkoa da ikastetxearen aukeraketa-patroiak analizatzea, inpaktua ebaluatzea eta, hala badagokio, matrikula bizia eskuratzeko eta kudeatzeko irizpideak egokitzea, eta ikastetxe guztien aldetik ikasleen onarpena eta harrera inklusiboa bultzatzea (edozein profil dutela ere).

Gainera, atzerriko biztanleen ezagutza partziala izan daiteke —bereziki, gure sistemara iritsi berriak direnena—, bertako eskola-errealitateari dagokionez —kasu batzuetan, ez da zehatza ere—, beharrezkoa da herritarrengandik hurbilen dauden zerbitzuekin batera ahalegina egitea, haien seme-alabak eskolatzeko garaiaren aurretik beharrezko informazioa helarazteko.

E2. Ikastetxeen osaera sozialean oreka eta eskola-sistemaren kohesio handiagoa sustatzea. Ikastetxeen osaera sozialean oreka bilatzeak eskola-sistemaren kohesio handiagoa ekarriko du berekin; eta, aldi berean, gizartean eta hezkuntzan ahulezia handiena duten kolektiboen bizikidetzak, gizarteratzea eta eskola-arrakasta bultzatuko dira.



Testuinguru honetan, familien lehentasuna eskola aukeratzeko eta ikaspostuen esleipenaren arteko egokitasuna bereziki handia da. Hortaz, hezkuntza-plangintzako politikak eta tresnak indartu egin behar dira beste neurri batzuen bidez, zenbait eskola-eremutan sortzen diren desorekak saihesteko. Gainera, plangintza- eta kontrol-tresnen eraginkortasuna ere aldakorra da tokiko testuinguruaren arabera. Izan ere, eraginkortasun hori zenbait faktoreren mende dago, hala nola: lurraldearen egitura soziala, bizitegien banaketa, ikastetxeen kokapena edo herritarren mugikortasun-jarraibideak. Horrek guztiak eskatzen du tokiko testuinguruetara iristeko plangintza- eta sarbide-politikak egokitzea eta tokiko erakundeekin lankidetzan aritzeko erronkari aurre egitea.

E3. Bizikidetzaren positiboa bultzatzea eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren ardatz egituratzaile gisa, guztion eskola-arrakasta bermatzeko.

Mundu globalizatu eta anitz honetan, elkartzeko, gizarteratzeko, errespetatzeko eta garapen indibiduala eta kolektiboa bultzatzeko gunea izan behar du eskolak. Eskola anitza eta inklusiboa sustatzeak —bizikidetasun positiboaren parametroen pean— gehienek bere gain hartutako printzipioa izan behar du; eta gure gizartearen eta, erantzukizun sozial nabarmenez, zerbitzu publikoa egiten duten ikastetxe guzti-guztien helburu izan behar du.

Hezkuntza inklusiboaren arrakasta orokorrak euskal hezkuntza-sisteman eztabaidaezinak direnez, aurreikus daiteke atzerriko biztanleen eskola-arrakasta gutxi-asko handia ere baldintzatuta dagoela, eta horrek etorkizunean baldintzatuko duela haien presentzia handiagoa izango duten ikastetxeen erakargarritasuna. Ildo horretatik, bizikidetzaren positiboaren garapenean sakondu behar da, hezkuntzaren alorreko politiken eta programen ardatz egituratzaile gisa; eta horrek ezinbestean eskatzen du egun dugun aniztasuna aintzat hartzea, mota orotako diskriminazioa gainditzea, ikasle taldeak kohesionatzea eta ikasle guztientzat ikasteko aukera-berdintasuna bermatzea, bikaintasuna eta ekitatea sustatuko dituzten kalitatezko hezkuntza-proiektuak garatuta.

E4. Etorri berri diren atzerriko ikasleen harrera egokia erraztea eta hezkuntza-erantzuna egokitzea haien inklusioa eta eskola-arrakasta ahalbidetzeko.

Epez kanpo eskolatu behar diren ikasleak mailaka areagotzeak eskatzen du —batez ere, bakarrik dauden adingabeen edo adinez aurreratuta iristen direnen kasuan— lurraldeko egokitzea, eskolatzeko-batzordeen irizpideak etengabe berrikustea eta beharrezko baliabideak esleitzea, behar bezalako harrera eta eskola-arrakasta izan ditzaten.

Gizarte- eta hezkuntza-alorrean egokitzeko beharrezko gainera, oro har, ikasle iritsi berriek beren jatorrizko herrialdeetan sarbide mugatua izan dute kalitatezko hezkuntzara, eta haien eskolatzeko eten ahal izan da. Horrek areagotu egiten du porrot egiteko eta eskola uzteko arriskua. Horregatik, beharrezkoa da pertsona bakoitzaren berriazko beharrik identifikatzen hobetzea eta, aldi berean, tresna eta baliabide eraginkorrak diseinatzea eta



ezartzea, ikastetxeen harrera-gaitasuna indartzeko eta, hautemandako beharren arabera, berariazko hezkuntza-erantzunak edo -ibilbideak garatzeko.

E5. Hezkuntza-jarduera egokitzea berariazko hezkuntza-laguntza behar duten atzeritar jatorriko ikasleei eta proiektu berritzaileak sustatzea aniztasun sozio-kultural altua duten ikastetxeetan.

Atzerriko gurasoekin EAEn jaiotako ikasleen proportzioa gero eta handiagoa da (aurrekoak atzerrikoak dituzten edo bigarren belaunaldiko atzeritarrak diren ikasleak), eta hori kontuan hartu behar da jasotzen dituzten hezkuntza-aukerak planteatzeko edo birplanteatzeko garaian.

Nahiz eta gizarteratze-maila lehen belaunaldiko ikasleena baino handiagoa izan, eta, hasiera batetik, atzerriko ikasleekin lotu ohi diren zenbait defizit izateko probabilitatea txikiagoa duten arren (curriculum-atzerapenak, ingurunearen eta hizkuntzaren ezjakintasuna eta familia-deserrotzea, besteak beste), ezinbestekoa da gizarte-bazterketari eta eskola-porrotaren arriskuari goiz aurrea hartzea, ikuspegi inklusiboaz kudeatutako esku-hartzeen eta laguntzen bitartez, eta ez, ordea, konpentsazioaren ikuspegitik soilik.

Euskal eskolak aurrez aurre du ikasleen profil askori arreta emateko erronka garrantzitsua, euskarazko gaitasun egokia bermatzeko, hezkuntza-aukerak hobeto aprobetxatu ahal izateko eta gizarte-inklusio hobea izateko. Kontuan izan behar da euskara hizkuntza gutxitua dela, eta normalizazio-prozesuan dagoela; hori horrela, euskara ardatz nagusi gisa duen eskola eleaniztuna finkatzeko, eskola-mailako eta eskolaz kanpoko esku-hartzea sendotu egin behar da.

Aldi berean, kontuan izan behar dugu gure ikasgeletan dagoen kultura- eta hizkuntza-aniztasuna, lehenengo eta behin, gure hezkuntza eleaniztunaren sisteman sartzen diren pertsonen harrera egokia egin ahal izateko eta, bigarrenik, kultura eta hizkuntza horiek gure hezkuntza-sisteman integratzeko.

E6. Aniztasunari behar bezala erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak identifikatzea eta egokitzea.

Hezkuntza-sistema bat ekitatibotzat jotzen da gai denean biztanlerian dauden desberdintasun sozioekonomikoak arintzeko. Horrela, aukera-berdintasuna eskaini ahal izango zaie kalitatezko hezkuntza eskuratzeko, eta, era berean, bermatu egingo da ikasleen etekin akademikoa ez dutela nahitaez baldintzatuko beren testuinguru sozialak, ekonomikoak eta familiakoak.

Zuzentasunean oinarritutako ikuspegi horretatik abiatuta, eta oinarri hartuta atzeritar jatorriko ikasle askok hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak dituztela, beharrezkoa da hezkuntza-ekintza osatuko duten bitartekoak eta laguntza antolatzea.



Bestalde, atzerriko ikasleen kontzentrazioak —zenbait eskolatan estatus sozioekonomiko apalagoa duten ikasleek— baldintzatu egin ditzake haien eskola-arrakastarako aukerak. Gainera, berariazko gizarte- eta hezkuntza-erronkak planteatzen dizkie ikastetxeei. Egoera horiek gainditzeak eskatzen du eskola-proiektu sendoak antolatzea, esparru metodologiko berritzaileagoak, malguagoak eta eraginkorragoak garatzea, eta ikastetxe horien erakargarritasuna handitzea. Horretarako, berariazko baliabideak zuzkitu behar dira.

E7. Instantzia publiko guztien ekintza koordinatua sustatzea, eskola-esparruan ekitatea eta kohesio handiagoa izaten laguntzeko.

Eskolak testuinguru anitzagoaren eta askotarikoagoaren berariazko erronkei hobeto erantzun ahal izateko, beharrezkoa da kulturarteko harreman- eta bizikidetzagune positiborako gune bat eraikitzea, eskola-inguruneaz haratago. Gainera, kontuan hartuta atzerriko familiak ingurune sozioekonomiko ahulagoetan ezartzeko joera dutela, beharrezkoa da ikuspegi integralagoa izango duten berariazko esku-hartzeak planteatzea ingurune horiei zuzenduta.


Horretarako, hezkuntza-ekintzak politika eta neurri globalagoekin eta sektoreartekoekin batera etorri behar du; besteak beste, esparru hauetako jardunak bilduko dituztenekin: gizarte-babesa, gazteria, laneratzea, aisialdia eta kultura, hirigintza, etxebizitza eta hizkuntza-politika.

5.2 Jardun-esparrua eta esku hartzeko proposamenak

Heziberri 2020 planaren hezkuntza-eredu pedagogikoaren baitan egindako Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hezkuntza-sistema hobetzeko planak lan-ildo bat barne hartzen du, eta horren helburua da gizarteratzea, ekitatea eta hezkuntza-bikaintasuna batera sustatzea.

Hezkuntzaren ikuspegi integraletik, Eusko Jaurlaritzak euskal hezkuntza-sistemaren kalitatean aurrera egiteko beharrezkin bat egiten du; eta horretarako, sustatu egiten ditu ekitatea, gizarte-kohesioa, balioetan oinarritutako hezkuntza, pentsamenduaren eta sinesmenaren aniztasun eta askatasunarekiko errespetua, giza eskubideak eta aniztasunaren defentsa.

Horiek izan dira Hezkuntza Saila eskola inklusiboaren eta aniztasunaren trataeraren esparruan egiten ari den politiken eta jardueren oinarri izan diren printzipioak. Hona hemen horien laburpena:



Euskal hezkuntza-sistemak berretsi egiten du ekitatearen aldeko apustu hori, hezkuntzarako beka eta zerbitzu osagarrien bidez (garraioa, jangelak, etab.); eta horri gehitu behar zaio egiten den ahalegina hezkuntzan ikasleen inklusibitatea eta eskola-arrakasta handiagoa lortzeko egiten den ahalegina, berariazko planen bidez eta, honako beste zenbait neurrien bidez:

- Irakasleen profila eguneratzea, Sailaren prestakuntza-eskaintzaren bitartez.
- Ikasleekin esperientzia berritzaileak sustatzea, Sailaren lehentasuneko lerroei lotutako deialdien bidez. Horien artean, eskola inklusiboaren esparruan aniztasunarekiko arreta dago.
- Ikasle ahulenei laguntzeko neurriak eta laguntzak. Horien artean daude: Haur Hezkuntzako Arreta Goiztiarraren protokoloa, eskolatu berri diren eta/edo hezkuntzaren arloko hezkuntza-laguntzako premia bereziak (HLPB) dituzten ikasleentzako laguntzak edota aniztasunari erantzuteko neurriak Bigarren Hezkuntzako etapan (berariazko hezkuntza-errefortzurako programa, curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta etekina hobetzeko programak).
- Hamaika Esku eta Bidelaguna programak, eskola-porrota izateko arrisku handiena duten ikasleen hezkuntza-arrakasta helburu dutenak.
- Ikastetxeen kulturartekotasuna eta bizikidetzak sustatzeko berariazko programak.

Hurrengo taulan, Hezkuntza Sailak hezkuntza-ekitatea eta inklusioa bultzatzeko garatu dituen plan eta programa nagusiek jasotzen dituzten lehentasunak laburtzen dira:



Aniztasunaren trataerarako plan estrategikoa eskola inklusiboaren esparruan (12-16).

- Kulturartekotasuna sustatzeko programak.
- Bidelaguna (eskola-arrakastarako programa).
- Berriazko hezkuntza-errefortzurako programa
- Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta etekina hobetzeko programak.
- Eskolatze osagarriko programak.

Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren esparruan ikasle etorkinei arreta egiteko II. Plana.

- Zuzentasunarekiko konpromiso instituzionala.
- Informazioa eta komunikazioa.
- Antolamendua eta kudeaketa.
- Baliabideak.
- Prestakuntza eta ikerketa.
- Planak eta programak.

Hamaika Esku programa etekin akademiko txikiko ikastetxeentzat.

- Ikasleekiko arreta eta jarraipena.
- Irakaskuntza-jarduna.
- Familia-eskola lankidetzak.
- Hizkuntza-konpetentzia.
- Konpetentzia matematikoa.
- Baliabideen plangintza, antolamendu eta kudeaketa eraginkorra.

Zehatzago, *Ikasle Etorkinei Arreta emateko II. Plana*, eskola inklusibo eta kulturartekoaren esparruan (2016-2020), lehentasunezko helburu honekin egin zen: gure sisteman sartu berriak diren ikasleen inklusioa bultzatzea —baita atzerriko familiakoak diren ikasleenak ere—, gizartean parte har dezaten; eta, horretarako, sustatzea ekimen arauemaileak, antolamendukoak eta metodologikoak, ikastetxeetan egiten diren jardunen mesederako izango direnak; horien helburua dela haiek sisteman sartzea eta irautea, eta haien hezkuntza-aurrerabidea erraztea.

Plan hori gizarte- eta hezkuntza-eragile nagusiekin egiaztatu zen, eta esku hartzeko berriazko 3 eremu zehazten ditu (arauemailea eta informaziokoa; plangintza; berrikuntza), baita eta 6 ardatz estrategiko ere, egungo legegintzaldian ezartzen ari diren neurriekin.

Jarduera-esparru horretatik abiatuta, eta kontuan hartuta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak planteatutako neurriak²⁶, eta gizarte- eta hezkuntza-eragileek egindako proposamenak, atal honetan zenbait jarduera aurkeztu dira, hezkuntza-sistemak eskola-esparruan ekitatearen eta kohesioaren erronkari ematen dion erantzuna sakontzeko eta areagotzeko bidea emango dutenak.

Sarbidea aukera-berdintasunez bermatzea laguntzen duten ekimenak (E1).

²⁶ IV. *Euskal Inklusio Plana —17-21—*, *Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana —18-22—* eta atera berri den *Herritarren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren arloko Jardun Plana —18-20—*.



Eskola-ikaspostu baterako sarbidea Administrazioak arautzen du, berriki egokitu den onarpenerako dekretuaren bidez, eta matrikulazio-prozesu bakar eta garden baten bidez. Horrek, Sailaren kudeaketa integralaren pean, aukera-berdintasunerako sarbidea sustatzen du.

Oinarri hartuta matrikulen mugikortasuna garrantzizkoa ez dela nahitaezko eskolatzealdian (matrikuletan epez kanpo etorri berrien ehunekoa izan ezik), pentsa daiteke lehen mailako sarbideak neurri handi batean baldintzatzen duela ikasleen osaera eskola-prozesu osoan.

Sistemaren ekitatearekiko konpromisoa indartzeko, *Ikasle Etorkinei Arreta emateko II. Planaren* lehen ardatzean, hiru esparru hauetan ezartzen dira neurriak: sarbidearen garapen arauemailea, iritsi berriak eskolatzeko irizpideak bateratzea eta eskolatzeko inklusioa sustatzea.

Ikuspegi berarekin, Administrazioak bere konpromisoa indartzen du, eta ikasleak sartzeari eta onartzeari lotutako jardunak zabaltzea proposatzen du:

1. Bi urtekoen gela Haur Hezkuntzako bigarren zikloan integratzen aurrera egitea eta bi urtetik aurrera ibilbide integrala sustatzea, eskolaratzean ahalik eta oreka handiagoa izateko sarbide goiztiarretik.
2. Gainbegiratze- eta kontrol-tresnak indartzea, eta ikasleak sartzeko eta onartzeko legeria betetzeko berme-mekanismoak ezartzea.
3. Tokiko erakundeekiko lankidetzak sustatzea, berariazko hezkuntza-laguntza behar duten atzerritar jatorriko ikasleak, zehatzago identifikatu eta ezaugarritzeko.
4. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzek eskola-eremu jakin bateko ikastetxeetan berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzat ikaspostuak erreserbatzeko ezartzen dituzten irizpideak homogeneizatzea.
5. Epez kanpo eskolatutako ikasle atzerritarren esleipenean oreka bermatzea eta, horretarako, batzordeen irizpideak homogeneizatzea, ikasle atzerritarren kontzentrazio altua duten zentroetan eskolatzeko prebenitzea eta eredu euskaldunetan eskolatzeko lehentasuna ezartzea, hobeto gizarteratzeko.
6. Eskolatzeko Batzordeek, eskolatu dituzten ikasleen jarraipen-tresna bat ezartzea; Batzordeen politikaren eraginkortasuna ebaluatzea; eta, hala badagokio, tokiko testuinguru bakoitzaren arabera eskola-sarerako inklusio- eta oreka-maila handiagoa sustatzeko irizpideak egokitzea.

Horrez gain, eta familiek ikastetxea aukeratzeko garaian lehenesten dituzten eta, gure ustez, eskola-bereizketari lotutako dinamika jakin batzuk sorrarazten dituzten arrazoiak informazio- eta sentsibilizazio-neurrien bidez modula daitezkeela kontuan hartuta, beharrezkoa da biztanle guztiak informatu eta sentsibilizatzeko honako jardun hauei lehentasuna ematea, osaera sozial orekatua duten ikastetxeen sistema batean aniztasunak duen balioaz jabe daitezen:



7. Eskolatzeko lurralde-batzordeen lana bultzatzea eta informatzeko, orientatzeko, laguntzeko eta ikasleen matrikulazio-prozesuan oreka gordetzeko mekanismoak eta baliabideak sendotzea.
8. Informazio- eta orientazio-puntuen esperientzia pilotuak abiarazi eta ebaluatzea, desorekak dituzten eskola-eremuetan komunikazio-ekintza fokalizatuak gara ditzaten, biztanle atzerritar gehien duten udalerri eta/edo eskualde batzuekin lankidetzan.
9. Tokiko erakundeekin, EUDELen bitartez, lankidetzan plan bat definitzea, eskolatzeko prozesuan eta hezkuntza etapa batetik bestera pasatzerakoan, familiak sentsibilizatu eta orientatzeko zereginen euren inplikazioa artikulatzeko.
10. Sentsibilizatzeko gida bat eta zenbait material diseinatu eta zabaltzea, atzerriko ikasleak hartzeko garaian ikuspegi inklusibo bat sustatzeko.
11. Gizarte-aniztasuna funtsean positiboa dela agerian uzteko sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpaina bat bultzatzea.

Ikastetxeen osaera sozialean oreka eta eskola-sistemaren kohesio handiagoa sustatzeko ekimenak (E2).

Administrazioak eskola-eskaintzaren eta eskola-maparen plangintzan eta ikasleak onartzeko prozesuaren erregulazioan oinarrituta dihardu, bidezko administrazio-prozeduren bidez eskaintza eta eskaria oro har orekatzen laguntzeko eta ikasleen eskolatzeko ager daitezkeen aldeak murriztuko dituzten mekanismoak txertatzeko.

EAEko eremuan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen sarea antolatu eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen Dekretuak ikaspostuen eskaintza planifikatzeko eta ikasle guztiei kalitateko hezkuntza-erantzun integratzaile bat emateko tresnatzat hartzen du eskola-mapa.

Orain arte, oro har, gero eta handiagoa den eskariari erantzuteko helburuarekin egin da ikaspostuen plangintza, baina jaiotza-tasa behera egiten ari den eta ikastetxeen osaera sozialean alde handiagoak agertzen diren testuinguru batean, indarrean dagoen eredu zirkunstantzia berrietara egokitu beharra dago.

Hain zuzen ere, ildo horretara bideratuta daude *Ikasle Etorkinei Arreta Emateko II. Planaren* 3. ardatzean planteatutako ekimenak eta duela gutxi hiru lurraldeetan hartu diren erabaki batzuk. Haien artean, honako hauek azpimarra daitezke:

- eskola-mapan egindako aldaketa batzuk (Gasteizko mapan egindakoa, adibidez);
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta/edo Batxilergoko ikastetxeak elkartzeko edo bat egiteko prozesuak (Ermua, Lasarte-Oria eta Eibarko ikastetxeetan, adibidez);
- ikastetxe publikoen ibilbideetan egindako doikuntzak (hala nola Gasteizko Umandi, Pedro Ignacio Barrutia eta Miguel de Cervantes HLHien kasuan).



Ondoren, plangintzaren eremurako hainbat jardun berri aipatuko ditugu. Guztiek eskola-sistemaren kohesio handiagoa sustatzeko zereginean aurrera egitea dute helburu.

1. Aniztasun soziokulturalik handieneko ikastetxeei lehentasuna ematea, haien eskola-eragineko eremuetan jarduteko eta kohesio handiagoa ekarriko duten ibilbide integratzaileak lortzeko.
2. Gure ikastetxe-sarean aniztasunaren banaketa zuzenagoa lortzeko plangintza-neurrien jarraipena eta ebaluazioa bultzatzea.
3. Ikaspostuen plangintzaren oreka aztertzea eta, hala badagokio, Eskolatzeko Batzordeei atzerriko ikasleen banaketa orekatua egiteko beharrezkoak diren jarraibideak ematea.
4. Ikasgelak, ildoak eta, hala badagokio, ikastetxeak ixtea edo bateratzea, ikastetxeen osaera sozialean aldeak agertzen dituzten eskola-eremuetan oreka handiagoa sustatzeko.
5. Udalen eskola-kontseiluen funtzionamendua bultzatzea, beste administrazio batzuekin lankidetzan eta hezkuntza-politiketan interakzioa bilatzea, eskola-mapan kohesio eta oreka handiagoa lortzeko.

Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren markoan, Bizikidetzaren positiboa bultzatzea, ikasle guztion eskola-arrakasta bermatzeko (E3).

Ikastetxeetan bizikidetzaren bultzatzeak hezkuntza-komunitateak eskola inklusibo baten esparruan egin beharreko lanaren zutabeetako bat izan behar du.

Inklusioaren inguruko kezka, euskal hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoetako bat ez ezik, sistema horren funtsezko elementu bereizgarrietako bat ere izan da, eta da oraindik ere. Politika eta ekimen asko garatu dira eskola inklusibo bat bultzatzeko eta aniztasunari erantzun egoki bat emateko. Hala ere, etengabe bilakatzen ari den gizarte plural eta konplexu batean bizi garela kontuan hartuta, eskolak modernizazio-ahalegina egiten jarraitu behar du, eraldatzeko ahalmena garatzeko eta egungo erronkei erantzuteko.

Euskal hezkuntza-sistemak, nolahi ere, inklusioa eta ekitatea sustatzen duten hezkuntza-politiken eta hezkuntza-programen ardatz egituratzaile bihurtu nahi du bizikidetzaren, zentzurik zabalenean hartuta, lotura hori sendotzen den heinean errazago sortuko baitira aniztasunaren balioan oinarrituta aukera-berdintasuna bermatzeko duten ikasteko guneak eta praktikak. Horretarako, honako jardun hauek bultzatuko ditu:

1. “Eskola Inklusiboa Garatzeko Plana” prestatu, ardatz egituratzaile gisa inklusioa, hezkuntza-ekitatea eta bizikidetzaren positiboa izango dituen eskola inklusibo bat sustatzeko.
2. Jardunbide egokiak detektatzea eta lankidetzan oinarritutako elkartruke eta ikaskuntzarako prozesuen garapena erraztea, batez ere kulturartekotasunaren, aniztasun teknikoaren arretaren, bizikidetzaren, integrazio soziolinguistikoaren eta familiekin egin beharreko lanaren eremuetan.



3. Unibertsitatearekin lankidetzan, espezializazio formakuntza bat sustatzea, irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza, kultura aniztasuneko eta eleaniztasuneko testuinguruetako irakaskuntzara egokitzeko.
4. Helduen Hezkuntzako zentroek euskal hezkuntza-sisteman eskolatutako seme-alaba atzerritarrak dituzten familientzako prestakuntza eskaintzea, haien gizarteratzea bultzatzeko.
5. Toki-eremuko agenteekin lankidetzan, eskola-elkarte osoari zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzei bide ematea, kulturartekotasuna eta diskriminaziorik eza sustatzen dituzten hezkuntza-sareak bultzatzeko.

Etorri berri diren atzerriko ikasleen harrera egokia erraztea eta hezkuntza-erantzuna egokitzea bideratuta dauden ekimenak (E4).

Gure sisteman berandu eskolatu ziren ikasleen gizarte-egokitzearen eta hizkuntza-egokitzearen premiak Hizkuntza Laguntzako Irakaslearen figura sortzea eragin zuen bere garaian.

Ikasle Etorkinei Arreta Emateko II. Planaren 5. ardatzean Hizkuntza Laguntzako Irakaslearen (HIPI-aren) profila doitzeko eta bere formakuntza indartzeko neurriak jasotzen dira. Gaur egun, ohiko alditik kanpo matrikulatzen diren ikasleen kopurua gora egiten ari dela kontuan hartuta, hizkuntza sendotzeko irakaslearen laguntza espezifikoa sendotu egin behar da, eta harrera eta hizkuntza-murgiltzea errazteko ikuspegi eta metodo berriak garatu behar dira.

Ilido berean, Hezkuntza Sailak hurrengo neurriak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du:

1. Ikasle iritsi berrien hezkuntza-premiak zehaztuko dituen tresna bat txertatzea, Eskolatzeko-batzordeei zentroa esleitzeko erabakian lagunduko diena, eta beharrezkoa izanez gero, baita harrera-laguntzarik egokiena erabakitzerakoan ere.
2. Ikasle iritsi berriei harrera egokia bermatzeko eta eskolatzen diren ikastetxeetan jarraitu ahal izateko protokoloak eguneratzea.
3. Ikasle iritsi berrien edo berandu eskolatu diren ikasleen ehunekorik handienak dituzten ikastetxeetan harrerako eta hizkuntza-murgiltzeko programa esperientzia pilotu bat egitea, lehen hezkuntzako laugarren mailan eta bigarren hezkuntzako bigarren mailen artean.
4. Berriki iritsi diren eta curriculum-desoreka handiak eta hezkuntza-laguntza jasotzeko premia espezifikoak dituzten bigarren hezkuntzako goi-mailetakako ikasleentzat eskolatzeko-osagarriko programa pilotu bat garatzea, ikasle horien hezkuntza-ibilbidea malgutasunez egokitzeko.
5. Erakundeen arteko lankidetzaren bidez, bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrak eskolatzeko erantzun espezifikoagoa ezartzea.



Hezkuntza-jarduera egokitzea berariazko hezkuntza-laguntza behar duten atzerritar jatorriko ikasleei eta proiektu berritzaileak sustatzea aniztasun sozio-kultural altua duten ikastetxeetan (E5).

Eskola inklusibo baten esparruan egiten den hezkuntza esku-hartzeak aukera-berdintasuna bermatu behar die eskolatutako ikasle guztiei, eta bereziki jatorriari edo eremu sozioekonomikoari lotutako desabantailak dituzten pertsona edo kolektiboek zuzendutako hezkuntza-laguntza espezifikoak proposatzeko moduan kudeatu behar du aniztasuna.

Curriculum muinbakar bat garatzeak eta ikasgelaren barruan laguntza normalizatuak diseinatu eta ezartzeak jatorriari edo testuinguru sozioekonomiko eta kulturalari lotutako desberdintasunak gainditzera bideratutako errefortzu-jardueren eraginkortasuna areagotzen du, eta, aldi berean, premien arreta partziala saihesten du.

Gainera, aniztasun soziokulturalik handieneko ikastetxeetan, beharrezkoa izango da zuzendarien eta irakasleen prestakuntza espezifikoak bultzatzea, Ikastetxearen Proiektuan txertatuko diren eta ikasleen premiei erantzun integrala emateko aukera emango duten esperientzia berritzaileak gara ditzaten.

Hona hemen kulturarteko eskola inklusibo baten printzipioen eta parametroen arabera landutako zenbait jardun:

1. Ikuspegi inklusibo batetik, hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoak dituzten atzerritar jatorriko ikasleei zuzendutako hizkuntza- eta hezkuntza-errefortzuko neurriak garatzea.
2. Aniztasun soziokulturalik handieneko ikastetxeetako irakasleak prestatzeko eta haiei laguntzeko ekintzak sendotzea, prestakuntza-jardunbide berritzaileetan oinarrituta (ikaskuntza-zirkuluak, laguntza/coachinga, behaketa eta pareen arteko feedbacka) beraien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak kultura aniztasuneko eta eleaniztasuneko tesuinguruetara egokitzeak.
3. Aniztasun soziokulturalik handieneko ikastetxeetako zuzendaritzei laguntzeko eta trebatzeko programa sendotzea, eta, horretarako, lidergo-programa bat bultzatzea, ardatz egituratzaile gisa bizikidetzeta eta hezkuntza-ekitate izango duten Ikastetxe Proiektu berritzaileak gara ditzaten.
4. Hezkuntza-berrikuntzaren eta aniztasunaren arretaren eremuko deialdietan parte hartzeko eta proiektu esperimentalak garatzeko garaian aniztasun soziokulturalik handieneko ikastetxeei lehentasuna ematea.
5. Atzerriko ikasleen eskola-arrakasta erraztuko duten eta ikastetxearen erakargarritasuna (eta, beraz, inguruko biztanleen eskolatze-eskaria) areagotuko duten itun berritzaileak eta "iman/erakarri-proiektuak" sustatzea.
6. Testuinguru geografikorik ahulenetan ibilbide bera duten haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan proiektu pedagogiko integralak



sustatzea, kasu bakoitzean proposatzen diren hezkuntza-neurrietan eraginkortasun handiagoa lortzeko.

7. Eskola-arrakastadun ibilbideak dituzten gazteen eta gizarteratzea eta hezkuntza-arrakasta sendotzeko premia bereziak dituzten ikasle atzerritarren artean mentoringeko esperientzia pilotua sustatzea.

Aniztasunari behar bezala erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak egokitzen dituzten neurriak (E6).

Hezkuntza-sisteman sartzeko eta hezkuntza-emaizetan ekitatea areagotzeko, baliabideak zuzentasunez esleitzeko politika gauzatu behar da, bai estatus sozioekonomiko baxuagoa eta gizarte- eta hezkuntza-ahultasun handiagoa duten ikasleentzako eta beren familientzako baliabideen kasuan, bai behar handiagoa duten zentroentzako baliabideen kasuan.

Eskolatzeko laguntzak hezkuntzara berdintasunean jotzeko funtsezko oinarri dira, bai eta ekitatearen eta kohesioaren berme ere, eta, hezkuntzaren unibertsaltasunaren ikuspegitik, familia eta ikasleen oztopo sozioekonomikoak eragiten ere laguntzen dute, baina, horiez gainera, tresna berria sartu eta garatuko da, ikastetxeetako hezkuntza-premiekin lotuta, eta horri hezkuntza-beharren indizea (HPI) esaten zaio.

Indize horrek zenbait aldagai jaso ditu, eskolatan dituzten ikasleen ezaugarriak, beren emaitza akademikoak eta abar direla-eta, premia gehien dituzten eta funts publikoekin eusten diren zentroak identifikatzeko; horrela, beren behar bereziekin bat datozen baliabideak hornitu daitezke.

Hezkuntza-beharren indizea aintzat hartuta, honako neurri hauek proposatzen dira, indize handiagoa duten ikastetxeetarako:

1. Zentro publikoei laguntzako irakasleak esleitzea, hezkuntza-beharren indizearen arabera, ikasle guztien aukera-berdintasuna eta hezkuntza-emaizta guztien hobekuntza sustatzeko hezkuntza esku-hartzeak garatzeko.
2. Ikastetxe horietako laguntzarako irakasleei ikastetxeko ikasle guztien aukera-berdintasuna eta hezkuntza-emaizta guztien hobekuntza sustatzeko prestakuntza berezia ematea.
3. Ikastetxe publikoen ekipamendu eta azpiegituretan antzematen diren premiei modu bereizgarrian erantzutea, erakargarriagoak izateko.
4. Zenbait formulatan aurrera egitea, besteak beste, erantzunkidetasun-akordioetan; eskolatan dituzten ikasleen profilararen arabera, zentroen premiekin bat datorren tratamendua ematea ahalbidetzeko.

Azkenik, administrazio-arloko neurria proposatzen da:



5. Matrikula-fitxak egokitzea, ikasleen eta beren familien aniztasun soziokulturala eta soziolinguistikoa hobeto erregistratu eta kategorizatzeko (esaterako, ama-hizkuntza edo erlijioa); horrela, beren hezkuntza-premien diagnostiko zehatzagoak egin ahalko dira, dagozkion laguntzak zehazteko.

Instantzia publiko guztien ekintza koordinatua sustatzen dituzten ekimenak, eskola-esparruan ekitatea eta kohesio handiagoa izaten laguntzeko (E7).

Eskolak testuinguru pluralago eta askotarikoago baten erronka espezifikoek hobeto erantzuteko, kulturarteko harreman eta bizikidetzaren harreman positiboen ingurune bat eraiki behar da eskola-ingurunetik kanpo. Oso garrantzitsua da adingabe guztiei beren hurbileko gizarte-ingurunetik kanpoko hezkuntza-jardueretan, jolas-jardueretan eta kultura-jardueretan parte hartzeko aukera bermatzea askotariko profilekin elkarreragiteko aukerak maximizatzeko, hau da, gizarte osoaren ingurune benetan adierazgarri batean txertatzeko aukera errazteko.

Horretarako, hezkuntza-jarduerarekin batera, politika eta jardun globalagoak eta sektore artekoak garatu behar dira, *Ikasle Etorkinei Arreta emateko II planak* esartzen duen moduan, honako jardura hauek bultzatuz:

1. Erakundearen arteko koordinazioa bultzatzea hainbat eremutan (eremu soziala, enplegua eta gizarte-politika, osasuna, gazteria, kultura, hizkuntza-politika eta abar), ikasle guztien hezkuntza-arrakastaren eta ekitatearen alde era koordinatuan lan egiteko. Sektore arteko jardunbiderik egokienak bultzatu eta sustatuko dituen erakunde arteko koordinazio-mekanismo bat ezartzea (gizarte- eta hezkuntza-arloko mahai bat, adibidez).
2. Tokiko entitateekin batera, ekitatearen alde jarduteko programak eta ekimenak garatzeko baterako akordioak eta planak zehaztea hainbat eremutan: gizarte-zerbitzuekiko lankidetzaren eskola-eremuan, eskolaz kanpoko eta hizkuntza- eta hezkuntza-errefortzuko jarduerak, ingurune/auzoko bizikidetzaren proiektuak eta inguruneko hezkuntza-planak, eta guraso-eskolak.
3. Aniztasun soziokultural handia duten ikastetxeen barruan hainbat zerbitzu eta profesionalen laguntza sustatzea (immigrazio-teknikariak, gizarte-langileak, hezitzaileak, terapeutak, osasun-arloko profesionalak eta irakasle taldeak), ingurune behartsuetako askotariko gizarte- eta hezkuntza-premiei eta gizarte- eta osasun-premiei erantzun egituratu bat emateko.
4. Ikastetxea ingurunera zabaltzea eta auzoko esku-hartzeak sustatzea, eskolaren, erkidegoaren eta familiaren arteko lotura sendotuko duten eta ikastetxea aberasteko eta gizarte- eta hezkuntza-ahultasun handiena duten ikasleen hezkuntza-arrakastarako gizarte- eta hezkuntza-eragileen artean lankidetzaren jarduteko sareen bidez.
5. Tokiko erakundeekin lankidetzaren, atzerriko familiek euskal hezkuntza-sistemaz duten pertzepzioari buruzko azterlan bat sustatzea, haien parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko.



Eranskina: esku-hartzeko neurri berrien laburpen taula

1. Erronka SARBIDEA aukera berdintasunean	2. Erronka Ikastetxe osaera sozialean OREKA	3. Erronka BIZIKIDETZA eskola inklusiboan	4. Erronka Etorri Berrien HARRERA	5. Erronka Hezkuntza-jarduerak egokitu	6. Erronka Baliabideak egokitu	7. Erronka Ekintza Koordinatua sustatu
<p>1. Bi urteko gela integratu eta ibilbide integrala sustatu.</p> <p>2. Gainbegiratzeko eta kontrol-tresnak indartzea, legeria betetzeko berme-mekanismoak ezartzea.</p> <p>3. Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten atzerritar jatorriko ikasleak, identifikatu eta ezaugarritzeko tokiko erakundeekiko lankidetzaren sustatzea.</p> <p>4. Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzat ikaspostuak erreserbatzeko ezartzen dituzten irizpideak homogeneizatzea.</p> <p>5. Epez kanpo eskolatutako ikasle atzerritarren esleipenean oreka bermatzea eta,</p>	<p>12. Aniztasun soziokulturalik handieneko ikastetxeei lehentasuna ematea, haien eskola-eremuetan jarduteko eta kohesio handiagoa lortzeko.</p> <p>13. Gure ikastetxe-sarean aniztasunaren banaketaren orekatuagoa lortzeko plangintza-neurrien jarraipena eta ebaluazioa bultzatzea.</p> <p>14. Ikaspostuen plangintzaren oreka</p>	<p>17. "Eskola Inklusiboa Garatzeko Plana" prestatu.</p> <p>18. Jardunbide egokiak detektatzea eta lankidetzan oinarritutako ikastetxeen arteko elkartruke esperientziak erraztea.</p> <p>19. Unibertsitatearekin lankidetzan, espezializazio formakuntza bat sustatzea, irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza kultura aniztasuneko eta eleaniztasuneko testuinguruetako irakaskuntzaren egokitzeko.</p>	<p>22. Ikasle iritsi berrien hezkuntza-premiak zehaztuko dituen tresna bat txertatzea.</p> <p>23. Ikasle iritsi berriei harrera egokia bermatzeko eta eskolatzen diren ikastetxeetan jarraitu ahal izateko protokoloak eguneratzea.</p> <p>24. Ikasle iritsi berrien harrerako eta hizkuntza-murgiltzeko programa esperientzia pilotu bat garatzea.</p> <p>25. Curriculum-desoreka</p>	<p>27. Hizkuntza- eta hezkuntza-errefortzuko neurriak garatzea.</p> <p>28. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak egokitzeko irakasleen formakuntza sustatzea.</p> <p>29. Ikastetxeetako zuzendaritzei trebatzeko programa sendotzea, Ikastetxe Proiektu berritzaileak gara ditzaten.</p> <p>30. Aniztasun soziokulturalik handieneko ikastetxeei lehentasuna ematea deialdietan parte hartzeko eta proiektu esperimentalak</p>	<p>34. Zentro publikoetan laguntzako irakasleak esleitzea, hezkuntza-beharren indizearen arabera.</p> <p>35. Ikastetxe horietako laguntzarako irakasleei prestakuntza berezia ematea.</p> <p>36. Ekipamendu eta azpiegituretan antzematen diren premiei modu bereizgarrian erantzutea.</p>	<p>39. Erakundeen arteko koordinazioa bultzatzea hainbat eremutan.</p> <p>40. Tokiko entitateekin batera, ekitatearen alde jarduteko programak eta ekimenak garatzeko baterako akordioak eta planak zehaztea.</p> <p>41. Aniztasun soziokultural handia duten ikastetxeen barruan zerbitzu eta profesionalen desberdinen laguntza sustatzea.</p>



<p>horretarako, batzordeen irizpideak homogeneizatzea.</p> <p>6. Eskolatzeko Batzordeek, eskolatu dituzten ikasleen jarraipen-tresna bat ezartzea.</p> <p>7. Eskolatzeko lurralde-batzordeen lana bultzatzea.</p> <p>8. Informazio- eta orientazio-puntuen esperientzia pilotuak abiarazi eta ebaluatzea.</p> <p>9. EUDELein akordioa matrikulazio epean sentsibilizazio- eta komunikazio-ekintzetan elkarlana bultzateko.</p> <p>10. Sentsibilizatzeko gida bat eta zenbait material diseinatu eta zabaltzea, atzerriko ikasleak eskolatzeko garaian ikuspegi inklusibo bat sustatzeko.</p> <p>11. Gizarte-aniztasunaren aldeko sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpaina bat bultzatzea.</p>	<p>aztertzea eta, beharrezkoak diren jarraibideak ematea.</p> <p>15. Ikasgelak, lerroak eta, hala badagokio, ikastetxeak ixtea edo bateratzea, ikastetxeen artean oreka handiagoa sustatzeko.</p> <p>16. Udalen Eskola-Kontseiluen funtzionamendua bultzatzea.</p>	<p>20. Toki-eremuko agenteekin lankidetzan, eskola-elkarte osoari zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzei bide ematea, kulturartekotasuna eta diskriminaziorik eza sustatzen dituzten hezkuntza-sareak bultzatzeko.</p> <p>21. Helduen Hezkuntza zentroek prestakuntza eskaintzea seme-alaba atzerritarrek eskolatuta dituzten familientzako.</p>	<p>handiak eta hezkuntza-laguntza espezifikoak dituzten bigarren hezkuntzako ikasle iritsi berrien eskolatzeko osagarriko programa esperientzia pilotu bat egitea.</p> <p>26. Erakundeen arteko lankidetzaren bidez, bidaiariek gabeko adingabe atzerritarrek eskolatzeko erantzun espezifikoagoa ezartzea.</p>	<p>garatzeko garaian.</p> <p>31. Atzerriko ikasleen eskola-arrakasta erraztuko duten eta ikastetxearen erakargarritasuna areagotuko duten itun berritzaileak eta “iman-proiektuak” sustatzea.</p> <p>32. Desorekak dauden testuinguruetan ibilbide bera duten ikastetxeetan proiektu pedagogiko integralak sustatzea.</p> <p>33. Eskola-arrakastadun ibilbideak dituzten gazteen eta gizarteratzea eta hezkuntza-arrakasta sendotzeko premia bereziak dituzten ikasle atzerritarren artean “mentoring” esperientzia pilotua sustatzea.</p>	<p>37. Zenbait formulatan aurrera egitea (Erantzunkideta sun-akordioetan) zentroek eskolatzeko duten ikasle profilararen arabera.</p> <p>38. Matrikula-fitxak egokitzea ikasleen aniztasuna hobe jasotzeko.</p>	<p>42. Ikastetxea ingurunera zabaltzea eta auzoko esku-hartzeak sustatzea.</p> <p>43. Tokiko erakundeekin lankidetzan, atzerriko familiek euskal hezkuntza-sistemaz duten pertzepzioari buruzko azterlan bat sustatzea.</p>
--	--	--	---	--	---	---

